



AURREPROIEKTUAK BADU ZER HOBETUA

Nafarroako Gobernuak Sunbillatik Endarlatsara bitarteko 2+1 errepidearen aurreproiektua prestatu du eta hasierako proposamena hobetu badu ere, oraindik badira kezka sortzen duten zatiak. Horietako bat da Etxalarko Bentak eta Lesaka arteko errepide zaharra Irun aldera joateko errepide nagusi bihurtzeko aukera. Berako Udalak gaia mahai gainean du eta herritar batzuekin elkarlanean aurreproiektua hobetzeko eskatu du. / 11

Nafarroako bertsolaritzaren zita

Larunbat honetan, abenduaren 2an, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala jokatuko dute Iruñeko Anaitasuna kiroldegian / 47

SINADURAK

 EKIÑE ZAPIAIN ARLEGI / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 NEREA ZABALETA LASARTE / 4	 MADDI LARRALDE APEZTEXEA / 4



ZOKKETA / 73



TTIPI-TTAPA

Musikari eta Kenpo Kairi buruz kontu kontari Modesto Ordokirekin / 8



TERESA ROJO

Mikel Iriarte zuzendaria omendu du Lesakako Musika Bandak / 23



Greba feminista orokorraren harira, mobilizazioak eskualdean



TIRIKITRAUKI
EUSKAL JANTZIETAN
AUKERA HAUNDIA

Zuloaga Kalea 16, 20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 644 270

emaila: denda@euskaljantziak.com

www.euskaljantziak.com



25. URTEURRENA (1998-2023)

TRIKITIXA eta ESKU-SOINUEN
SALMENTA eta ALOKAIURUA.

DISEINU EZBERDINETAKO
PANDEROEN SALMENTA.



Oria etorbidea 10 | 20160 LASARTE

Tel.: 943 372 817

emaila: tirikitrauki@tirikitrauki.com

BERA LESACA

Agenda 2023

ABENDUA

www.berakoagenda.eus
www.lesaca.eus

<p>1 ORTZIRALEA</p>	<p>AURKEZPENA "NI EZ NAIZ MIKEL LABOA" 19:00 Liburutegia</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>ANTZERKI JARDUNALDIAK KEINU LEIHOAK 19 ABENDUAK 3, 9 ETA 15</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>17 IGANDEA</p>	<p>DOKUMENTALA BIDASOA 2018-2023 FERMIN MUGURUZA</p> <p style="font-size: x-small;">18:00 Kultur Etxea Sarrera doan Antolatzailea Bertzietako Euskara Mankomunitatea</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">BERA</p>	
<p>2 LARUNBATA</p>	<p>IKUSKIZUNA LIBURU SENDALARIA (Tiferencia)</p> <p style="font-size: x-small;">17:00 Kultur Etxea Sarrera doan Antolatzailea Euskara-bidea</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">BERA</p>	<p>3 IGANDEA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>EGUBERRIETAKO AZOKA 10:00-18:30</p> <p style="font-size: x-small;">Antolatzailea Lesakako Zerbitzuen Elkarte</p>	<p>20 ASTEAKKEMA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">BERA</p>	<p>EGUBERRIETAKO KONTZERTUA BERAKO MUSIKA ESKOLA</p> <p style="font-size: x-small;">18:00 San Esteban Etxea</p>
<p>2 LARUNBATA</p>	<p>LIBURU AURKEZPENA "NO ME MONTES FIESTAS" RAMÓN SANJURJO</p> <p style="font-size: x-small;">18:00 Liburutegia Antolatzailea Beti Gazte</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>10 IGANDEA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>BAKARRIZKETA "GERNIKAKO MARIKA"</p> <p style="font-size: x-small;">18:00 Herrerioa Kultur Etxea</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>22 ORTZIRALEA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>EGUBERRIETAKO KONTZERTUA LESAKAKO MUSIKA ESKOLA</p> <p style="font-size: x-small;">Herrerioa Kultur Etxea</p>
<p>2 LARUNBATA</p>	<p>ERAKUSKETA EUSKARA IBILTARIA ABENDUAK 3, 6 ETA 8</p> <p style="font-size: x-small;">11:00-13:00 Kultur Etxea</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">BERA</p>	<p>12 ASTEARTEA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>HITZALDIA ETA TAILERRA "EL ABC QUE SALVA VIDAS"</p> <p style="font-size: x-small;">17:30 Liburutegia</p>	<p>22 ORTZIRALEA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">BERA</p>	<p>FILM LABURRAREN EMANALDIA ETA SOLASALDIA "HEZUR BERRIAK"</p> <p style="font-size: x-small;">GARAXI TABERNA ETA ARITZ LAZKANO; SKULLMENDI FILMS)</p> <p style="font-size: x-small;">20:00 Kultur Etxea Argibide gehiago www.skullmendi.com/bera-berriak</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">BERA</p>
<p>15 ORTZIRALEA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">BERA</p>	<p>ANTZERKIA HAMELIN Y ALADDIN UXANE ZENTROKO KIDEEK BE- RRIKUSITAKO HERRI-IPUINAK</p> <p style="font-size: x-small;">19:00 Kultur Etxea</p>	<p>16 LARUNBATA</p> <p style="text-align: right; font-weight: bold; font-size: small;">LESACA</p>	<p>EGUBERRIETAKO KALEJIRAK</p> <p style="font-size: x-small;">Antolatzailea Santa Zenilia Batzardea</p>		



NIRE TXANDA

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI

Bat, bi eta hiru

Bertze hamaika pertsonaren antzera, egunero Euskal Herriko hiru herrialde zapaltzen ditut laneko joan-etorrian: Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurdi. Bat, bi eta hiru. Hiru herrialde eta mugako zubi bat; bere erranahiaren kontra darabilten zubi bat.

Gaur bertan ikusi dut nola oinez mugako zubia pasatzeko asmoz zebilen gazte bat kotxean sarrarazi duten jendarmeez eta guardia zibilek, pasoa ukatuz eta bidea itxiz. Erran beharrik ez dago zein koloretakoa zuen azala, ezta?

Sutan sentitu dut barrena.

Kotxea zubi erdian gelditu eta oihuka hasteko grina batek tripa hartu balit bezala. Baina ez dut egin; ez naiz ausartu. Martxa murriztu eta aitzinera segitu dut mugako kontrola giblean uzten nuen bitartean.

Burura etorri zait duela aste batzuetako titular hura: «Irun eta Hendaia arteko Avenida zubia ireki dute». Eta irakurtzen ez zena: «Berdin-berdin segituko du itxita bizitzeko eskubidea bera ukatzen zaien etorkin horientzat».

Sinplea da kontua: giza eskubideez ari gara. Erraza behar luke aldatzeak. Saiatuko gara? Itxi begiak: bat, bi eta hiru... ea, ireki.

**«ERRAN BEHARRIK
EZ DAGO ZEIN
KOLORETAKO
ZUEN AZALA, EZ?»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ez nau izutzen negu hurbilak...

Euskal Herritik mugitu gabe hor ditugu Bilboko BBK Live edo Gasteizko Azkena Rock musika jaialdi entzutetsuak. Hurbilago, uda partean, Sarako Usopop, Arizkun Rock (azkena?) edo Arantza Rock... Baina abendu hotzean Zubietako gazteek inguruko musika taldeei plazaratzeko aukera ematen dien Piz&Lohi Pest jaialdiak badu zerbait berezia... Izenetik hasita!

NABARMENTZEKOAK



**LEIRE
BARRIOLA GOÑI**
GARTZAINGO IKASLEA



**MIKEL
IRIARTE PIKABEA**
LESAKAKO MUSIKARIA

Errioxako Unibertsitateak Leire Barriola gartzaindarra saritu du. Turismo gradua egin du Barriolak eta bere promozioeko espediente akademiko hoberena lortu du.

25 urte bete ditu aurten Mikel Iriarte musikariak Lesakako musika banda zuzentzen. Urteurren berezia dela eta, bandak omenaldia egin zion azaroaren 11n.

GIBELERA BEGIRA



2011-11-10 · TTIPI-TTAPA · 554 zk.

Lurralde Elkargoa lortzeko borrokan

Iparraldeko Lurralde Elkargoa sortzeko mobilizatzaera deitu zuten duela hamar urte Senpereko auzapeza buru zuten Auzapezen Biltzarrak. Frantzia egiten ari zen deszentralizazio prozesuaren barrenean, Iparraldeko lurralde elkargo berezia sortzea eskatu zuten. Horrekin batera, euskararen ofizialtasuna, unibertsitatearen sortzea eta laborantza ganbara sortzea ere aldarrikatu zituzten. Horretarako Maulen deitu zuten manifestazioa, azaroaren 30ean. Frantziako Gobernuak lurralde elkargoa sortzeari ezezkoa eman bazion ere, borrokarako grina mantendu behar dela zioen Christine Bessonart Senpereko auzapezak. Bessonartek salatu zuten Frantziako eskuinak eta ezkerak ez ziela erantzunik ematen Ipar Euskal Herriaren aldarrikapenei.

 **ttiipi-ttapa**

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberriagarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 45€
eta Malerrekako 36€
Leitza 36€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 100€
Amerika eta Australia 152€

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

 mecna

 BAZTANGO euskara

 BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

 Malerrekako Mankomunitatea

 CC BY SA



KOLABORAZIOAK

NEREA ZABALETA LASARTE

Betaurreko moreak

Odola irakiten daukat. Artikulu hau idazteko informazioa biltzen ari nintzen, eta bat-batean e-mail bat jaso dut. Emaila nire ospitaleko terapia geniko eta zelular institutuarena da. Duela hilabete batzuk beka batzuk atera zituzten eta gure sistemaren zeuden ikerlari guztiek beraien proiektuak bidali zituzketen finantziarioa lortzeko beka horien bitartez. E-mailean irabazlearen izenak daude. Eta a ze sorpresa nirea! Sei irabazleak gizonak dira! Nola da posible beka ematen dituzten pertsonak ez ikustea niretzako (eta seguru nago milaka emakumerentzako) hain ebidentea den arazo bat? Akaso ez dira konturatzen gure sistemaren barruan gizonen proiektuak bakarrik sustatzen ari direla? Ze mezu bidaltzen die honek emakume zientzialari gazteei? Noski, nire ospitaleko terapia geniko eta zelular institutuaren lidergoa gizonak dira, eta noski, ez dituzte betaurreko moreak.

Emakumeek zientzien duten papera errebindikatzen daramat urte askoz: beraiek ikusgai jartzen, genero desorekari buruz gizartea kontzientziatzen eta emakume zientzialarientzako baliabideak eskura jartzen. Lan honi esker betaurreko moreak daramatzat beti, ezin ditut kendu. Edozein egoeratan, talde bati pribilegio bat ematen zaionean (bekak banatzean, kongresuetako mahai ingurueta zientzialariak gonbidatzean, konsortzio

**«MERITUA DUTEN
PERTSONA 'EZKUTU'
HORIEK AURKITU
BEHAR DITUGU»**

zientifikoak sortzean), nahi gabe emakumeak eta emakume gazteak direnak kontatzen ditut. Dagoeneko imajinatu izanen duzue normalean desoreka handi bat nabari dudala.

Arazoa da pribilegio horiek dauzkaten pertsona asko ez direla konturatzen pribilegiatuak direla eta ez dira gai ikusteko desoreka ebidente bat dagoela. Gehiengoak pentsatzen dute merezi dutelako daudela hor, eta segur aski merezi dute, baina berdin-berdin merezi duten beste batzuk kanpoan gelditu dira. Baina, zergatik gelditu dira kanpoan? Beti kanpoan egon direlako eta esfortzu gehiago behar delako beraiek aurkitzeko. Adibide bat jarriko dut. Oraintxe Google-en '*expertos en neurociencia*' bilatu dut eta aurreneko artikuluan hamar neurozientzia aditu aurkitu ditut. Denak gizonak. Neurozientziari buruzko mahai inguru bat antolatu nahi baduzu eta Google-era jotzen baduzu, gizonak aurkituko dituzu, eta emakumeak aurkitzeko 15. loturara jo beharko duzue. Emakumeak gonbidatzeko egin behar duzun esfortzua handiagoa da, askoz emakume gutxiago daudelako espazio pribilegiatuetan, eta beraz, ez daude komunikabideetan.

Hala ere, urte hauen guztien ondoren badakit emakume horiek hor daudela, meritu berdinarekin, baino inork ez ditu «deskubritu». Imajinatzen dut gauza bera pasako dela beste arlo batzuetan. Egoera hauetan, pribilegioak emateko boterea dugunean, betaurreko moreak jarri behar ditugu eta meritua duten pertsona «ezkutu» horiek aurkitu. Baino espero dut denbora pasa ahala gero eta jende gehiagok betaurreko moreak jartzea injustizia hau luzatu ez dadin. Eta zuk, badituzu betaurreko moreak?



MADDI LARRALDE APEZETXEA

Trabatutako turroiak

Eguberriak ailegatzen ari diren honetan, hausnarketa bat edo bertze egitea norbere buruari egiteko oparirik egokiena litzatekeela erranen nuke. Bapo jan ohi dugun ospakizunak izaten dira eta janariak ez ezik, irentsitako hitzez ere asetzen gara. Urtean zehar izandako bizipenak otordu bateko solasaldira mugatzen ditugu, lau esalditan bizitzak izan dituen biren berri emanen dugulakoan. Norbere irudiak, ordea, badirudi informazio nahikoa ematen duela elkar ikusten dugun oren murrizetan. Argaldu denari berehalakoan jakinaraziko dio izebak «zer egin duzu horrelako tipoa izateko?» edo «ze guapa zauden» komentarioen pean gorapatuz. Loditu denari hasieran deus ere ez erran arren, osabaren ezpainak ardoz belztu orduko helduko dira «mejotu zara» hitz gordinak. Batak eta bertzeak euren haragitan gertatu denaren berririk ez balute bezala, badaezpada jakin dezaten.

Bikotekidearen afera bertze gai ohikotzat adieraziko nuke. Sekulako garrantzia omen du bikotekiderik izan edo ez jakiteak, maitasunaren adierazle bakarria bailitzan. Agian bikotekiderik ez duenak badu kanpotik sekula jasoko ez duen barne maitasunik. Aspaldian maitemindua egoteari utzi zionak bikotekidearen soka motzari eusten jarraitzen dion bitartean, hori delakoan izan dezakeen maitasun eredu bakarria. Honela, «baduzu mutilik?» galdera momenturen batean aditzea

**«BETI BERAK
AMORE EMATEA
EZ DA
KASUALITATEA»**

urteroko kontua da. Dudana eta ez dudaren berri eman behar dudalakoan. Bikotekidea izan behar dudalakoan. Mutila izan behar delakoan. Nahiago nuke zer moduz naogen galdetuko bazenit.

Eta ezin aipatu gabe utzi gastatzeko dugun *bixka*. Merkatuaren garestitzea ohiko prezioa bikoiztu arte igotzen den arren, stock-a agortu arte erosketak egiteari ekiten diogu. Finean, urtean behin da. Ez da hainbertzerakoa. Ez da hainbertzerakoa zakarretan bukatzen duen arrain eta haragi kantitatea, turroi erreto eta plastikozko bilgarriak, hautsitako kopak, jostailuak, berriak ordezkatu duen hamar aldiz erabilitako jertsea, erregalu-paperak, bizikleta zaharra (lehengusu txikiari ez diozulako emanen, Olentzerok zurea baino hobea den bat oparitu baitio) eta hain merke erositako abioi tiketak (garesti ingurugiroarentzat, enpresa handientzat xumetasunean lanean ari denarentzat).

Belaunaldi, ideologia, genero eta bizi ohitura desberdinak biltzen dira mahaiaren bueltan eta kontzeptu batzuen kontrajartzeak eraginen du eztabaida bat edo bertze. Desadostasunak normalak diren arren, beti berak amore ematea kasualitatea ez dela azpimarratu nahiko nuke. Eztabaidan ezezkoek eta baiezkoezkoek pisu bera izan beharko luketelako. Ez da norgehiagoka. Ez dago irabazle eta galtzailearen beharrik. Iritziak elkarbanatu eta hauen elkarrekintza sorturiko ondorioa da helburua. Edo akaso bertatik sorturiko iritzi berri bat. Baina horretarako beharrezkoa da bi aldeetako balantza orekatua izatea, ulertua edo aditua sentitzen ez denik egon ez dadin. Irentsitako hitzek inor ito ez dezaten.

11 GALDERA LABUR

IXONE ELIZALDE MITXELENA ZUBIETAKO GAZTEA

«Zaila da azaltzea joareak jotzean sentitzen dudana»

Nola definituko zenuke zeure burua?

19 urte dituen eta Zubietan bizi den neska alaia naizela esanen nuke. Hala ere, nire ingurukoek hobeki erantzunen lukete galdera hori.

Zein dira zure zaletasunak?

Mila okurritzen zaizkit. Familia eta lagunen arrimuan edozein gauza, eta azken momentuko planak dira gehien disfrutatzen ditudanak.

Zein ikasketa egiten ari zara?

Iruñeko unibertsitate publikoan nago, Lehen Hezkuntza Graduko bigarren mailan.

Zergatik Lehen Hezkuntza?

Tikiekien egotea betitik gustatu izan zait, transmititzen duten inozentzia eta bat-batekotasuna mirestekoak dira. Klasean emandakoak interesa

piztu didate eta praktikara eramateko aiherrik nago.

Joareak jotzen ere aritzen zara.

Nolako esperientzia izaten da?

Zaila da sentitzen duguna hitzez adieraztea. Soinu hutsa aditzearekin oilo ipurdia jartzen zait. Herritarrok barnetik eramaten dugun sentimendu berezia da.

Zergatik hasi zinen?

Etxeko gehienek aspalditik joareak jotzen dituzte. Ttikia nintzela paratu zizkidaten eta ondokoekin batera horretan segitu dut, gelditzeko intenziorik gabe.

Gazteria beharrezkoa da herria bizirik mantentzeko?

Bai, dudarik gabe. Gazterik gabe ezinezkoa da herriak bizirautea, hauen parte hartzeak eta ideia berritzaileek herria



bizitzen dute. Hala ere, haur eta zaharrak gazteak bezain inportanteak dira.

Zer da Zubietatik gehien gustatzen zaizuna?

Inauterietan herritar guztion artean sortzen dugun giroa eta saltsa ikaragarri gustatzen zait. Aste batez herriko estalpean elkarbizitza polita da, eta adin guztietako herritarren solasean gozatzen dut.

Eta zer falta du?

Gazteak bertan gelditzera motibatzen dituen aukerak. Bi-

zitzen ari garen errealitatean, lana eta etxebizitza eskuragarri behar ditugu.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Ikasketakikitzea da nire lehen-dabiziko helburua. Bitartean, gaztaroa topera disfrutatzen saiatuko naiz.

Eta epe luzera?

Bizitzak buelta asko ematen ditu, ez dakit bihar non egonen naizen. Inguruko guztiak ongi egotea nahiko nuke, eta beraien ondoan zoriotsu izan.

Eguberri on!

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

- Albornozak**
- Mantelak**
- Kuxinak**
- Edredoi nordikoak**
- Ohe estalkiak**
- Maindireak**
- Toailak**
- Edredoi-azal nordikoak**

2023-11-30 | 843. zk. | ttipi-ttapa 5



IRAKURLEAK MINTZO

«'Marikoi' hitza aditu duzu eta utopiak leher egin du»

MARKEL ADIN BIDEGAIN

Oihu bat. Bertze bat. Bertze bat...

Irri bat. Bertze bat. Bertze bat...

Horma bat.

Buelta eman duzu, eta hortxe dago, gizon cis-hetero zuria. Zuri begira dago, inongo lotsarik ez dardararik gabe. Badakizu bera izan dela, zurekin dagoen lagunak ikusi baitu. Baina ez zara ausartzen. Ez zara ausartzen, eraso dizun gizonarengana hurbiltzen. Badakizu zergatik eraso egin dizun, oihu eta irri horien artean «marikoi» edo «marika» hitza aditu duzulako. Badakizu eraso homofobia izan dela, eta ez dela «bertze bari bota nahi zion horma» baten kolpea izan.

Zure lagunek egoera horren kontra egin nahi dute, baina zuk, faborez, eskatu diezu deus ez errateko, ez duzula haiekin liskarrik nahi. Ez duzu liskarrik sortu nahi, zure ustetan zure kulpaz muntatuko baita liskar hori. Baina lagunekin solas egiten duzu eta konturatu zara liskar hori haiek hasi dutela, hasierako oihu edo irri horiekin, eta liskarra larritu duen hormaren kolpe horrekin.

Berdin-berdin ez duzu eraso horri kontra egiteko indarrik, gogorik, ez nahirik. Badakizu eraso horri erantzuten badiozu *paliza* bat hartuko duzula bueltan. Edo erasotua izatetik erasotzaile izatera pasako zarela, ez delako horrenbertzerako izan, edo esajeratu duzulako.

Nazkatuta zaude, kristoren errabiarekin, baina hor egon behar duzu, erasotzailea ondoan dagoen bitartean, bere *guayote* kuadrillarekin,

deus pasatu ez balitz bezala. Badakizu bera etxera joan eta berdin-berdin lo eginen duela, zu zure gelan izutua zauden bizkitartean, oraingoan zerbait «suabea» izan baita, baina hurrengoan edozein gauza izan daiteke.

Hurrengo goizean ernatu eta zure familiari ez diozu deus kontatu, beldur zarelako haien erantzunaz. Hor jakin duzu zure familia ere ez dela toki seguru bat zuretako. Kezka eta hausnarketa pilaren ondotik, harrokideekin biltzea erabaki duzu. Hor bai, seguru eta ulertua sentitu zara, erantzuteko prest, indarrarekin.

Baina ez da kasualitatea izan bilera horretan ulertua sentitzea, konturatu zarelako horrelako erasoak etengabe gertatzen direla, eta zure lagunek ere egunerokoan sufritzen dutela.

Momentu horretan utopia batean sartu zara. Karrikatik joan eta ez dizu inork deus erraten, armairuan dituzun belarritako handienak paratu eta dagoeneko normala dirudi, larunbat gauean horma bota zizunak gaur arratsaldean zutaz paso egin du. Kontent zaude. Bizitzen hasi zara 19 urte bizirik egon ondotik. Libre zara. Bestara atera zara eta inork ez du irri egin zure *plumoi*az, ezta keinu edo begirada txar bat ere.

Horrelako batean «marikoi» hitza aditu duzu eta utopiak leher egin du, ezinezkoa egiten zaigulako gure bizitzak erdiguneak paratzea, ez digutelako bizitzen uzten, beldurrarekin bizi garelako, batzuen irri-jolasa garelako.

Horretaz guztiaz hausnartu ondotik, konturatu zara zenbat balio duen saretuta egoteak, harrokideak izateak, hori delako zuretako gune seguru

bakarra, eta bai, batzuek sinesten ez duten arren, feminismoak bizitzak salbatzen ditu, bertze batzuk hiltzen gaituzten bitartean.

Esker onez

JIMÉNEZ-AVILÉS FAMILIA

Lagun estimatuak,

Jiménez Avilés familiaren eta Kevin Wladimir Paredes Jimenezen lagunentzat eskerrak eman nahi dizkizuegu gure semea, anaia eta laguna aberriratzeko hartu ditugun dohaintza guztiengatik.

Bereziki aipatu nahiko genituzke Berako Udala, Aproz ekuadortarrak Nafarroan elkarteak, Virgen del cisne elkarteak, Caritas, Anxel Iraola eta Berako herri osoa, hasieratik eman diguten babes guztiagatik.

Ez dago hitzik zuen aldetik hartu dugun babes eta maitasun guztia adierazteko. Egun zailak izan dira, baina Kevin azkenean jaio eta hainbertze maite zuen herrialdean dago eta hori guztia zuei esker izan da.

Dohaintza bakoitza izan da berezia eta, horregatik, berriz ere gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Hitz gurutzatuak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Baztanek hamabortz herri ditu. Zein dira?

- 1- Tradizioaren arabera, bertan sortzen omen dira ekaitzak.
- 2- Hortxe dago Baztango begiratokia.
- 3- Hiru auzo ditu: Aroztegia, Uharte eta Oharriz.
- 4- Bertizaranarekin muga egiten du.
- 5- Baztango herri ttikiena.
- 6- Mendi lasterketa Saioan barna egiten dute.
- 7- Baztandar gehienak herri honetan bizi dira.
- 8- Herrietako bestak ospatzen azkenak dira.
- 9- Xorroxin ur jauziak bisitari aunitz erakartzen ditu.
- 10- Erresistentziaren ikurra.
- 11- Inauterietako protagonistetako bat Hartzza da.
- 12- Herrietako bestak ospatzen lehendabizikoak dira.
- 13- Aurten eskola ttikien besta hemen ospatu dute.
- 14- Laxoa plaza ederra dute.
- 15- Irailean, txopo goratzearekin hasten dituzte bestak.

Kalko ustelak

'*eta abar luze bat' edo 'eta abar'?

Euskaltzaindiaren arabera, **eta abar luze bat* esapidea kalko desegokia da. Ez du tradiziozko idazle batzuek erabili izan duten. Gaztelaniazko «un largo etcétera» (eta ingelesezko «a long etcetera») esapidetik kalkatua dago. Gaztelaniaz ez dakitenentzat ulergaitza edo arrotza da. Aski da eta abar soila, edo, enfasia eman nahi bada, eta abar(,) eta abar.

*Oharra:

840. aldizkariko erran zaharra hauxe zen:
Ez kur urte, sagu urte.



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Kenpo Kai ezagutu izan ez banu aspaldi utzi izanen nuen akordeoia»

MODESTO ORDOKI LARRETXEAK AKORDEOILARIA ETA KENPO KAI IRAKASLEA

Musikari lotuta ibiltzeaz gain, Kenpo Kairen bueltan dabil azken 20 urteotan Ordoki. Gaur egun ikasle eta irakasle ari da eta berriki Tunisian jokatu den Munduko Kenpo Kai Txapelketan ibili dira

G. PIKABEA ARANTZA/DONEZTEBE

Herriz herri eta auzoz auzo teklak astintzen ibiltzen delako ezaguna da Modesto Ordoki Larretxea aranztarra. Baina akordeoitikharatago, badu bere egunerokoa betetzen duen berte afizio kuttun bat, aski maittea duena, gainera: Kenpo Kai. Itxuraz, bata bertzearekin deus ikustekorik ez duten bi arlo aukeratu ditu, baina biak behar ditu, «elkarren osagarri» baitira beretzat. Haurra zenetik musikaren bueltan dabil, eta musikari lana bertze afizio batzuekin uztartu izan du, bertzeak bertze, pilotako entrenatzaile eta epaile ibilita. Duela hogeiru urte, ordea, Kenpo Kai ezagutu zuen, berak dioen bezala, «txirripaz», eta «arrunt *engantxatu*» gelditu da. Gaur egun, Kenpo Kai irakaslea eta musikaria da, eta horietan izan ditu solasbide TTIPI-TTAPAREKIN.

Noiz hartu zuen lehenbiziko aldiz akordeoia?

Ttikitan, etxean, attaren akordeoiarekin hasi nintzen. Oroitzen naiz borts bat urte nituela, akordeoia ohatze gainean utzi, ezkerreko eskua sartu, eta baxua joz kantari aritzen nintzela. Ez zidaten akordeoia hartzen uzten, eta nik orduan eta gehiago nahi. Etxean attarekin hasi, eta gero Arantzan bertan, Martin Ibarrolarekin solfeoan ibili nintzen, baita organoa ikasten ere. Arantzatik Lesakara joan nintzen Santiago Irigoienekin solfeoan ikastera. Bere etxean hartu ninduen, eta berarekin bakarrik

ariz aunitz aitzindu nuen; berez borts urtez egiten dena bi urte pasatuketan egin nuen. Akordeoiarekin ere zorte handia izan nuen. Berara Irungo Mertxe Rekarte irakaslea etortzen zen, eta Itzea etxera joaten nintzen berarekin ikastera.

Eta plazako saltoa noiz eta non egin zenuen?

Lehenbizikoa 14 bat urterekin herrian egin nuen, urtezaharretako bestan, Gregorio [Mitxelena] lehengusuaren akordeoia hartuta. Apezaren etxean egin zen antzerkiaren ondotik, akabaila emateko bi pieza jo nituen. Kanpora ateratzen, berri, 15-16 urterekin hasi izanen nintzen. Legasako Santa Leokadia bestetan izan zela uste dut, baina ez naiz ongi oroitzen, hainbertze urte pasatu dira... Oroitzen naiz 16 urterekin Urdazubiko inauterietan jo nuela, eta Berueten ere bai. Nire intentzioa, garai hartan denek egiten zuten bezala, fabrikara joatea zen, eta lana eskatzera ere hurbildu nintzen, baina ez nintzen aritu. Akordeoiarekin segitu nuen, eta denborarekin, teklatuarekin ere hasi nintzen, akordeoia bakarrik jotzea nekagarria baita. Ez dut egunerogunero akordeoiarekin

«MUSIKAN SEGITU NUEN NAHIZ ETA ASMOA FABRIKARA JOATEA ZEN»

bakarrik ariz aguantatu duen inor ezagutu. Hagitz lan gogorra da, eta bizitzako erritmoaren kontra doana. Jende tartean ibiliz ez da batere aspergarria, ongi pasatzen duzu, baina goizaldeko ordu ttikitetan etxera joan, lo pixka bat egin, eta biharramunean segitu behar izatea gogorra da.

Plazako martxa aldatu da?

Bai, aunitz aldatu da. Alde batetik, jendearen dantzatzeko joera aldatu da. Lehen arratsaldetan jende gehiago ibiltzen zen dantzan. Eta bertzetik, musika mota ere aldatu da. Hasiera hartan norbaitek Miguel Riosen kantak eskatu izana oroitzen naiz. Atera kontuak! Garai batean bakailoa eskatzen zuten jendeak, eta oraindik ere nahi izaten du, baina reggaeton ere aunitz sartu da. Hortaz aparte, gaur egun DJak gehiago ibiltzen dira, eta edozein elkartetan edo tokitan mugikorra eta bozgarailuak izatea nahikoa da musika paratzeko.

Lanak beheiti egin du?

Ez, suertea izan dut. Covidarekin erabateko geldialdia izan genuen, eta beldur nintzen berriz martxan hasiko ez ote ginen, baina lehengora bueltatu gara, eta eskerrak.

«DUELA 20 URTE TXIRIPAZ DESKUBRITU NUEN KENPO KAI»

Zein dira hutsik egiten ez dituzun plazak?

Hamar bat izanen dira oraindik mantentzen ditudanak. Egiarretan (Nafarroa) 40 urte baino gehiago daramatzat, Sunbillako inauterietan 42 urte egin ditut, Zubietan inauterietan ere bai...

Plazaz plaza segitzeak prestaketa lan handia eskatzen du?

Ez horrenbertze. Beti pentsatu izan dut jendea bi tragorekin animatzen dela, laurekin gehiago, eta goizaldeko hiruretatik goiti denak balio du. Heidiren kanta jo eta jendea kontent jartzen da, ez zaio inporta. Baina kanta berriak sartzen ere saiatzen naiz.

Eta Kenpo Kairen munduan nolatan sartu zinen?

Duela 20 urte izan zen, txirripaz. Berez, defentsa pertsonala ikasi nahi nuen. Holako kontuak beti gustatu izan zaizkit, hemen inguruan ez zen aukerarik, eta nahi izatekotan Iruñera edo Irunera joan behar. Hortaz, Beran defentsa pertsonalaren ikastaroa antolatu zutela jakin nuenean, apuntatzea erabaki nuen, eta nirekin batera alabak. Berara joan ginen, baina ez zen jende nahiko apuntatu eta ikastaroa ez zen atera. Hala ere, Kenpo Kairen berri eman ziguten, Beran hasi berria zen arte martzialen modalitatea zela eta jendea gustura zegoela, defentsa pertsonaletik aunitz zuela... Hura adituta nire lehenbiziko galdera «Zein adinetakoak ibiltzen dira?» izan zen, eta ni baino zaharragoak bi bazirela ikusi nuenean, probatzea erabaki nuen. Alaba eta biok hasi ginen, eta ez dut sekula atzenuko lehenbiziko klasea. Ordu bateko saioa izan zen, eta etxerakoan honela erran nion alabari: «Badakizu zerbait arraroa pasatu zaidala? Ez naiz oroitu zu hor zeundela!». Irriz, berari ere gauza bera pasatu zitzaioela aitortu zidan. Halaxe jakin nuen hura zela nahi nuena. Egund hartan probatzea nahikoa izan zen. Lehendik pilotan entrenatzaile, epaile... ibilitakoa nintzen, baina gustatu arren, ez nuen

deskonektatzen. Burua beti martxan izaten nuen. Kenpo Kain, ordea, hasiera-hasieratik lortu nuen deskonexio hori, eta arrunt lotua gelditu nintzen.

Geroztik hor segitzen duzu....

Bai, duela hogeit hamar urte ikasten hasi nintzen, eta oraindik hala segitzen dut. Katak eta bertze teknikak ikasten dituzu, baina ikasitakoa mantentzeko lanean segitu behar duzu. Urtean biz-pahiru aldiz teknifikazio ikastaroak egiten ditugu, ikasitakoa ez atzetzeko. Nire kasuan, astelehenetan eta asteazkenean Beran Munduko Kenpo Kai Elkarteko lehendakariordea eta Europako lehendakaria den Shihan Vidalekin (Juan Mari Vidal) ikasten segitzen dut. Suerte handia dugu hemen hurbilean dugulako. Berak erakusten digu eta segi dezala. Gainerakoan, asteartetan eta ortzegunetan Elizondon klaseak ematen ditut, asteazkenean Donezteben eta larunbat goizetan Beran. Urte aunitz egin ditut asteartetan eta ortzegunetan Elizondon eskolak eman ondotik Oiartzunera klaseak hartzera joanez. Urte aunitzez astean hamar orduko entrenamenduak egin izan ditut, behar nuelako, gustatzen zitzaidalako.

Eta noraino ailegatu zara?

Gerriko beltza ateratzen duzunean, lehenbiziko Dan dago, eta hortik aitzinera bederatzi-garren Dan-era arte. Hirugarren Dan-alortzean Sensei bihurtzen zara, maisu, eta borzgarren Dan-etik goiti Shihan. Ni Shihan naiz. 2022an egin nuen azterketa. Igande batean izan zen, hilabeteak pasatuak nituen prestatzen eta oroitzen naiz azterketa egin ondotik, Pasai San Pedrorra musika jotzera joan beharra nintzela. Egun hartan, azterketa gainditzeko, teknika, kata... egiteaz gain, taulak eta harria hautsi behar nituen, eta lehendik egin nuen arren, zerbait gaizki eginenez gero eskua hausteak kezkatzen ninduen, gero akordeoia jotzera joan beharra bainintzen. Baina behar bezala kontzentratu eta atera nuen.



Sortzez arantzarra da Modesto Ordoki baina Donezteben bizi da. Halere, sorterrria bihotzean darama. TTIPI-TTAPA

Eta ikasle izatetik irakasle izateko pausoa nola eman zenuen?

Beran bilduak ginen batean, Etxalarko Guraso Elkarteko klaseak emateko baten bat nahi zutela aipatu ziguten. Hasieran denak isil-isilik gelditu ginen, baina azkenean animatu nintzen. Gerriko beltza ateratzeko ez du erran nahi klaseak ematen ahal dituzunik. Horretarako goi mailako teknikari ikastaroak eginak izan behar dituzu eta eginak nituen. Geroztik hama-bortz-hamasei urte pasatu dira.

Zer moduzko harrera du Kenpo Kai eskualdean?

Duela hogeit hamar urte Beran hasi zen. Geroztik aunitz zabaldu da eta gehiago egin nahi dugu. Beran, Donezteben, Urdazubin, Erratzun, Zigan eta Elizondon

izaten dira klaseak. Aunitzetan lana izaten da klaseak emateko arazoa. Alde horretatik, nik suertea izan dut, arratsaldeak normalean libre izaten baititut. Baina noizbait klasea eman ezin badut, Sensei eta Shihanen artean moldatzen gara. Denaren gaineratik, familia bat gara. Txapelketetan, konbatean, pinpi eta panpa ibili ondotik, konbate on baten seinalea da errespetuzko agurra egin eta txapelketa ondoko ospakizunetan besarkada ematea. Ongi moldatzen gara.

Aurten ikasturte hasiera berezia izan duzue. Munduko Kenpo Kai Txapelketan ibili zarete Tunisian...

Bai, hagitz berezia izan da. Baguenen hemengo mailaren berri, eta halakoetan kanpoan

zer harrapatuko duzun ez jakiteak kezka sortzen du, oraindik gehiago munduko txapelketa izanda. Toki aunitzetako jendea bildu ginen: japoniarrak, suediarak, frantziarrak, espainiarrak, aljeliarrak, brasildarrak, tunisiarrak... eta gu, euskal herritarak. Maila ona ikusi genuen, baina hemengoak ere ez dira gibelera gelditu. Euskal Selektzioarekin aritu ziren, eta guztira 22 domina lortu zituzten; horietatik zortzi eskualdeko herritarrenak izan ziren. Munduko txapelketan hori lortzea handia izan da. Japoniako selektzioak 19 domina lortu zituen.

Eskualdeko zenbat lagunek parte hartu zuten?
Xabi de Cruz (Bera), Beñat Etxeberria (Arizkun), Nerea Sanz →

→ (Ziga), Hegoi Bakero (Iru-rita), Mikel Bakero (Irurita), Miguel Nuñez (Elizondo), Markel Sanchez (Bera), Eva Graf (Erratzu), Daniel Sanz (Ziga), Aimar Rekarte (Erratzu), Mikel Indaburu (Etxalar), Itziar Erasun (Elizondo), Ibai Aleman (Irurita), Nahia Alzuiet (Urdazubi), Aiora Alzuiet (Urdazubi) eta Iñaki Alzuiet (Urdazubi) aritu ziren. Hamasei lagun ibili ziren lehian, eta ni epaile.

Lehia utzia duzu?

Entrenamenduetan ez, gustura aritzen naiz, baina txapelketetan epaileak ere behar dira. Munduko txapelketan nazioarteko 50 bat arbitro izanzen ginen.

Norentzat izan ziren dominak?

Markel Sanchezek, 12-13 urtekoetan, zilarrezko domina lortu zuen konbate semikontaktu modalitatean; Nerea Sanzek, 18 urtetik goitikoetan, zilarrezko domina irabazi zuen konbate modalitatean; Aimar Rekartek, 14-15 urtekoetan, zilarrezko domina irabazi zuen konbatean; Miguel Nuñezek, 18 urtetik goitikoetan, brontzezko domina jantzi zuen konbatean eta bertze lau dominak Urdazubiko aita-alabentzat izan ziren: Nahia Alzuietek, 12 urtez azpikoetan, alde batetik, konbatean zilarrezko domina lortu zuen eta bertzetik, brontzezko domina katetan; Aiora Alzuiet ahizpak, 12-18 urtekoetan, zilarra lortu zuen konbatean eta Iñaki Alzuiet aitak, 45 urtetik goitikoetan, brontzezko domina konbatean. Eta domina gehiago lortzeko hortxe-hortxe ibili ginen.

Beraz, balorazio ona...

Bai, hagitz ona; esperientzia ona eta polita izan da. Munduko txapelketa irail hondarrean izan zen, asteazken batean ailegatu ginen harat eta igandearekin buelta. Mugimendu handiko egunak izan ziren: ikastaroak, txapelketa, graduz igotzeko azterketak, besta eta dantza, tartean momentu bereziak, hartutako tratua hagitz ona... Eta emaitzak ikusita, lana ongi egiten ari garela baieztatu dugu. Inork ez du deus oparitzen.



Munduko txapelketara joan ziren eskualdeko kirolariak. MODESTO ORDOKI



Aimar Rekarte, Miguel Nuñez, Markel Sanchez eta Nerea Sanz dominekin. ONDIKOL

Ez dakien bati nola esplikatukenioke zer den Kenpo Kai?

Japonian sortutako arte martziala da, baina mugak aspaldi gainditu zituen. Hagitz konpletua da, denetarik du: teknika, defentsa pertsonala, katak, armak, arnasketa teknikak... Alderdi psikologikoa ere nabarmenduko nuke. Niri, adibidez, oreka eman dit eta hori mantentzen laguntzen dit. 39-40 urterekin hasi nintzen, eta Kenpo Kai izan ez balitz, ez nuen akordeoiarekin segitu izanen, aspaldi utzia izanzen nuen. Ordurako nekatzen hasia nintzen, eta Kenpo Kairekin nire ihesbidea harrapatu nuen. Jende aunitzek pentsatuko du hau borrokan edo ukabilkadaka aritzeko dela, eta niri ere hala

erran izan didate. Jendeak pentsatzen du arte martziala bi golpe nola eman ikastea dela, gero hori kanpoan erabiltzeko. Baina arte martziala ez da horretarako. Ikasten den lehenbiziko gauza errespetua eta autokontrola da. Arte martzial bat ikasten duen pertsona ez da kanpoan golpeak ematen ibiliko. Maisuak beti erraten digu «borrokarik hoberena borrokatu gabe irabazten den hori dela», eta egia borobila da. Batzuei kostako zaie norbere energiarekin, arnasketarekin, kontzentratuta, harri bat puskatzen ahal dela sinestea. Baina bai, egiten ahal da. Gaur egun bizitzan nahitaezko erreminta dela uste dut, baina horren gainetik bizitzeko modu bat da eta niri

aunitz eman dit. Kenpo Kain hasi arte, ez nuen sinetsiko zenbateraino ikasten ahal den norbere burua kontrolatzen. Pazientzia eman dit, oreka, egoera bakoitzari bertze modu batera buelta ematen erakutsi dit, azken batean, neure burua kontrolatzen ikasi dut.

Zer mezu emanen zenuke?

Konpromisorik gabe eta lasai ederrean Kenpo Kai probatzera etortzeko erranen nioke jendea. Gustatzen ez bazaie, utziko dute, eta gustatzen bazaie segitu. Normalean probatu dutenak gelditzen dira. Suabe-suabe hasten gara, minik hartu gabe. Horren harira, telebistak kalte handia eragin duela erran nahi dut. Arte martzial mistoak erakusten dituzte, eta horietan denak balio du. Pinpi eta panpa, artikulazioetan eta denean kolpeak emanez ibiltzen dira. Horiak nola bukatuko dute? Jakinek da, ongi ez. Zentzuz ibili behar da, biharamuneari lanera edo ikastera joan behar dugula oroitu, eta beraz, disfrutatzen ikasi. Telebistan ikusten ditugun horiek hortik bizi dira, gu ez. Ez dut bertze kirolen kontra deus, baina futbolearen, adibidez, hurrek Messi izan nahi dute eta ttikitatik egurra emateko erakusten zaie. Hori da mezua. Pilotan ere batzuetan nazkatuta bukatzen nuen jendearen komentarioekin... Kenpo Kain ez dago halakorik, hemen ahalik eta hobekien pasatzea nahi dugu, parte hartzea eta ahal dena egitea. Irabazten baduzu, hagitz ongi, eta irabazten ez baduzu, ez da deus pasatzen.

«MAILA ONA DUGULA IKUSI DUGU MUNDUKO TXAPELKETAN»

«NORMALEAN PROBATZEN DUENAK KENPO KAIN SEGITZEN DU»

Sunbilla eta Endarlatsa arteko bidea eztabaidan

N-121-A errepidea 2+1 bihurtzeko lanek aitzinera segitzen dute. Sunbillatik Endarlatsara bitarteko zatia falta da, eta gobernua egin duen aurreproiektuaren nondik norakoak esplikatzen dizkiote TTIPI-TTAPAri. Hasierako proposamena hobetu badute ere, oraindik badira kezka sortzen duten gaiak

G. PIKABEA BERA

Maiz izan da Iruñeko N-121-A, eta ia beti albiste beltzei aipamena egiteko. Argitik baino gehiago baitu ilunetik. Nafarroako errepide sare nagusian Iruñea eta Behobia lotzen dituen N-121-A da istripu gehien izaten dituen errepidea, eta datuak ere ikaratzekoak dira: 2010etik guttienez 40 lagun hil dira errepide zati horretan. Trafiko handikoa da, eta hori ere urtetik urtera handitzen ari da. Nafarroako Gobernuaren arabera, egunean, bana bertz, 11.000 ibilgailu pasatzen dira, eta horietatik 3.500 ibilgailu astunak dira.


Egoera horri buelta emateko soluzio eskaerak ez dira atzo goizekoak. Protesta jendetsu aunitz egin dira, tartean errepide mozketak, inguruko herrietan jatorriko edo helmugarik ez duten ibilgailu astunak A-15 autobiderra desbideratzeko eskaerak, sinadura bilketak... Baina pandemiak hori ere geldiarazi zuen. Nafarroako Gobernua, ordea, bere asmoei eutsi die, eta Ezkabako tuneletik Endarlatsarainoko zatia 2+1 motako errepide bihurtzeko lanekin hasi da.

Obra gehiago

Gibelera begiratuta, obra bat baino gehiago egin dituzte azken 26 urteotan. 1997an, adibidez, bihurtzeko itxiak eta estuak alde batera utzita, Belateko eta Almandozko tunelak egin zituzten. Baina geroztik horiek ere behin baino gehiagotan itxi behar izan dituzte, arazoak konpontzeko eta Europako araudira egokitzeko.



Ezkerretik hasita, Miguel Vicuña, Aitor Elexpuru eta Patxi Larretxea.



Belateko tunelak hartuko lukeen itxura.

Belateko eta Almandozko tunelak

2+1 bihurtzeko lanetatik aparte, N-121-A errepidean obra gehiago iragarriak ditu Nafarroako Gobernuak; konparazio batera, Belateko eta Almandozko tunelen bikoizketa. Belateko tunel berria egiteko 95 milioi euro eta 45 hilabete beharko direla jakinarazia du eta gaur egungoak bezalatsu, ia hiru kilometro luze izanen omen ditu (2.885 metro). Bi tunelak lotzeko bostz larrialdi galeria iragarri dituzte, erdikoa larrialdietako ibilgailuentzako eta bertz laurak oinezkoentzako, ibilgailu arinendako sarbidearekin. Belateko tunel berria lanen lehenbiziko fasean egingen dute eta ondotik, Almandozko tunel berria eta bi tunelen arteko zatia egingen dituzte. Bukatzeko, gaur egun erabilgarri dauden tunelak moldatuko dituztela errana dute.

2008an, berriz, Igantzitik Endarlatsarako tartea moldatzeko lanak hasi zituzten. Hiru zatitan banatu zituzten obrak (Igantzitik-Etxalar, Etxalar-Bera eta Bera-Endarlatsa) eta 2009an zabaldu zuten. Baina N-121-A ez dio errepide arriskutsu izateari utzi. Obrek kamioien harat-honatak areagotu dituzte eta datuek hala diote: 2008tik 2017ra N-121-A kamioiak trafikoa % 66 hazi zen.

2+1 errepidea

«Funtzionaltasuna eta segurtasuna hobetzeko» izanen dela erranez, N-121-A 2+1 errepide bihurtzea izan da Nafarroako Gobernuaren apustua. Eta hala, Ezkabako tuneletik Endarlatsarako zubirako errepidea bostz zatitan banatuta, 2021etik horretan ari dira: Ezkaba-Olabe, Olabe-Lantz, Lantz-Ornoz-Mugairi eta Ornoz-Mugairi Sunbilla izan dira lehenbiziko lau zatiak, eta azkena, Sunbillako Arrigazteluko tuneletik Endarlatsara bitartekoa izanen da. Azken zati horretarako oraindik behin betiko proiekturik aurkeztu ez badute ere, aurreproiektua esku artean dute udalak, eta horren harira mintzatzeko hurbildu da Berara TTIPI-TTAPA. Udala gaia bertatik bertara lantzen ari da herritarrekin, eta orain artekoaren xehetasunak kontatu dituzte Miguel Vicuña Zugarramurdi beratarak, Patxi Larretxea Lazkano Berako Udaleko mugikortasun zinegotziak eta Aitor Elexpuru Egaña Berako alkateak. Hasierako proposamenetik gobernua «hainbat hobekuntza» egin izana txalotu dute, baina oraindik ere badira kezka sortzen dieten kontuak, bertzak bertz, Etxalarko Benta eta Lesaka arteko errepide zaharra Irun aldera joateko errepide nagusi bihurtzeko aukera ez dute begi onez ikusten.

2+1 errepidea izateak noranzko bakoitzeko errei bana eta ibilgailuen arteko aitzineratzeak egiteko hirugarren bat izatea erran nahi du, noranzko batean eta bertean tartekatuz. Bi noranzkoetako erreiak →

→ 60 zentimetroko altuera duen barrera metalikoak be-reizten ditu, eta barrera hori paratzeko bi metroko zabale-ra duen mediana behar da. Gainerakoan, erreiek metro bat eta erdiko bazterbideak dituzte. Baina zer gertatzen da Arrigaztelutik Endarlatsa-rako zatian? «Toki malkartsua eta menditsua da, zubi, tunel eta bertzelako pasabide aunitz dituen». Datuak eman ditu Vicuña: «Arrigazteluko tunc-la kontuan hartu gabe, lau tunel daude eta Endarlatsako zubia kontatu gabe hamasei zubi. Bidasoa ibaiaren gainean. Obra honetan, tunelak eta zubiak, adibidez, ez dituzte ukituko eta zati aunitzetan ezin izanen da hirugarren erreia egin».

Orain arteko bidea

Gobernuak 2020ko azaroan aurkeztu zuen borzgarren zati horretarako lehenbiziko proposamena, baina Berako Udala «puntu arriskutsu batzuk» desagertuko ez zirela ikusita, 2021eko martxoan alegazioak aurkeztu zituen, «deus baino lehen, aukerarik hoberena ibilgailu astunen trafikoa A-15etik desbideratzea izanen litzatekeela erranez».



Iruribieta parean gaineko pasabidea aurreikusi dute.

Alegazioetan, bertzeakbertze, puntu hauek aipatu zituen udalak: «Lesakatik Irun alde-rako irteera arriskutsuak –Nabasturengo zentralaren parean–, hor segituko lukeela adierazi genuen, baita noranzko berean Etxalarko irteerak arriskutsu segituko lukeela ere. Berako irteeran –Alkaiagako Geltoki etxea eta Txarandaka aldean–, Iruñera bidean, oraingo bi erreiak gurutzatu beharrean, erdiko erre bat egitea

proposatu zuten, eta oraingoa baino arriskutsuagoa izanen litzatekeela aipatu genien. Gaineko pasabidea edo lurrazpikoa egiteko eskatu genien». Gisa berean, «zati osoan hirugarren erreia eremuak murriztuko liratekeela» alegatu zuen Berako Udalak.

Proposamen horiek kontuan hartuta, bertze hiru plano bidali zizkien gobernuak udalei, eta aldi horretan, Berako eta Lesakako udalek elkarrekin,

TUNELAK ETA ZUBIAK BERE HORRETAN UTZIKO DITUZTE

IRURIBIETAN GAINKO PASABIDEA AURREIKUSI DUTE

bertze alegazio batzuk aurkeztu zituzten. Horren ondotik etorri da gaur-gaurkoz esku artean duten aurreproiektua.

Berako lantaldearen hitzetan, «hasierako proiektuarekin konparatuz aldaketa garrantzitsuak eta hobekuntza handiak egin ditu gobernuak, batzuk udalek eskatu ez zituztenak. Aurrekontua 15 milioitik 30era igo du eta egin duen eginahala kontuan hartzekoa da. Baina badira kezkatzeako puntuak». Bertze datu bat ere eman dute: «Berez, 90 km/h abiaduran ibiltzeko proposamena diseinatu du gobernuak, baina aurreproiektuan errepidearen % 10 baino ez da abiadura horretan ibiltzeko».

Iruribietan gaineko pasabidea

Sunbilla aldetik Bera aldera abiatuta, Iruribieta parean ikus daiteke aurreproiektuko lehenbiziko aldaketa nagusia. Hasiera batean, biribilgune bat aurreikusi zuten egun dagoen biribilgune zatituaren tokian. Bada azken proposamenean, gaineko pasabide bat egitea eta hirugarren erreia zatia luzatzea erabaki dute. «Eskatu gabeko hobekuntza izan da», gaineratu dute Vicuña, Larretxeak eta Elexpuruk.



Etxalarko Bentatik Nabasturengo zentralaren parera

Etxalarko Bentan gaineko pasabide berria aurreikusi dute errepide nagusia Lesaka aldera doan errepide zaharrarekin lotzeko. Errepide zahar hori Irunera joateko egokituko lukete, eta gaur egungo errepidea Iruñera joateko bakarrik izanen litzateke.

Errepide zaharra erabiliz gero, bihurguneak, zati batzuetan erreia bakarra eta 70 km/h eta 60 km/h-ko gehieneko abiadura izanen litzateke.

Barrera metalikoa eta lau errei

Horrekin batera, barrera metalikoa erdian paratzeko bi metroko mediana behar denez, zenbait tokitan errepidea zabaltea aurreikusi dute. Gisa berean, Sunbilla eta Igantziko Benten tartean, eta Igantziko Benten eta Etxalarko Bentaren tartean zati batean lau erreiko eremu bana egokitzea proposatu dute, bi errei noranzko bakoitzeko. Horretarako kanala lekualdatuko lukete.



Tunelaren parean, txirrindulariak Irun aldera ezin segituz geldituko lirateke.

Errepide zaharra

Hurrengo aldaketa nagusia Etxalarko Bentatik Nabasturengo zentralera arteko zatiaren bikoizketa da. Gaur egun, Nabasturen paretik Etxalarko Bentara dauden bi erreiak Iruñerako noranzkoan erabiltzeko utzi nahi dituzte, bere horretan. Irungo noranzkoan, aldiz, Etxalarko Bentan gaineko pasabide berria eginez, trafiko guztia errepide zaharra dagoen tokitik pasatuko litzateke, Nabasturengo zentralaren pareraino.

Zati horretan, Berako lantaldeko kideak kontent daude «Etxalartik eta Lesakatik errepide nagusira ateratzeko irteera arriskutsuak desagertuko liratekeelako. Nabasturengo zentralaren parean hirugarren

erreia aurreikusi dute eta horrek istripu aunitz sortzen diren puntu bateko egoera hobetuko luke. Hirugarren errei hori beharrezkoa ikusten dugu».

Baina ez dira N-1210 errepide zaharra Irunerako noranzkoan erabiltzearen aldekoak: «Bi erreiko kilometro gehiago izanagatik, arriskutsuagoa izanen litzateke eta ez dugu ahan-tzi behar zati bat uholde arriskuko eremua dela. Trafikoa ez luke arinduko, guztiz kontrakoa,

mantsotu egingen luke, eta gainera, Lesaka eta Etxalarren arteko komunikazio bidea galduko genuke». Errepide zati horrek hasieran bi errei izanen litzuzke 70 km/h-ko abiadura ibiltzeko, baita bukaeran ere, baina bihurgune batean errei bakarrean eta gehienez 60km/h-ko abiadura ibili beharko lukete gidariek. Horregatikuste dute «arriskutsuagoa eta mantsuagoa» dela eta «ez dela beharrezkoa». Are gehiago, «errepide

de zaharra konpontzea» garrantzitsutzat jo dute, baina egungo erabilerarako utzi nahi dute; «aunitz erabilia da, baita txirrindulariek ere».

Esplikatu dutenez, «berez, 2+1 errepide motaren filosofia ibilbide guztian hirugarren erreia izatea da. Hasierako proposamenean, hirugarren erreia % 20 izanen zela aurreikusi zuten, errepide zaharra erabiliko balitz % 64koa izanen litzateke portzentajea, eta bikoizketarik gabe % 44koa. Datuak hobetuko dira, bai, baina trafikoa ez du hobetuko, eta errepide arriskutsuagoa bihurtuko da. Horrela ez dugu deus aitzinduko».

Lesakako zubian aldaketa

N-121-A errepidetik Lesakara sartzeko zatian gaineko pasabidea aurreikusi zuen bere garaian gobernuak, baina azken aurreproiektuan ez da halakorik ageri. Lesakako zubiaren inguruan, gaur egun biribilgune zatitua dagoen tokian, biribilgunea aurreikusi dute eta herrira sartzeko errei bat egokituko lukete. Hala ere, Vicuñaeren, Larretxearen eta Elexpururen ustez, «Lesaka parean errepide nagusitik irteera izatea egokia izanen litzateke, hartara, —>

IRUN ALDERA LESAKAKO ZUBITIK BIDERATU NAHI DUTE TRAFIKOA

BIDE BERRIA BIZIKLETENTZAT NOLA IZANEN DEN ZALANTZAK



Trafikoa Lesakako zubi paretik pasatuko litzateke, eta bide hori segituko luke Nabasturengo zentralaren pareraino.

Nabasturengo zentralaren parean, hiru errei egingen litzuzkete; orain bi daude.

→ Etxalarko Bentako biribil-gunea saihestuko bailukete».

Beran aldaketa gehiago

Bera inguruan ere aldaketa saila proposatu dituzte. Bertzeak bertze, Argaitz harrobiaren parean, bidea herrira sartzeko eta herritik ateratzeko izatea proposatu dute. Horretarako, Iruñera hartzeko gaineko pasabide bat eginen lukete. Sarrera-irteera hori egokituta, N-121-Atik Berara sartzeko ezin izanen litzateke Alkaia gako Geltoki aldeko (Txarandaka) bidea erabili. Eremu horretan biribilgunea eta bide berria egitea aurreikusi dute, baina horrek Irun aldera joateko baino ez luke balioko.

Hain zuzen, Bera erdiguneko irteera hori kenduta, Irundik datozenek Zalain aldeko irteera hartuko ez balute, Renault parera joan beharko lukete han buelta eman eta Berara sartzeko. Horren harira bertze eskaera bat egin du Berako Udalak: «Renault aldetik Berara sartzekoan, azelerazio adarretik berriz bide nagusira sartu behar da eta 300 metroren



Sunbilla eta Igantziko Bente arteko zati batean lau erreiko eremua aurreikusi dute.

ondotik berriz dezelerazio adarretik atera. Auniz eskatzea ez bada, bi adar horiek lotzea eskatzen dugu, errepide nagusira sartu eta atera ez ibiltzeko».

Bertzalde, Iruñerako noranzkoan, errepide nagusitik Alkaia ga aldeko harrobira joateko sarbidea aurreikusi dute proiektuan. Bada sarbide hori bera bide berdera joan behar duten ibilgailuentzako egokitzea nahi dute, baita barrera metalikoa paratzea ere. «Gure ustez, bide berdetik kontrako noranzkoan ateratzea saihestuko genuke».

Horrez gain, Zalainen, Irun alderako irteeratik, hau da,

Verkol paretik, gasolindegia pasatu arteko zatian lau errei egitea proposatu dute, horietako bakoitza barrera metalikoarekin babestua. Erdiko bi erreak Iruñerako eta Iruñerako noranzkoan segitzeko izanen lirateke, eta bazterretako bertze biak zerbitzu bideak; bat Iruñerako noranzkoan, Verkolera joateko edo Berara sartzeko; eta bertzea Iruñerako bidean, gasolindegira joateko edo errepide zaharra hartzeko». Hain zuzen, errepide zahar hori Etxalarko lantaldeia ere egin du Berako lantaldeak: «500 metro dira eta lu-

zatu balute, txirrindulariak ez lirateke N-121-A errepidetik ibiliko Bera eta Etxalarko arteko zati osoan. Gainera, errepide nagusia erabilgarri ez dagoenean, larrialdi kasuetarako balioko luke».

Txirrindulariak

Gaiari ahalik eta hari mutur gehienetik heldu nahi diote, eta Berako udal ordezkariak eta herritar txirrindulariekin ere bildu dira. Haien kasuan ere agerian gelditu da kezka, ez baitute argi N-121-Ako zati horretan nola ibiliko liratekeen. «Txirrindularientzat tuneletan ibiltzea arriskutsua da, eta hori saihestu beharrekoa iruditzen zaigu. Gainera, kontuan izan behar dugu, ez dutela 1,5 metroko bazterbiderik izanen».


Arrigaztelutik Etxalarko zati horrek bortsatunel ditu: Arrigaztelu, Amixelaieta, Alkaia, Larrakaitz eta Basataundi. Hiru lehenbizikoetan txirrindulariek badute ordeko bidea erabilgarri, baina obra hauek eginez gero, bertze bietan ordeko biderik gabe geldituko lirateke.



Berako Lesaka aldeko sarrera-irteerak

Argaitz harrobiaren parean gaineko pasabidea

Argaitz harrobiaren parean Berara sartzeko eta Beratik ateratzeko bidea egokituko lukete, eta horretarako, Iruñerako noranzkoan gaineko pasabide bat paratuko dutela ageri da aurreproiektuan.



Beran, Verkol parean, lau errei aurreikusi dituzte, errei guztiak barrera metalikoarekin bereziak. Horietatik bi zerbitzu bideak izanen lirateke.

Larrakaitz tunelaren parean, adibidez, Iruñerako noranzkoan ordezko bidea izanen lukete obra hauek eginen balira, baina kontrako noranzkoan ez. Gaur egun errepidea gurutzatzen dute, baina aurreikusitako lanak eginda, erdian, barreira metalikoa paratuta, ezin izanen lukete Irun aldera segitu. Horri soluzioa eman nahian, «bideari tunelaren gainean dagoen pista erabiliz segida ematea» proposatu dute.

Basataundi tunelak, berriz, badu ordezko bidea, «baina ez da erabiltzen, ez alde batera, ez bertzerera ez duelako segida-

rik», eta Vicuña, Larretxeak eta Elexpuruk «arazo horri aterabidea emateko planoetan ez dela deus ageri» ohartarazi dute. Horregatik, Iruñerako bidean, «errepide azpitik pasabidea» eta Iruñerako noranzkoan, «Larrakaitzen bezala pasabidea» egitea eskatu dute.

Hemendik aitzinerakoak

Esku artean dutena ez da behin betiko proiektua, baina zer hobetua badutela ikusita, idatziz proposamen horiek guztiak helarazi dizkio Berako Udalak Nafarroako Gobernuari. Idatziz eta ahoz. Izan ere,


hilaren 21ean Nafarroako Gobernuko ordezkariekin bilztekoak ziren Iruñean.

Lesakako Udalarekin ere hurremanetan daude eta bide beretik, dakitena herritarren aitzinean aurkezteko ardura ere hartu dute. Halaxe egin zuten joan den azaroaren 16an Berako Herriko Etxean. Lehe-

nagotik egindako aurkezpen baten harira hasi zen Vicuña udalarekin gaia lantzen, eta horixe nabarmendu nahi izan du Elexpuruk: «herritarren eta udalaren arteko elkarlana». Larretxeak, berriz, «lanketa hori egitearen beharra» azalerratu du, «horri esker hainbat hobekuntza lortu ditugulako».

Oraindik data zehatzik eman ez badute ere, aurreikuspenen arabera, proiektua heldu den urtean aurkeztuko dute eta obrak 2024 bukaeran edo 2025 hasieran eginen dituzte. Bitartean, lanean segitzeko asmoa dute Beran.

OBRA 2024 BUKAERAN EDO 2025EAN HASTEA AURREIKUSI DUTE



Bera erdiguneko sarrerarik ez

Gaur egun Alkaiaga aldetik Berara sartzeko dagoen irteera (Txarandaka) kentzea proposatu dute. Eremu horretan Irun aldera hartzeko aukera baino ez da izanen, eta horretarako bide berria eginen dute.

Euskaltzaindiaren 'Euskara ibiltaria' erakusketa herrian

'Uscaldunac garen ezquero' zikloaren barrenean antolatu dute erakusketa Kultur Etxeko beheko aretoan

A. LARRETKEA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Berako Udalak *Uscaldunac garen ezquero* zikloa antolatu du bertze urte batez. Aurten zikloaren ardatza Euskaltzaindiaren *Euskara ibiltaria* izeneko erakusketa izanen da. *Euskara ibiltaria* erakusketaren abiapuntua Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlas da eta helburua euskararen aldakortasuna eta aberastasuna erakustea da.

Horretarako, erakusketa bost atal nagusitan dago banatua —tokiak, materialak, argia eta soinua, natura, eta bizitza—, eta atal horietako bakoitzean atlaseko mapen hautaketa bat erakusten da, bisitariari aldea horiek era bisualean erakutsiko dizkiona. Horrez gain, erakusketak jokoak, animazioak eta entzungaien gisako tresnak

ere erabiltzen ditu herri hizkeren aberastasun hori erakusteko.

Erakusketaren irekiera ekitaldia astelehenean egitekoa zuten, eta abenduaren 3an, 6an eta 8an ikusteko aukera izanen da 11:00etan hasi eta 13:00ak arte. Erakusketarekin batera, abenduaren 1ean, ortziralean, emanaldi berezi bat izanen da 19:00etan Beralandetan. *Euskararen hiru titiak eta bertze istorio miresgarri batzuk* emanaldia egingen dute Edu Zelaieta idazleak eta Raul

ABENDUAREN 3AN EUSKARAREN ALDEKO EKITALDIA EGINEN DUTE

Garcia eta Beñardo Goietxe musikariek.

Erakusketa ikusteko azaroaren 29an zuten egitekoa bisita gidatu irekia 18:30ean. Bisita horretaz gain, abenduaren 1ean bertze bi bisita izanen dira. 13:00etan izanen da lehenengo bisita eta horretarako aitzinetik izena eman behar da 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 zenbakietara deituta. Egun berean, 17:00etan izanen da bertzea eta izena eman beharko da mintzakide@topagunea.eus helbidera idatzita. Bisita horiez gain, Toki Ona, Lekaroz eta Mendaur ikastetxeetako DBH 3ko eta 4. mailako 500 ikasle joanen dira ikustera.

Zonifikazioaren kontra

Zonifikazioaren kontra eta euskara Nafarroa osoa ofiziala izan dadin ekimena egingen dute Bor-Bor Euskaltzaleen Mugimenduak eta Hordago ekimenak antolatuta. Egun seinatua aukeratu dute horretarako, abenduaren 3an, Euskararen Eguna.

12:00etan izanen da ekitaldia Herriko Etxeko plazan, eta ofizialtasunaren aldeko agiri bat irakurtzeaz gain, dantzariak eta musikariak ere ariko dira eta argazkia aterako dute.

'Bidasoa 2018-2023' dokumentala abenduaren 17an

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, *Bidasoa 2018-2023* dokumentalaren emanaldia izanen da abenduaren 17an, igandea, Kultur Etxean. Fermin Muguruzak zuzendu du dokumentala eta 2018ko udan Frantziak Bidasoko muga itxi zuenetik gertatutakoa kontatzen du. Dokumentalak, ibaiaren bi aldeetako hainbat ekintzailerri ahotsa eman eta aurpegia jartzeaz gain, Harrera Sarea eta Bidasoa elkarteetako ordezkariak adibidez, Bidasoan bizia galdu dutenak ere oroitzen ditu.

'Hezur berriak' film laburraren aurkezpena 22an

Egoitza Lesakan duen Skullmendi Films ekoiztetxeak egindako *Hezur berriak* film laburraren aurkezpena egingen dute abenduaren 22an Kultur Etxean 20:00etan. 23 minutuko film da eta, ondotik, egileekin solasaldi irekia izanen da.

Osatzuz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altzate 1 BERA

ALBERTO RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

Jauzena
Zure oparia hemen!!!
T. denda 948 631 217 - T. 630 136 863 - Julio Caro Baroja, 6-BERA - jaurenabera@gmail.com



'Bera Hurbil' aplikazioa itxuraberrituko dute

Itxura berria emateaz gain, erabilera gehiago ere izanen ditu aplikazioak hemendik aitzinera

A. LARRETxea

2020an sortu zuen udalak *Bera Hurbil* izeneko aplikazioa. Herriko albiste interesgarriak eskuragarri jartzearekin batera, udalarekin zein herriko eragileekin komunikazio zuzena izateko aukera ematea zen aplikazioaren helburua. Aplikazioa sortu eta hiru urtera, berritzea erabaki du udalak.

Azken hilabeteetan Zitu enpresako programatzaileekin lantzen aritu dira aplikazioaren itxura berritua. Udaleko kideek azaldu dutenez, bertsio

zaharra baino bisualagoa eta intuitiboagoa izanen da. Gainera, gaur egun dituen aukerez gain, erabilera gehiago gehituko zaizkio aplikazioari. Irudiek presentzia gehiago izanen dute eta herriko eragileek ere beraien txokoa kudeatzeko aukera izanen dute.

Urte bukaera aldera aurkezpen publikoa egingen dute bertsio hau ezagutarazteko eta erabilera azaltzeko. Bilera honen eta aplikazioaren instalazioaren gaineko informazio gehiago aitzinerago zehaztuko dute.



Eskolako ikasleetako bat egoiliarrekin mahai-jokoan. RICARDO BAROJAK UTZIA

Ricardo Baroja eskolako bisita San Jose adinekoen egoitzan

A. LARRETxea

Ricardo Baroja ikastetxeko hirugarren zikloko ikasleek Berako zahar etxera hainbat bisita aurreikusi dituzte ikasturte honetan. Horietan lehenazaroaren 9an egin zuten. Seigarren mailako talde bat zahar etxera hurbildu eta partixisean, bingoan eta dominoan

aritu ziren bertako egoiliarrekin.

Mahai jokoetan aritzeaz gainera, ospakizunetarako tartea ere harrapatu zuten. Hilabete honetan eta hurrengoetan ere, kantatzera, ipuinak eta olerkiak kontatzera, antzerkitxoak egitera... bueltatuko dira hirugarren zikloko ikasleak.

URKILÀ
HARATEGIA

Kanttonberri, 12
BERA

948 630 439
666 407 210

xulufraia
Aitzate 18, Bera 948 631 266

topshop

Abenduaren 6an, 8an eta 24an goizez irekiko dugu, abenduaren 23an goiz eta arratsaldean.

Eguberri on!

GONE

LIBURUAK | PAPERTEGIA
JOSTAILUAK | MARGOAK

KANTTONBERRI, 4 BERA | T. 943 630 626
papeleriaigone@gmail.com

- 30 €-tik gorako erosketetan % 5eko deskontua Ttipi Txartelarekin.
- Familia ugariarentzat deskontuak.

B. eball. riber. DART. LUD. D.JECO. DOLDOU. KAPLA. dena. BIOBUDDY. BS. EverEarth.

Zapiain, Castillo eta Zelaieta Bertsolari Txapelketan

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalurrekoen fasean aritu dira Ekhiñe Zapiain, Patxi Castillo eta Julen Zelaieta

A. LARRETXEA

Finala bertzerik ez du falta Nafarroako Bertsolari Txapelketak bukatzeko. Urriaren 7an hasi zen Iruritan, eta bi hilabeteren ondotik, abenduaren 2an izanen da finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian 17:00etan. Inoiz baino presentzia handiagoa izan dute herriko bertsolariek aurten txapelketan, hiru bertsolari aritu baitira: Ekhiñe Zapiain, Patxi Castillo eta Julen Zelaieta.

Final laurdenenetan Viako saioan aritu ziren Za-

piain eta Castillo bertsolariak, eta Uhartekoan, aldiz, Zelaieta. Puntuazioz, hurrengo faserako txartela lortu zuten hiru bertsolariek, eta lehen biak Altsasun eta azkena Agoitzen aritu ziren kantari hurrengo fasean. Lan luzeagoak izan zituzten bigarren saioan, baina, hala ere bertso maila ederra dutela erakutsi zuten hiruek.

Bertsolariez gain, Saioa Mitxelena epailea eta Ainhoa Larretxea gai jartzailea ere ari dira aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketan.



Abenduaren 23an egingen dute ikuskizuna azkenengoz. GOIENAK UTZIA

Funbox Factory ikuskizuna azkenengoz egingen dute abenduaren 23an

TTIPI-TTAPA

12 urteren ondotik, herrian egingen dute azkenengoz Funbox Factory freestyle ikuskizuna. Martxel Arribillaga herritarrak sortua, azken urteetan batetik bertzerera ibili dira bizikleta eta moto ikuskizuna egiten.

Abenduaren 23an, larunbata izanen da azken ikuskizuna

na 17:00etan Toki Ona institutuko patioan. Eguraldi txarra egingen balu, berriz, Ricardo Baroja eskolako frontoian egingen dute. Ostatua ere paratuko dute, eta ikuskizunean biltzen duten dirua San Jose zahar etxeari emanen diote. Hainbat sorpresa ere izanen dira emanaldian.

Urte zaharra Churrut Jatetxean, bai ederki!!

Hotel Churrut
HOTEL

Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40
T. 948 62 55 42
www.hotelchurrut.com

Oporrengatik itxia:
Urtarrilaren 8tik otsailaren 8ra (biak barne)

2023ko Urte Zahar Gaueko Menua

Gujuelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin,
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin,
Ganboiak plantxan.

Legatza plantxan saltsa berde bereziarekin.

Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria,
lasto-patata habia eta foie-saltsarekin.

Etxeko hostopila esnegainarekin
eta hur-izozkiarekin,
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.

Alkorta ardo beltz ondua (Errioxal), Las Campanas
ardo gorria (Garnatxal), Las Campanas ardo zuria
(Chardonnay), Codorniu Brut Cava, Kafea eta likore kopa.

Prezioa: 88€ + BEZ

744 484 361
ttipi-ttapa

Arduo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lantzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

SMAZIZIOR
edariak

BERA
SILVIA MAZIZIOR S.L.
Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziobi, 1, LESAKA
Tel: +34 948 63 15 57
+34 676 05 16 60
maziziorsenper@gmail.com



**NAHI AL DUZU
SORTA BAT EROSI
EDO ZURE
GUSTURA EGIN?**

Enpresendako
eta partikularrendako





**BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA**

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
Tel. 948 631 218
joxemi@kateabike.com

ORBEA

PINARELLO

MONTY

BERGAMONT

BH

MERIDA

GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK

bizikleta estatikoak,
korrika egiteko zintak...

www.kateabike.com





Azaroaren 16an egin zuten bilera herriko etxean. TTIPI-TTAPA

N-121-A errepideko lanen inguruan bilera herritarrekin

40 lagun bildu ziren herriko etxean V. zatiko lanen inguruko bilera informatiboan. Agerikoa da herritarrak kezkatuta daudela

A. LARRETXEKA

Azken urteetan kezka iturri da N-121-A errepidearen egoera. Nafarroako Gobernua 2+1 motako errepide bihurtzeko lanak egiten ari da, eta Oronoz-Mugairi eta Sunbilla arteko lanak bukatuta, Sunbilla eta Endarlatsa arteko zatia prestatzen hasi da. Udalak kezka bizi du gaia, eta errepidearen inguruko informazioa zabaltzeko bilera egin zuten herritarrekin.

Azaroaren 16an egin zuten bilera eta 40 lagun bildu ziren herriko etxean. Gobernuak orain arte egindako proposamena azaldu zuten Aitor Elex-

puru alkateak, eta proiektua aztertzen ibili diren Santi Maia eta Miguel Vicuña herritarrek. Planoz plano aztertu zuten proposamena eta udalak egindako alegazioak aurkezteaz gain, herritarren berte hainbat proposamen ere bildu zituzten gobernari aurkezteko.

Errepidean ibiltzen diren kamioi kopurua kezka iturri dela argi gelditu zen bileran. Izan ere, herritarrek behin baino gehiagotan aipatu zuten hori.

Proiektuaren inguruko informazio gehiago 11. orrian aurkituko duzue.

Greba feminista orokorra egingen dute ortzegunean

A. LARRETXEKA

Ortzegun honetarako, azaroaren 30erako greba feminista orokorra deitu dute Euskal Herriko mugimendu feministak eta sindikatuek. Lanketa zabala egin dute grebaren berri emateko, eta herrian ere hainbat bilera egin dituzte horretarako. Bilera horien emaitza da ortzegunerako antolatu duten egitaraua.

05:00etan elkartuko dira industriagunean pikete informatiboak egiteko eta Botxon paratu dute hitzordua horretarako. Ondotik, 10:00etan, zaintza guneen ibilbidea egingen dute, herriko etxean hasi eta Altzateko plazaraino. 13:30ean bazkari autogestionatua izanen da Toki Onako estalpean, eta otorduaren ondotik kotxeen apainketa egingen dute.



Zaintza langileen mahaingurua.

Eskualdeko manifestazio orokorra 18:00etan izanen da Elizondon, eta Altzateko plazatik abiatuko dira bertara 16:00etan kotxez joateko.

Zaintzaileen testigantzak

Zaintza lanak ezagutaraztea da grebaren helburuetako bat, eta horretarako zaintza lanetan ari diren borts emakumeen testigantzak aditzeko aukera izan zen azaroaren 16an.

estaciones de servicios

urbicain s.l.

BETIKO ORDUTEGIAN IREKITZEN DUGU

Langileen oporraldia bukatuta, betiko ordutegian irekitzen hasi gara

07:30-20:30

Bidasoa, 99 Bera 948 630 209 / 948 631 370

amaleun ARRAINDEGIA

BI SASKIREN ZOZKETA ABENDUAREN 31RA BITARTE!

Nafarroa hegoaldean elkartutako produktuek, bertako ekoizketza sustatzen

Zuberian elkartutako produktuek, bertako itxarotak laguntzen

948 630 981 · 620 828 757
Itzea, 6 · BERA · NAFARROA

PAGOLA
Harategia

Altzate Plaza, 2 · Bera · T.948 63 00 54 ☎ 722 84 12 85
www.carniceriapagola.es

Haur Txokoa prest dute Eguberrietako oporretarako

Abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era Haur Txokoa antolatu dute. Izen ematea ortziralean bukatuko da

TTIPI-TTAPA

«Haurrei denbora librean kulturekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozaten ikasteko gune bat» eskaintzeko asmoz, aurten ere Haur Txokoa antolatu du Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak urteko hondarreko eta lehenbiziko egunetan.

«Solidaritatean eta berdintasunean» oinarritutako zerbitzua dela adierazi dute antolatzaileek, eta aldi berean, «gurasoei seme-alaben heziketa euren lanarekin edota denbora librearekin bateratzeko aukera» eman nahi diete.

Izen ematea ortziralerara arte

Hiru eta hamabi urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua da eta abenduaren 26an, 27an, 28an eta 29an eta urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean 10:00etatik 13:00etara bilduko dira. Arantzan eskolako gimnasioan eginen dute hitzordua, Beran Beralandetan, Etxalarren eskola zaharretan, Igantzin eskolako gimnasioan eta Lesakan Irain eskolan.

Udalekuak euskaraz direnez, D eta B ereduaren ikasten duten haurrek parte hartzen ahal izanen dute eta behar bereziak dituzten haur bakoitzarentzat begiralea izanen dela jakinarazi du Berdintasun Zerbitzuak.

Izena emateko epea zabalik dago eta ortzirale hau, abenduaren 1a, izanen da apuntatzeko azken eguna. Ortzeguna, azaroaren 30a, bulegoa itxita izanen da greba feminista orokorra tarteko.

Bi aukera daude izena emateko: www.igantzi.eus atarian ageri den formularioa bete eta berdintasuna@bortziriakberd.eus edota 722 69 30 78 zenbakira bidaliz; edo formularioa bete eta Igantziko Herriko Etxera eramanez. Formularioa inprimatu ezin duenak, han izanen du eskura.

Erroldatutakoek 20 euro eta erroldatuak ez daudenek 25 euro ordaindu beharko dute. Haur Txokoko lehenbiziko egunean Dindaiako monitoreei eman beharko diete eskura. Berdintasun Zerbitzuak Dindaia Fundazioa kontratatu du Haur Txokoaz arduratzeko.

Greba feminista orokorreko Elizondoko mobilizaziora joateko auto karabanak

TTIPI-TTAPA

Zaintza eskubide kolektiboaren alde greba feminista orokorreko deia egin du mugimendu feministak ortzegun honean, azaroaren 30ean, eta horren harira, hainbat mobilizazio eginen dituzte eskualdean.

Baztan-Bidasoaldeko eta Xareta aldeko mobilizazioa, adibidez, Elizondon eginen dute, 18:00etan Elizondoko plazatik abiatuta. Eta hara joateko auto karabana antolatu dute herriz herri. Horietako bat Berako Alzateko plazatik abiatuko da 16:00etan, eta bi-

dean, Lesakako zubitik (16:15), Etxalarako Bentatik (16:20), Berrizaundik (16:30), Sunbillatik (16:45), Doneztebeko zubitik (17:00), Oronozko bidegurutzetik (17:10), Arraiozko zubitik (17:15) eta Irurritako plazatik (17:20) pasatuko da.

Bertze auto karabana Sarako plazatik aterako da, 16:30ean. Handik Zugarramurdi leze aldera joanen da (16:45), eta ondotik, Urdazubiko plazan (16:55), Amaiurko bidegurutzean (17:15) eta Arizkungo Ordokan (17:20) eginen du geldialdia.



Hautetsiak Etxalarren bildu ziren. BORTZIRIETAKO BERDINTASUN ZERBITZUA

Berdintasun politiken inguruko formazioa hartu dute hautetsiek

TTIPI-TTAPA

Arantzako, Berako, Etxalarako, Igantziko eta Lesakako udalek apirilean eta maiatzean egindako osoko bilkuretan onartu zuten Bortzirietako Berdintasunerako III. Plana, 2027ra arte indarrean izanen dena. Eta horren harira, bortz udaletako hainbat hautetsiek berdintasun politiken inguruko oinarritzko formazioa hartu dute berriki.

Planak lau ardatz ditu, eta hautetsiekin formazioa urtero egitea aurreikusia dutela jakinarazi du Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak.

Hain zuzen, lehenbiziko saioa azaroaren 14an Etxalarren egin zuten, eta hamasei hautetsi hurbildu ziren. Genero politikan aditua den Idoia Lekuerekin lehenbiziko hurbilpena eta kontzientziazio saioa egin zuten.

Formazio hauei heldu den urtean emanen diete segida eta bi saio eginen dituztela aitzindu dute: batetik, berdintasun politikan sakonduko duen bigarren saio bat, eta bertzetik, oinarritzko prestakuntza hartu ez duten hautetsiei zuzendutako hurbilpeneko bertze saio bat.



Manolo Arozena eta 'Etxabe' kantari, ibilbidearen estreinaldian. JUAN MARI ONDIKOL

Herriko bertsolaritza ezagutzeko 'Oinak Bidean' ibilbidea

Irain eskola publikoak, Bortzirietako bertso eskolak eta udalak prestatu dute 7,5 kilometroko ibilbide tematikoa

AITOR AROTZENA

Lesakan jokatu den Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalurrekoaren harira, herriko bertsolaritzan oinarritutako 7 kilometro eta erdiko Oinak Bidean ibilbide interaktiboa prestatu eta aurkeztu dute Irain Eskolak eta Bortzirietako Bertso Eskolak, udalarekin elkarlanean. Proiektu honen berri eman zuten azaroaren 13an herriko etxean Eneko Fernandez egileak, Ladis Sastrustegi alkateak, Edurne Aranburu Irain eskolako zuzendariak eta Manolo Arozena bertsolariak. Harriondoa

Kultur Etxean hasi eta bukatzen den ibilbide zirkular honek Lesakako bertsolaritzarekin harremana duten bederatzileku lotzen ditu. Estreinatze-ko, azaroaren 19an ibilbide gidatua egin zuten eta 50 bat lagunek egin zuten ibilbidea, geldialdietan bertsoak eta azalpenak adituz. Gainera, web orri propioa ere badauka Oinak Bidean ibilbideak; bertan, ibilbideari buruzko informazioa (interes puntuak, bertsoak, bertsolariak, etab.) eta track-a eskura daitezke. Seinalazioa ere paratu dute, noiznahi egin ahal izateko.

Keinu Leihoak antzerki zikloaren hemeretzigarren edizioa bete-betean

Mairu Antzerki tailerrak, udalaren eta Arrano elkartearen laguntzaz, antolatutako 19. Keinu Leihoak Antzerki zikloa abian da. Lehen emanaldia Gilkitxaro taldearen *Identitateak* antzezlanak izan da, joan den igandean. Mairu antzerki tailerrekoek diotenez, «gure artean ditugu, noizean behin, mendebaldetik etorrira, sukaldeko leihoan bisitan agertzen zaizkigun txantxangorriak, eta bertako lertxun saldoa, Led Sillhouetten gidaritzapean, bidaia ezezagun batean abiatuko dena».

Abenduaren 3an, Atx Teatro taldearen *Balbea* ikusgai izanen da, igandean 18:00etan Harriondoa. **Abenduaren 9an** izanen da aurtengo ziklo honetako emanaldi nagusia, Led Silhouette, Mairu Antzerki Tailerra eta Tantirumairu Dantza Taldeak elkarlanean sortutako *Lertxunaren hegada* taularatuko baitute. Harriondoa, larunbatean, 19:00etan izanen da emanaldia.

Bukatzeko, **abenduaren 15ean**, Dxturi Teatro taldeak *Lakoste* antzezlan eskainiko du 20:00etan Arranon.

Ramon Sanjurjoren liburua aurkeztuko dute larunbatean

Sortzez lesakarra den Ramon Sanjurjo Zabalaen *No me montes fiestas* liburuaren aurkezpina egingen dute abenduaren 2an, larunbatean, 18:00etan liburutegi publikoan, Beti Gazte antolatutako ekitaldian. Liburu honek Amor sin barreras Gobernu Kanpoko Erakundearekin bat egingen du eta egilearekin batera, Garbiñe Larralde Urkijo lesakarra eta Ana Baz Moreno izanen dira hizlari. Hitzaldia gaztelaniaz izanen da. Liburuak salgai dago Xagu eta Telletxea liburu dendetan.

'Ni ez naiz Mikel Laboa' liburuaren aurkezpina

Ni ez naiz Mikel Laboa komikiaren aurkezpina egingen dute abenduaren 1ean, ortziralean 19:00etan liburutegi publikoan. Mikel Laboa musikariaren biografia ilustratua da 2022an argitaratutako *Ni ez naiz Mikel Laboa*. Gidoia Unai Iturriaga eta Harkaitz Canorena da, eta marrazkiak Joseba Larratxe *Josevisky*renak. Egileekin batera, Gaizka Sarasolak ere parte hartuko du aurkezpen ekitaldian. Ilustrazioaren euskarazko Euskadi Literatura Saria hartu zuen Joseba Larratxek lan honengatik.

OTXANGO

08:30etik aitzinera irekia

Menuak

Bokatak

Errazioak

Plater konbinatuak

Otxango Ind. LESAKA

948 396 480

Etorri eta ikusi!

Eguberritako Pazko lore aukera ezberdinak
Etxea apaintzeko gaiak · Arropa eta osagarriak

Albistur 39 LESAKA
T. 948 627 542 · 722 748 836

«Musika maitatu, lana eta gogoia behar da banda zuzentzeko»

MIKEL IRIARTE PIKABEA 25 URTE MUSIKA BANDA ZUZENTZEN

AITOR AROTZENA LESAKA

Hamabi urte zituela hasi zen Mikel Iriarte Pikabea musika bandan tronpetajotzen. Hamar urte beranduago, 22 bertzerik ez zituela, izendatu zuten bandako zuzendari, Javier Igoaren orde. Zuzendaritzan 25 urte bete dituela eta jaso zuen musika bandaren ezusteko omenaldia San Martin egunean. Mikel Iriarterekin izan gara omenaldiaz, musika bandaren ibilbideaz eta etorkizuneko erronkez aritzeko.

Zer da zuretzat musika?

Eguneroko lanetatik eta kezketatik ateratzeko ihesbide bezalako bat da. Gustura egiten dudana gauza da eta gustura egiten diren guztiak bezala, positibo da.

Nola hartu zenuen aginte-makila Javier Igoaren eskutik?

Niretzat sorpresa izan zen. Oraindik gaztea nintzen, baina Javier Igoak utzi behar zuela eta, bilera batzuk egin genituen. Nik ordurako Beti Gazteko haurrak entrenatzen nituen eta esku ona nuela eta zuzendaritza hartzea proposatu zidan orduan kultur zinegotzi zen Juan Fermin Mi-

txelenak. Behin-behineko proba izan behar zuen, baina 25 urte joan dira!

Tronpeta-jotzaile izatetik zuzendari izatera urrats zaila izan zen?

Hagitz zaila. 22 urte nituen eta ez nekien zer zen. Zuzendariaren paperak ikusi eta hainbertze nota elkarrekin ikustea... Ordu aunitz sartu nituen etxean. Bertzeak adituz eta ikusiz ikasi nuen, urteen poderioz.

Dohain bereziak behar ditu zuzendariak?

Ez dut uste. Lana, gogoia eta musika maitatzea, baita taldean giro ona sortzea ere. Gaur egun 11 eta 75 urte arteko 45 bat musikari zuzentzen ditut. **25 urteko bide honetan, zer da gehien harrotzen zaituena?**

Musika bandaren 150. urteurrena izan zen ohiko emanaldiez aparte. antolatu genuen lehen ekitaldia 2007an eta hura handia izan zen, herriko talde guztiak mugitu genituen. Gero, Zialdoko zubiaren gainean jo genuen 2010ean eta geroztik urtero egin ditugu kontzertu bereziak, Korrontzirekin, Pirritx eta Porrotxekin, Lesakantuz, Disney, zinemako soinu ban-



Mikel Iriarte banda zuzentzen San Martin egunean. TERESA ROJO

dak... Urtero proiektu bat jartzen genuen, helburu bat izateko eta entseguetarako motibatzen. Baina lan gehiena eman ziguna eta txukunena, beharbada, Pepito Yanciren *Beti bizi* izan zen. Urte guziko lana izan zen, gauza xume bat bezala hasi ginena, eta Iruñeko Gaiarren eta Donostiako Victoria Eugeniean jotzen bukatu genuen. Lesakako herriarentzat polita izan zen eta guretzat aberasgarria.

«ELIZONDOKOEKIN BATERA ABENDUAN BI KONTZERTU EMANEN DITUGU»

Baina kontzertu berezi horiez gain, urteko ohiko emanaldietan ere ez duzue hutsik egiten...

Denetan gaude, gu gara perrexila: sanferminak, zakuzaharrak... Urtean badira 10-12 emanaldi beti egiten ditugunak, gustura gainera.

Eta aitzinera begira zer?

Ni gustura nago eta bandako kideak ere gustura segitzen badute, aitzinera egingen dugu. Noiz arte? Ez dakit. Proiektu berriak landuko ditugu. Orain Elizondoko bandarekin batera abendurako bi emanaldi prestatzen ari gara, bat Lesakan eta bertzea Elizondon. Gauza batzuk baditugu buruan eta burua martxan badago, ez da seinale txarra.

Elkarrizketa osoa: erran.eus



San Pedro, 24 · 20304 IRUN
623 116 265
@janari_irun



Etxe(r)ko Janaria
Zure partez kozinatzen dugul
Menua, karta, tortilak,
bizkotxoak...






Zure ospakizunetarako behar duzun guztial!






'Pantailetatik kanpo' tailer zikloa hasiko da abenduaren 1ean

Gazteei pantailetatik aparte denbora pasa gehiago daudela erakustea da udalaren eta guraso elkartearen helburua

IRUNE ELIZAGOIEN

Udalak eta Landagain Guraso Elkarreak antolatutako *Pantailetatik kanpo* tailer zikloa abenduaren 1ean hasiko da, ortziralean, 17:30etik 18:30era, Pello Apezetxea Kulturgunean. Musean, eskoban, txintxonon eta bertze hainbat jokotan jokatzen ikastea da helburua. Izena emateko 948 63 53 86 telefonora deitu behar da

Usategieta herriari solasean

Etzalarko Usazaleen elkarreak antolatuta, Usategietatik herri-rrira jaitsiz, *Usategieta herria-*

ri solasean erakusketa martxan jarri dute, irudien bidez (lehen-go eta gaur egungo argazki eta bideoak) gure herriko ondare berezi hau hobeki ezagutarazteko. Erakusketa azaroaren 26tik abenduaren 10era egonen da zabalik, astelehenetik ortziralera, 16:00etatik 19:00etara eta aste hondar eta besta egunetan 17:00etatik 19:00etara. Bertzalde, azaroaren 15ean *Mendian hil, hirian hil* dokumentala eman zuten kulturgunean eta hilaren 17an *Isildutako eskuak* liburua aurkeztu zuen Jon Abrilek.



Irungo Janariko ordezkariak Urrezko Paletarekin. LAURA ELIZAGOIEN

Irungo Janari nagusitu da Usategietako X. Gastronomía lehiaketan

Usategietako XI. gastronomía lehiaketan zortzi jatetxek parte hartu zuten. Horien artean, Alejo Portu eta Maialen Irigoien lesakarrek kudeatzen duten Irungo Janarik lortu zuen Urrezko Paleta. Zilarreko Paleta, berriz, Lizarietako Hordago jatetxek eskuratu zuen eta berrikuntzaren saria Ma-

drilgo La Cabaña Argentina jatetxek. Herri epaimahaiaren saria Elutsa jatetxean aritutako Pakita Altzugurenekin prestatutako platerak eskuratu zuen. Zozketa egiteko ere aprobetxatu zuten: 1. saria (12 uso bizirik): 5.268; 2. saria (bi lagunendako otordua): 4.257; 3. saria (saskia): 5.122.



LANDAGAIN ESKOLA

Landagain eskolatik Usategietara

Landagain eskolako ikasle eta irakasleek bisita egin zuten usategietara azaroaren 13an. LHko ikasleak oinez joan ziren eta HHkoak autoetan. *Sare bidezko ehiza* proiektioa eta sareak zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Laura Elizagoiaren azalpenak aditu ondotik, paletak botatzen aritu ziren.



IRUNE ELIZAGOIEN

Sahatsa dantza taldearen saioa

Azpeitiko eta Azkoitiko Sahatsa Dantza Taldearen azaroaren 11ko emanaldi jendetsuarekin bukatu ziren udazkeneko kultur eguna. Altxata eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak elkarlanean antolatuta, *Auzolangiltza* dokumentala eta dantza saioa izan dira aurtengo ekitaldiak.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Gure dendariak superbotere berriak dituzte

SUPERBOTEREAK!

ARRETA
PERTSONALIZATUA

HERRI-ETA
AUZO BIZIAK

GILTZARIA
BEZERO-TXARTELA

TOPTOPA.SHOP,
ONLINE EROSTEKO

TRESNA
DIGITALAK

**Erosi herrian!
Erosi auzoan!**

Bideoa ikusi



Kultur Egunak abenduaren 6tik 10era prest dituzte

Heldu den asteazkenetik igandera filmak, liburu aurkezpenak, txapelketak, bingoa eta ikastaroak izanen dira

ANA ETA ITZIAR

Aurtengoan ere abenduaren hasieran kultur egunak izanen dira, abenduaren 6tik 10era, hain zuzen. Kultur batzordeak egitarau zabala antolatu du bortz egun hauetan. **Asteazkenean** bi pelikula proiektatuko dituzte. 16:30ean ttikientzako filma izanen da eta 17:30ean, koxkorxeagoentzat. 20:00etan *Ztand Up* bakarrizketak izanen dira Baratzondon.

Abenduaren 7an Jon Abrilek *Isildutako Eskuak* liburu aurkeztuko du, ortzegunean 19:00etan Eskolzarrean.

Paris 365entzat janari bilketa arrakastatsua

Azaroaren 20rako Paris 365 fundazioarekin hitzordua genuen. Janari bilketa egiteko deialdia luzatua zuten egun honetarako eta herriak ederki erantzun zuen. Eguraldi txarra izanik ere jende puska hurbildu zen Erretorebaitara bere dohaintza egitera.

Tortilla txapelketa eta ondotik pintxo potea izanen dira **abenduaren 8an**. Frontoian hasiko da txapelketa ortziralean 11:00etan eta arratsaldean, berriz, Biltoki elkartearen bingoan jokatzeko aukera izanen da, 17:00etan hasita.

Abenduaren 9an Mus-Parxis txapelketa jokatu da Baratzondon, larunbatean 16:30ean hasita, eta ordu berean, eskolan eskulanak izanen dira. Egun hauei bukaera emateko, **abenduaren 10ean** argazkilaritza mugikorarekin izanen da Eskolzarrean.

Eskolako ikasleak Lesakako ferietan bisitari

Eskolako ikasleak aurtien ere Lesakako ferietara hurbildu ziren, eguraldi ederra lagun. Haur Hezkuntzakoak kotxeetan joan ziren eta Lehen Hezkuntzakoak, berriz, menditik oinez. Egun ederra pasatu zuten bertako animaliez eta giroaz gozatuz.



'Nagore' filmak eta Asun Casasolaren solasaldiak jendetza erakarri zuen.

Hainbat ekitaldi egin dituzte herrian emakumeenganako indarkeriaren kontra

ANA ETA ITZIAR

Azaroaren 25ean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren egitarauaren barrenean zenbait ekitaldi antolatu zen. Egun horretan bertan, musikarekin girotutako kalejiraren ondotik eguerdian elkarretaratzea egin zuten udaletxeko arkupean, Lorhazi emakume taldeak deituta. Pankarta ere zabaldu zen Herriko Etxeko leihoetan.

Egun batzuk lehenago, hilaren 21ean, *Nagore* filma eskaini zen Baratzondon. Argazkian ageri denez, kuadrilla polita bildu zen ikustera eta ondotik Asun Casasolarekin egin zen solasaldira.

Eskolen ere

Eskolan ere zenbait ekitaldi antolatu zituzten. Azaroaren 24a izan zuten eskolako aldarrikapen eguna. Goizean ber-



Asun Casasola hizlari.

dintasun teknikariaren bisita izan zuten eta gairaren inguruko informazioa eman zien ikasleei. Gero, eskolako irakasle eta ikasleek elkartu ziren Herriko Etxeko atarian. Guraso eta herritarren parte hartzea garrantzitsua izan zela aipatu behar da. Honen ondotik Ginkana Morea egin zuten herrian barna. Honetaz gain, feminismoaren inguruko kartel batzuk zintzilikatu zituzten, herria apaindurik utzita.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Iturrunubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (NA)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzclinika.es
@liderahortzclinika

Eskolako antzerkiak abenduaren 15ean egingen dituzte

Egun horretan Eguberrietako zozketa egingen dute: bi zare eder eta Martikoko bi lote zozketatuko dituzte

NEREA ALZURI

Eguberrietako oporrak hartu aitzinetik ohiko hitzordua izaten da eskolan antzerkiak egitearena eta aurten ere ez dute hutsik egingen. Eskolako lagunek abenduaren 13an eta 15ean egingen dituzte antzerkiak; 13an Igantziko eta Etxalarko eskolako ikasleen aitzinean eta 15ean herritarren eta familien aitzinean. Azken hori 15:00etan hasiko da.

Hiru antzerki egingen dituzte: Haur Hezkuntzakoek *Osoak itzuli dira* antzeztuko dute, LHko 1., 2. eta 3. mailakoek

Ipuin nahasiak eta 4., 5. eta 6. mailako ikasleek *Nor ote da?*.

Eguberrietako zozketa

Urtero bezala, txartelak atera dituzte eskolako lagunek eta azken asteotan eta egunotan etxez etxe eta baserriz baserri saltzen ari diren txartel horien zozketa antzerki egunean egingen dute, abenduaren 15ean. Ikasleek etxetik ekarritako produktuekin osatutako bi zare eder eta Martikoko bi lote zozketatuko dituzte. Sarituek hilabete bateko epea izanen dute agertzeko.

Haurrei eta gaztetxoei herri kirola erakusteko laguntza eskatu dute

N. ALZURI

Iragarri bezala, joan den azaroaren 13an hasi zituzten haurren herri kirol taldearen entrenamendu saioak. 30 bat haur eta gaztetxo biltzen dira astelehen eta astearte arratsaldetan herri kirol taldearen probetan aritzeko. Hiru mailatan ari dira: kimuak, haurrak eta kadeteak; eta Josune Otxandorena, Alberto Fagoaga, Mikel Oteiza, Naiara Manzano, Ainhoa Etxegarai, Iosu Larretxea eta Julio Lukanbio dituzte erakusle.

Materiala erosteko diru bilketa

Talde bakoitzak bere materiala behar du eta hori erosteko dirua behar dute. Txingek (hiru, bortz eta hamar kilokoak) 125 euro balio dute, zakuek (sei, hamar eta hamahiru kilokoak) 115 euro eta arpanak 550 euro.

Horrez gain, ekipamendua, arpana zorroztea, ordeko arpanen bat behar bada... Horiek ere gehitu beharreko gauzak dira.

Herri kirol taldearen egitasmo horrek aitzinera egin dezan, materiala ordaintzeko dirua behar dute, eta hainbat bide paratu dituzte martxan ekarpena egiteko: Burlada ostatuan eltzetsu bat paratu dute nahi duenak bere borondatea emateko eta herri kirol taldeko kideren batekin mintzatuz gero, laguntza ematen ahal da. Herri kirol taldean ilusio handiarekin ari dira herri kirolak haurrengana eta gaztetxoengana zabaldu nahirik eta denen laguntza eskertuko dutela adierazi dute. Bertzalde, udalaren aldetik materiala erosteko 500 euroko laguntza hartuko du Arantzako Herri Kirol Taldeak.

Haur Txokoa antolatu dute Eguberrietan

Bortzirietako Berdintasun zerbitzuak, bertze aldi batez, Haur Txokoa antolatu du Eguberrietako oporretan. Hiru eta hamabi urte bitartekoentzat da eta abenduaren 26tik 29ra eta ilbeltzaren 2tik 5era izanen da, 10:00etatik 13:00etara. Informazioa www.igantzi.eusen.

Janari bilketa Paris 365 jantokiarentzat

Aurten ere, hutsik egin gabe, Paris 365 jantoki solidarioarentzat elikagaiak bildu dituzte herritarrek. Azaroaren 20an, goizez eta arratsalde, boluntario kuadrilla aritu zen jatekoa biltzen kooperatiban.



MARTIN LEGARRA



SUARIMA

T. 686 776 686

TXIMINIA ETA KEDAR-GARBITZAILEA

Etxe seguru baterako,

KALITATEKO ERREBISIOA ETA GARBITZEA

KAMERAREKIN BISTARATZEA

ARAZOAK KONPONTZEKO ANOLKULARITZA

GARBIKETA ETA BIGARREN BISTARATZEA

ESKERRIK ASKO KONFIDANTZARENGATIK!



Eskolako egutegia prestatu eta salgai paratuko dute

Ikasleek Iruñerrira ateraldia eginen dute abenduaren 5ean eta Euskararen Eguna ospatuko dute hilaren 7an

MAIDER PETRIRENA

Aurten ere ari dira! Urtero bezala, eskolako ikasleen urtebetetze egunak jarrita dituen egutegia egiten ari dira. Hemendik gutxira inprentara bidaliko dituzte. Eskolan ikaslerik ez duen familiarik bada eta egutegia nahi izanez gero, eskolara deitu edota cpsumbil@educacion.navarra.es helbidera idatzi dezakezue. Abenduaren 5ean, bertzalde, eskolako ikasle eta irakasleek Iruñera irteera eginen dute. Haur hezkuntzakoak Itaroako parkean egunaz gozatzen du-

ten bitartean, Lehen Hezkuntzakoak Orikaingo saltingean ibiliko dira. Abenduaren 7an berriz eskolan Euskararen eguna ospatuko dute.

Zinema emanaldiak

Ekaitz Bertizen eskutik, abenduaren 3an, igandean 18:00etan zinema emanaldia izanen da. Bertizen *Baserria hartu du gaitzak*, *Hitza eman nion* eta *Eklipse morala* film laburrak ikusi eta solasaldia emanen du. Lerro hauek idazterakoan emanaldiaren lekua zehaztu gabe zegoen.

Autobus ordutegiaren panela paratu dute

Herriko Etxe ondoan argazkian agertzen den panel informatiboa paratu dute, autobus ordutegiak zehaztuak dituen. Momentuz, abisu berria bidali arte, autobusek plazan gelditzen segituko dute.



NIEBES BIURRARENA



Azaroaren 21ean Doneztebeko zineman egin zen topaketa. ALICIA DEL CASTILLO

Baztan, Bortziriak eta Malerreka Enplegu Taldea aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Baztan, Malerreka eta Bortziriako Enpleguari buruzko lehen topaketa egin zuten azaroaren 21ean, astearte goizean Doneztebeko zineman. Jardunaldi horretan, enpleguarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz aritu ziren eta Baztan, Malerreka eta Bortziriako Enplegu Taldearen aurkezpena ere egin zuten.

Enplegu Talde honetan parte hartzen dute eskualdeko udalek, gizarte langileek, Cerdna Garalurreko teknikariek, Eisol laneratzeko eta gizarteratzeko enpresak eta Nafar Lansare Enplegu Zerbitzuak. Doneztebeko Nafar Lansare Bulegoko Mariaje Ganboak adierazi zuenez, «enpleguari buruz aritzeko talde bat sortzea zen asmoa, erabakiak hartzeko eta zer behar dauden ikusteko. Taldeak urtebete darama

lanean eta hurrengo urratsean enpresak ere sartuko dira». Emplea Fundazioaren finantziazioa dute eta dagoeneko bi proiektu gauzatu dituzte: eskualdeko formakuntza mahaia sortzea eta belaunaldi arto erreleboa sustatzeko Gaztetik gaztera egitasmoa. Bertze asmo batzuk lantzeko ideia dutela ere azpimarratu zuten Ganboak.

Nafar Lansarek toki entitateei eta enpresei eskaintzen dizkien zerbitzuak ere aurkeztu zituzten. Horietako batzuetan beritasun garrantzitsuak dituzte, erraterako 45 urtetik goitiko zuzendutakoa. Gizarteratze enpresek enpleguan duten lan garrantzitsua ere agertu zuten. Elizondoko Lanbide Eskolako Kimua proiektuarekin elkarlanean enpleguari buruzko baliabideen mapa ere eginen dute.

BENI
arraindegia

NAGUSIA, 22 **DONEZTEBE**
T. 948 45 05 89 - M. 670 43 32 59

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.
048 63 14 52 / 630 60 80 34 / 630 56 50 65

CASA ETXEA

Parrokia 17 | **DONEZTEBE**
Tel-Faxa: 948 450 289
Imprimircasaoztiz@gmail.com

ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA

Bertso afaria eta kontzertua abenduaren 15ean

Bertso afarirako sarrerak aitzinetik erosi behar dira Ostiz etxean 33 euroren truke

OIER ZULAIKA

Malerrekako Bertso Eskolak, Malerrekako Mankomunitatearekin elkarlanean antolatuta, bertso afaria egingen dute bigarren abenduaren 15ean, ortziralea. Iaz 100 lagun baino gehiago elkartu ziren Santamarian egin zuten afarian, eta aurten ere gogotsu ari dira bertso eskolako kideak antolaketan.

Aurten ere Santamarian izanen da otordua, eta sarre-
rak dagoeneko salgai daude 33 eurotan Ostizen. Bertsoan Bittori Elizalde, Julio Soto eta Alazne Untxalo bertsolariak ariko dira.

Ez da ortziralean izanen den ekitaldi bakarra, egun berean, meza ondotik Mendi Abesbatzaren Eguberrietako kontzertu berezia izanen baita elizan. Haurrak zein helduak ariko dira kantuan.

Mendi eta Mendi ttiki abesbatzak eta Agorreta Musika Eskolako haurrak ariko dira kantuan, eta Donostiako Txistulari Bandako musikariak arduratuko dira musikarekin laguntzeaz.



Mendi abesbatzaren kontzertua.

Porrotxen eta Marimototsen emanaldia

Abenduaren 13an, ortzeguna, Porrotxen eta Marimototsen *Zorionak Marimototsen* antzerki musikatua izanen da kiroldegian 17:00etan.

Emanaldirako sarrerak 4 euroko prezioa dute eta herri-
anoin eta Ostiz etxean, Elizondoko Fantxiken, Lesakako Izarra okindegian eta Berako Errekalde ostatuan erosten ahal dira.

Santa Luzia eguneko azoka abenduaren 13an

Egun berezia izaten da Santa Luzia eguna, abenduaren 13a, Donezteben. Asteazkena izanen bada ere, aurten ere ospakizun xumea egingen dute egun horretan. Eskulangileek postuak paratuko dituzte eliza atarian, eta meza ere izanen da.

Eguberrietako saskiaren zozketa antolatu du Errekak

Eguberriak hurbiltzearekin bat saskiaren zozketa prestatzen hasi da Erreka. Txartelak dagoeneko salgai daude, eta saria ikusteko aukera ere bada. San Silvestre lasterketa antolatu du elkarteak abenduaren 31rako, eta informazio gehiago hurrengo zenbakian agertuko da.



ALICIA DEL CASTILLOK UTZITAKOAK

Giro ederra izan dute ferietan

Herriko feriak izan ziren azaroaren 17an, eta jende aunitz bildu zen bai goizean azienda eta postuen bueltan, arratsaldean herri kirolean eta baita gauean ere besta giroan. Aurtengo pasata, heldu den urtekoen esperoan egonen dira dagoeneko bat baino gehiago.



Abenduko kultur egunak egitarau zabalarekin datoz

Hilaren 3an kantu herrikoiak eta Arturo Kanpion abesbatza izanen dira eta 9an Zuhaitz Gurrutxagaren bakarriketa

ARKAITZ MINDEGIA

Aspaldiko urteetan abenduko zubian kultur egunak ospatzen ziren herrian. Aurten ere kultur egunak antolatzea erabaki du udalak. Hasteko, **abendua-ren 3an**, Nafarroaren eta Euskararen egunean, eguerdian kantu poteo musikatua izanen da. Herriko musikariekin kantuan aritzeaz gain, Arturo Kanpion abesbatzak ere kontzertua eskaniko du, Nafarroako Gobernuak antolatua.

Abenduaren 8an eta 9an ere izanen da zer egin. Ortzirale arratsaldean Aurtizko frontoian

partxis eta bingoa izanen dute gaztetxoek eta gauean Iturengo ostatuan mus txapelketa. Biharamunean, Iturengo herriko etxeko ganbaran, 19:00etan Zuhaitz Gurrutxagaren Futbolistok bakarriketa ikusteko aukera izanen da. Sarrerak 5 eurotan daude salgai, 637 14 58 01 (Miren) edo 646 21 45 73 (Maria) zenbakietan. Azkar ibili, martxa ederrean saltzen ari dira-eta! Akitzean udalak bokatak paratuko ditu saltzeko. Lortzen den dirua kultur ekitaldiak antolatzeko bideratuko da.

Eguberrietako saskia eta egutegiak Pulunpan

Pulunpa eskolan ekitaldiak antolatzeko asmoarekin segitzen dute eta horretan laguntzeko eguberrietako saskia (boletoak euro batean) eta egutegiak martxan dituzte. Hauek guraso elkarteari eskatuz edo herriko komertzioetan eskura daitezke (5 euro).

Mattin Leiza Nafarroako kirol jokoetan txapeldun

Atarrabia klubean ari den Mattin Leiza herriko pilotariak Nafarroako Kirol Jokoen infantilen lehen mailako finala jokatu zuen. Zubiriko Sergio Santestebanekin bikote eginez 18-8 irabazi zieten Larraungo Baldari eta Ugartemendia leitzarrari, txapela lortuz.



ARKAITZ MINDEGIA

Giro ederrean joan dira Aurtizko bestak

Azaroaren 9tik 12ra Aurtizko bestak giro ederrean joan ziren. Aurtizko gazteek antolaturiko egitarau zabalak herritar eta bisitarien erantzun bikaina izan zuen: haurren jokoak, herri bazkaria Peñagarikano eta Egaña bertsolariekin, motozerra erakusketa, trikitixa jaialdia eta bertze hainbat musika saio...

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com



Kattalin Arizmendi elizondoarrak joko eta abestuko du ostiralean. ARTXIBOKOA

Piz&Lohi Pest musika jaialdia astebururako prest

Ostiral gauean hasiko da giroa berotzen, baina larunbat arratsaldean izanen dituzte bazkaria eta kontzertu gehienak

FERMIN ETXEKOLONEA

Piz&LohiPest musika jaialdia antolatu dute Zubietako gazteek abenduko lehenbiziko astebururako. Beti bezala, eskualdeko musikari eta taldeei beraien lana plazaratzeko aukera emanen die jaialdiak. Denera, dozenaren bat talde eta DJ espero dituzte ostiralean eta larunbatean.

Abenduaren Iean, ostiralean, 20:00 aldera hasiko da giroa berotzen, Kattalin Arizmendi bakarlariaren eta Gaizkillea eta infernuko begiak eta Oro taldeen musikarekin. Estalpean talde-jatea izanen dute.

Halere egun handia **abenduaren 2a** izanen da, larunbata. Eguerdiko parteko poteoaren ondoren, bazkaria izanen dute estalpean. Iaz bezala, Espainiako Guadalajaratik etorritako DJ'S Zorromono izanen da musika jartzen bazkarian. 18:00etan berriz ere musika doinuak zabaltzen hasiko dira, Hago Silik, Ursu-mari, Ozpinduk, Hienas Terkas, Oihana Maitakor, III. Mundu Gerra eta Roña taldeak izanen dira musika jartzen. Estalpean taberna ere antolatu dute eta bakoitzak bere edalontzia eraman dezala.

600 gramoko onddo ederra udazkenaren erakusgarri

Udazkenean murgilduak, euri eta eguzkiko egunak tartekatuz, hasiak dira oihanak eta mendiak bere urteroko uzta ematen. Horren erakusgarri, zubietar batek bildutako 600 gramoko onddoa. Ez digu non harrapatu duen aitortu, baina otordu goxoa egin du.



600 gramoko onddoa.



31 lagun elkartu ziren Donezteben azaroaren 20an. UTZITAKOA

Azaroaren 30eko greba feministarekin bat egin dute pentsiodunek Donezteben

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Hilabeteroko elkarretaratzea azaroaren 20an Donezteben egin zuen Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduak. 1.080 euroko guttieneko pentsioa eskatzearekin batera, Palestinako herriari elkartasuna adierazi, adinekoen zaintza duina aldarrikatu eta azaroaren 30ean egingen den greba feminista orokorrarekin bat egin duela jakinarazi zuen. Ohiko aldarrikapenez gain, bertze gai batzuk izan zituzten hizpide, eta deus baino lehen, «Palestinako herriari elkartasuna» adierazi nahi izan zieten, «Israelen jarrerak eta sarraskiak sufrimendua lau haizetara hedatzen duela» salatuz. Sarraskia «berehala gelditzea» eskatu zuten.

Adinekoen zaintza duina pentsiodunek plazetan aldarrikatu izan duten bertze kon-

tua izan da, alde batetik, «zaintzaren eredu duina» eta bertzetik, «eredu hori egokitzeko beharra» nabarmenduz: «Zaintzaren kalitate egokitu behar da, baita generoen ikuspegitik, pertsona guztiek aukera berdinez izateko». Bide horretan, Elizondoko zahar etxea publiko izateko bidean egindako «lanketa txalotu» nahi izan zuten.

Azaroaren 30ean greba feminista orokorrerako deia egin dute mugimendu feministak eta sindikatuek, eta pentsiodunek ere horrekin bat egin dute. Horren harira honela gaineratu zuten atzoko agerraldian: «1.080 aldarrikapenak gehienbat emakumeei eragiten dio, eta zaintza arloan ere hortik etorri behar du aldaketak; gizonak eta emakumeek partekatuz zaintza lanak».




BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDORRIAK
948 446 683 - 948 625 663
nbidasoa@gmail.com

Gurpil eskaintza bereziak:
24h-ko asistentziak orragidearen
147 euruko zenbuzko dohaiak
Gasolindorriak 24h irekita

GASOLIOA ETXERA
erazten dugu

Alkaga Industrialdea
Zubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)


Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)



ANELAN
LAN BERTIKALAK

948 031 174
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fabriken konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, telatuen eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.



BERTIZARANA

Theo Cantagrelen argazkia saritu dute ehiza jardunaldietan

Ehiza Jardunaldi Gastronomikoetako argazki lehiaketako epaimahaiak irudiaren kalitatea eta koloreak azpimarratu ditu

TTIPI-TTAPA

Aurtengo Ehiza Jardunaldi Gastronomikoetako argazki lehiaketak badu irabazlea: Theo Cantagrelek Donamariako Bentajatexean egindako *Usoa ohiko erara* izeneko argazkia izan da saritua, Baztan-Bidasoa Turismo Elkartearen hartutako argazki guztien artean hori izan baita epaimahaiak aukeratutakoa. Bi lagunendako otordua hartuko du saritzat eta aurtengo jardunaldietan gozatu behar du. Horrez gain, heldu den urteko jardunaldien irudia ere argazki saritua izanen da.



Lehiaketako argazki saritua.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: NEREA MEOKI

Legasako eskolako azoka

Legasako eskolako laugarren azoka egin zuten azaroaren 16an. Ikasleek eskulanak eta jaki goxoak prestatu zituzten eta hauen familiek ere parte hartu zuten. Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, frontoira jende multzoa hurbildu zen. Eskolakoek eskerrak eman nahi izan dizkiete parte hartu zuten guztiei.



LEHEN MAILAKO HORTZ-INPLANTEAK.

BERRESKURATU IRRIBARREA ETA BIZI-KALITATEA.

Implantologia soluzio bikaina da galdutako edo kendutako hortz bat, batzuk edo guztiak konpontzeko.

Zehazki, inplante bat torioju formako titaniozko pieza teki bat da, maxilarrean edo masaliezurrean jartzen dena, falta den hortzaren erroa ordezkatzeko. Horren gainean, neurri egindako protesi lingo bat jartzen da.

Hartara, pazienteak berriro murtikatu, irribarre egin eta normaltasun osoz hitz egin ahal izanen du, bere hortzekin sentitzen zuen segurtasun bera sentituz, eta, beraz, bere bizi-kalitatea itzuliko zala.

FINANTZATU ZURE TRATAMENDUA INTERESIK GABE

WWW.CLINICADENTALIRURITARUBIO.ES

GURE TRATAMENDUAREN ONURAK:

- Irribarrearen funtzionaltasun estetiko, fonetiko eta murtikatzeko berreskuratzen ditu.
- Edozein elikagai mota jateko aukera ematen du.
- Inplanteak hortz naturalak bezala sentitzen dira.
- Bizi-kalitatea hobetzen du.
- Ez da hezurrik gaitzen.
- Zahartze-ibura gutxitzen du.
- Konfiantza osoz murtikatu eta irribarre egiten ahal da.
- Aho-errehabilitazioko tratamendurik estetiko eta erosoa da.
- Inplanteen materiala organismoarekin biobateragarria da.
- 30 urteko esperientzia duten espezialistak.
- Neurri egindako finantzaketa, interesik gabe.

30 urte lanean zuretzat

(+34) 618 480 553 **(+34) 948 450 267**

recepcion@clinicadentalirubarubio.es

Rosa Seminario 19, 1º, 31740 Donostia

EGUBERRI ON!

Familia eta lagunekin ospatzeko bestak



Tradizioz betetako egunak ditugu Eguberriak; familiarekin bazkaltzea edo afaltzea, Gabon kantak nazkatzeraingo aditzea, opariak hartzea eta ematea, turroi eta polboroiak leher-tzeraino jatea... baina batez ere, atsedena hartzeko eta maite dugun jendearekin pasatzeko egunak dira.

Argi dago erlijio, herrialde eta kultura bakoitzak Eguberriak ospatzeko modu propioak dituela, eta Euskal Herrian ere baditugu egun hauen bueltan ezinbertzekoak diren ohiturak, jantziak eta platerak. Eta neurri batean edo bertzean, denok gustuko ditugu!



MENDAU MOTOR
T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPRAVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 333

**ELIZONDOko plazan
EROSKI CITY**



**Eguberri eta
Urteberri on!**

BEAARRAINDEGIA **esarte**

Astelehenetik Larunbatara

09:00 - 21:00

Foruen Plaza, 3 - ELIZONDO - T. 948 580 005



Hamaika modu urte sasoi bera ospatzeko



Urteko azkeneko egunek eta lehen-bizikoek badute xarma berezia. Ospakizun garaia izaten da mundu osoan baina, denok ez ditugu berdin ospatzen. Eskualdean, kristautasunarekin lotutako ekintzak eta erritu paganoak dira nagusi: batzuetan elkarrekin uztartuta, bertzeetan elkarrengandik ihesi. Ez dira, ordea, Eguberriak ospatzeko modu bakarrak, eskualdean ere geroz eta kultur aniztasun handiagoa dagoenez herritarren artean, Eguberriak ospatzeko moduak ere ugaritzen ari dira.

Garai bateko usadioak

Orantzaroa izenez ere ezagutzen zen garai batean Euskal Herriko hainbat txokotan Eguberri garaia. Eguzkia ahulena dagoen garaia izaten da eta euskaldunek hura indartzeko erritual eta festa pagano bereziak egiten zituzten, batez ere sua erabiliz. Erritu horien aztarnak ailegatu dira gaur egunera arte eta hainbat baserrian mantentzen dituzte suaren inguruko errituak.

Leitzan Orantzarook beste esanahi bat du. Orantzarook panpinak dira, abenduaren 23 gauean herrian eta baserrietan leiho, balkoi edo tximinietan paratzen direnak. Panpin guztiak desberdinak dira: leihotik zintzilik dagoen amona xaharra, tximiniaren puntan dagoen segalaria edo sorgin itxurako panpina... Urterro egiten da panpina berri bat eta irudimena da muga bakarra. Leitzako ALKE Kultur Taldeak egindako

lanari esker azken urteetan ohitura hau indartu da. Lesakako Olentzero eta jaiotzen lehiaketa ere aski ezaguna da. Eta urtero bezalaxe, jendetza bilduko da taldean egindako lanak ikusi eta kantuak aditzera. Ez dira izanen egun horietan Olentzero edo Mari Domingi bizkarrean hartu eta kantuan aterako diren bakarrak: eskualdeko herri guztietan aterako dira kantuan haur, gazte eta helduak.

Kutsu erlijiosoa

Jesusen jaiotza ospatzeko dute kristauak eta familiarrean eta elizaren bueltan igaroko dituzte egun hauek. Mezetara joan, etxean jaiotza jarri, Erregeen etorrera ikusi... egun bereziak izanen dira beraientzat.

Etxea apaintzeko ordua

Etxea apaintzeko ohitura ere hagitx zabaldua dago. Etxe atariko gorostia apainduko dute batzuek, plastikozko pinua besteek; haurrek egindako eskulanekin apainduko dituzte etxeak eta Olentzero edo bizar zuri balkoitik zintzilik jarriko dute. Argi dizdiratsua ere ez dira faltako... kapitalismoak ere utziko du bere arrastoa gurean.

Horiekin batera, badira hagitx zabaldua dauden bertze hainbat ohitura ere: gauerdian hamabi mahats jatea, arropa gorria soinean janztea... eta erlijio eta kultura edozein delarik ere denean zabaldua dagoena: mahaia-aren bueltan bildu eta jan-edanean momentu goxoak pasatzea.

TXALUPA, S.I. ARRANDEGIA

Arrain eta marisko freskua aste osoan

Zorionak eta Urteberri on!

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

Kanttonberri, 3 behea - BERA
T. 670 321 202 - 948 631 575

Malkorra

Santiago, 15 - Tel. 948 580 061 - ELIZONDO
www.malkorra.com

Eguberriak prezio txikian

Bizi eguberrietako xarma Venta Peion! Prezio erakargarrienak aurkituko dituzu zure opari eta baita garai honetako janari berezientzat ere. Osagarri, bitxi, elektronika eta abar zure poltsikoaren eskura!



Eguberri on



Kalash
JOYEROS

Ekarri erabiltzen ez duzun urrea eta nahi duzun bitxia egingo dugu



Kanitonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519



«Maitasun osoz eta umorez egiten ditugu gure taloak»

JOSE MANUEL HUICI ANTON SARALEGI TALOAK

Ura, gatza eta irina ongi nahasita sortzen da askorentzat gutizia dena: taloa. Saralegi taloek beste bi osagai ere badituztela aitortu du Jose Manuel Huici Antonek: «maitasun osoz eta umorez egiten ditugu gure taloak». Duela hiru urte pasatxo aldatu zuen bere nekazaritza jarduera Leitzako Arro baserriak. Azienden, ordez, artasoroak jarri zituzten eta Saralegi taloen izenpean ontziraturako taloak merkaturatzen hasi ziren.

Aspaldiko lotura

Aspalditik dute taloekin lotura Arro baserrian: «1960an Kristina Saralegiren aita Donostiako Konstituzio plazara joan zen lehenbizikoz taloak saltzera». Ez zekien orduan tradizio bati hasiera ematen ari zenik. Kristinak hartu zuen aitaren lekukoa eta duela hamar urte bere eskutik hasi zen talogintzan Jose Manuel Huici senarra: «Euskal Herri osoko azoketan ibili ginen elkarrekin taloak egin



Saralegi
TALOAK

Bertakoa, naturala, goxoa!



T. 610 378 543 Arro baserria - Leizta
saralegitaloak.eus



ERROSKAK ETA EGUBERRIETAKO PRODUKTUAK

Eguberri on !!

Boxune Kafetegia Sara Kafetegia

IREKIA abenduak 25 eta urtarrilak 1 09:00-13:00
Errege eguna **IREKIA** 08:00-13:00

ITXITA abenduak 25 eta urtarrilak 1
Errege eguna **IREKIA** 08:00-13:00

Sara karrika, 7 BERA - 948 630 235 Hurlandeta, 6 BERA - 948 625 673



erran.
eus



EGUBERRI ON FAMILIA!

BIOK

BIOK

EXPERIENTIAL SHOPPING

Promozioak, zozketak, deskontuak eta Gabonetako produktu bereziak gure dendetan eta webgunean.

📍 [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)



Nire edertasunaren sekretua, nire kosmetika

Mary-Cohr · CV

Altzate, 33 BERA Tel.: 948 630 904

artesiaga



**PAPERTEGIA · ESKOLAK
INFORMATIKA · KOPISTEGIA
BULEGOAK**



**ELIZONDO
948 580 639
www.artesiaga.com**



eta saltzen. Ez zioten alferrik deitzen Taloen Erregina Kristinari». Duela hiru urte pasatxo merkatua zabaldu eta taloa modernizatzeko apustua egin zuten senar-emazteek: «etxean obradorea jarri genuen eta taloak ontziratuta eskaintzen hasi ginen, kontsumitzaileak bere etxean, nahi duen osagaiekin eta nahi duenean dasta dezan». Hala, betiko taloekin batera, beste aukerak probatzen hasi da jendea: «entsalada, patata tortilla, haragi egosia, gulak, onddoak... eta denak goxoak daude».

Ustekabeak hasieran

Hasiera ez zela erraza izan aitortu du Jose Manuelek: «obradorea martxan jartzeko puntuan geundenean pandemia etorri zen. Orain zer? izan zen gure galdera. Leitzako Udalari eta kontsumo taldeari esker gure produktuak saltzeko aukera izan genuen frontoian astero egiten zen azokan. Gero pixkan pixkan hasi ginen dendetan saltzen eta bagoaz poliki-poliki merkatua egiten». Gaur egun, Euskal Herri osoan eskura daitezke Saralegi taloak: «Eroski supermerkatuetan eta hainbat harategitan daude eskuragai. Sare sozialetan ere argitaratzen ditugu gure bideo eta argazkiak eta horri esker, online ere egiten dugu lan. Pentsa, Holandatik ere jaso genuen eskaera bat».

Taloek jendearen interesa sortzen dutela uste du: «bertakoentzat badu nostalgia puntu bat, ume garaiko zapoak gogorarazten dizkie askori». Azokaz azoka segitzen dute eta jendetza hurbiltzen zaie: «turistek saltzen diegu batez ere, eta hego amerikarrek ere oso gustura jaten

dituzte. Pasa den urtean Basque Culinary Centerrek antolatutako jardunaldi batzuetan ere parte hartu genuen eta indiarrek, arabiarrek... probatu zituzten gure taloak».

Hasieratik bukaerara

Talao mimo handiz egiten dute. Artoa ereitetik hasi eta taloa saldu arteko prozesu guztiaz arduratzen da Jose Manuel: «lurretik hasten gara. Artoa maiatz aldera erein eta urriari hasten gara biltzen».

Ereiten duten artoa bertakoa dela ere nabarmendu du: «hazia Kristinaren birraitonak eman zion auzoko Martikoneko amonari. Hazi bila genbiltzala, amona hori etorri zen Kristinari hazia ematera. Hirurogei urtetara hazi hori bueltan etorri da Arroa baserrira».

Taloen Erregina

Bizitzak izaten ditu ezustekoak eta 2022ko otsailaren 26an jaso zuen Jose Manuelek kolperik gogorrena: Kristina zendu zen. Aitortu du urte gogorra izan dela, «baina Kristinaren ametsa zen hau eta berak hasitako bideari segida eman behar diogu. Talo bakoitza izan dadila Kristinari egindako omenaldi bat». Iraganak eta etorkizunak elkarrekin bidea egin dezaketaren erakusle.

**«TALO BAKOITZA
IZAN DADILA
KRISTINARI
EGINDAKO
OMENALDI BAT»**




Eguberri eta Urte Berri
zoriontsua opa dizuegu

Martiko

DENAKO ORDUTEGIA ABENDUAN

Astelehenetik ortziratera: 9:00 - 18:00

Abenduak 4, astelehena: 9:00 - 18:00

Abenduak 16 eta 23, larunbata: 09:00 - 13:00



WWW.MARTIKO.COM



«Jendeak produktu osasuntsuak eta naturalak nahi ditu»

CLAUDIA ALMANZA COSSIO ZURI ESTETIKA ZENTROA



nuen. Lehenagotik esperientzia nuen lan honetan, bainuetxe batean aritu bainitzen sei urtez, eta nire zentroa irekitzea erabaki nuen».

Kosmetika natural eta ekologikoe-kin egiten du lan; «bioterapiak egiten ditugu aurpegian eta gorputzean. Gainera, teknologia berriak ere erabiltzen ditugu; irrati-frekuentzia, HI-FU...». Horrez gain, «oinarrizko zerbitzuak ere eskaintzen ditut: laser eta argizari bidezko depilazioa, manikura, pedikura... denetik. Hori baita nire asmoa, bezeroek zentro batean zerbitzu guztiak edukitzea, batera eta bertzera joaten ibili beharrean».

Gaur egun, «jende aunitzek zaintzen du larruazala. Aurpegian tratamenduak egiten dituzte zahartzea frenatu nahian, eta gorputzari ere garrantzia handia ematen zaio, itxurari nahiz osasunari». Hortaz, «estetika zentroek ongi funtzionatzen dute. Inguruan zentro gehiago ditugu eta denok egiten dugu ongi lan». Gainera, «Baztandik ez ezik, Malerrekatik eta ingurutik etortzen zaizkit bezeroak, eta Olaguetik ere etorri izan zaikit».

Eguberrietako bertze tradizio handi bat oparien hartu-emana da. Hamaika aukera ditugu opari bat egiterakoan, baina gero eta ohikoagoa da esperientzia bat ematea; bidaia bat, otordu bat, ikuskizun baten sarrera... edo estetika tratamendu bat.

Duela hiru urte ireki zuen Claudia Almanzak Zuri estetika zentroa Elizondon. Izan ere, «estetika zerbitzu eta tratamendu aunitz eskualdetik kanpo egiten zirela konturatu nintzen; Irunen, Iruñean... eta Baztanen zerbitzu hori ematea beharrezkoa ikusi

ARKUPE
Txokolategak
-1984-

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

Zuri
Edertasuna eta teknologia

Estetika aurreratu, aurpegiko eta gorputzoko bioterapiak, Viora Reaction + Azala gaztetzeko tratamendua + Hollywood peel, BBGLOW, radiofrekuentzia, presoterapia, manikura, pedikura eta askoz ere tratamendu pertsonalatu gehiago eskaintzen dizkizugu!

Santiago, 59 behea - Elizondo - Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81



hotel-balneario
elgorriaga
hotel-balneario



Eguberrietan opari bonoak!



Informazioa eta erreserbak:
www.balnearioelgorriaga.com | 948 456 045
reservas@balnearioelgorriaga.com



Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA | T. 948 630 709
www.beolaetxea.com



Eguberri eta urte berri on!!
Bezero eta lagun guztioi!!

Vilanova
accessories

TIFFOSI KIDS

TIFFOSI

BLEND

BRAVE SOUL

EGUBERRIAK



Ezkontzak, jauntxoak,
lagunartean, kinto bestak,
familia ospakizunak.



Eguberri eta Urteberri on
lagun eta bezero izan zaituzteguenoi!

Abenduaren 18tik
otsailaren 29ra arte ITXITA

ondotik indarberrituak etorriko gara!



Iruñea - Irun errep. 60km · 31760 ETXALAR
T. 948 635 000 · F. 948 635 263
info@etxalar.com · www.etxalar.com



Izan ere, «gaur egun badakigu sili-
kona edo parabeno aunitz dituzten
produktuak ez direla onak, eta jen-
deak bertzelako produktuak nahi
ditu, naturalak eta osasuntsuak».

Opari perfektua

Eguberriei begira, «black friday eta
horrelako promozioekin, jendeak
bonuak eta opari txartelak erosten
ditu». Hortaz, «norbaitek opari
bila etortzen direnei, aukeratzen
laguntzen diet, gehien egokitzen
zaiena eros dezaten». Azaldu duenez,
«jende aunitzek denborarekin egiten
ditu Eguberrietako erosketak, batez
ere aitzineko deskontuak aprobetxa-
tuz. Hala ere, egia da batzuk azken
ordura arte esperoan egoten direla
erosketak egiteko».

Baina oparitzeko ez ezik, norbera-
rendako tratamendu eta makillaje
zerbitzuak ere eskaera handia dute;
«ospakizun hauetarako eta edozein

besta, ezkontza edo ekitaldirako,
baita inauterietarako ere, jendeak
makillaje landua nahi izaten du».

Negozioa ezagutzera emateko, «sare
sozialak arraz inportanteak dira. Lehen
ahoz ahokoaren bitartez zabaltzen
zen, baina gaur egun sare sozialak
ezinbertzekoak dira eta leku auni-
tzetara eramaten zaituzte».

Azkenik, «norbere burua modu
osasuntsuan zaintzera gonbidatu
nahi dut. Estresa nagusi den bizitza
honetan, onuragarria da guretako
denbora bilatzea, deskonektatzea
eta atsedena hartzea».

«OPARI BILA ETORTZEN DIRENEI AUKERATZEN LAGUNTZEN DIET»



sarobe®
okindegia gozotegia



Panettoneak
Errege eroskoak
Turroiak
Txokolateak
Bonboiak
Polboroiak
Pastak

eguberri eta
urte berri on!

Ezdegara 25, Berr 31780 Nafarroa T. 948 630 899

@sarobe_okindegia_gozotegia | www.sarobe.net



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

EGUBERRI ON!

EGUBERRI ON!



LURRINA, KOSMETIKA, MAKILLAJEA

Abenduaren 9tik 24ra dendetan. Deskontua aile merkeenean. Eskaintza hau ez da bateragarria beste promozioekin ezta Chanel produktuekin ere.

Eskuratu % 50eko deskontua bigarren alean Idoia Fideltasun Txartelarekin

perfumeriasidoia.com

IDOIA
LURRINDEGIAK



Euskarazko Produktuen Katalogoa



EGUBERRI ON!

Zalain
JANARIAK



948 631 338

Zalain Ind. 42, behe. zalainjanariak@gmail.com

Urteko garai hau seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jostailuak oparitzeko aukera paregabea da. Hortaz, Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako 100 Euskara Zerbitzuko baino gehiagok Euskarazko Produktuen Katalogoaren 25. edizioa osatu dute. Web-orriak eta paperezko edizioak itxura berriak estreinatu dituzte, eta jasotako produktuak bi ataletan sailkatu dituzte: 0-12 urte bitarteko haurrentzako eta 12-16 urte bitarteko gazteentzako.

Paperezko edizioaren 64.000 ale banatuko dira egunotan Hego Euskal Herrian, eta azkeneko urteotan bezala, bi azal izanen ditu, katalogoaren bi atalei sarbidea errazteko.

Katalogoko artikulua guztiak ikusi nahi dituztenek, berriz, webgunera jo beharko dute. Etengabe eguneratzen da eta bi atalen artean, 8.000 produktu inguru biltzen ditu. Atal bakoitzak bere direktorioa du, eta produktu motaren arabera bilaketaren bidez, tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bila daitezke.

Azken nobedadeen berri izan nahi dutenek buletin elektronikora harpidetzeko aukera dute web-orrian. Urte osoan hamar buletin jasoko dituzte, argitaratu berri diren produktukin. Izan ere, horixe da katalogoaren helburua: euskarazko azken nobedadeak erabiltzaileen eskura modu errazean jartzea.



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Online denda

GABONAK ENDANEAN

Apaindu etxeko txoko guztiak Gabonetako xarmarekin. Ezagutu apaingarri eta oparien bilduma paregabea Endanea Garden-en.


Aurten eskaintza bereziak ditugu.

Zatoz edo egin zure eskaria telefonoz eta online dendan.



GABONETAN, IRUN DA PLANA

Egitaraua: www.irun.org



Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Etxetresnen bizitza luzatzen saiatzen gara»

ROBERTO MIGUELENA BALDA
MIGUELENA - DONEZTEBE

Etxetresna tikiak eta haundiak saltzen dituzte Doneztebeko Miguélana dendan, «eta sukaldeak, bainuko altzariak eta pareta armairuak muntatzen ditugu». Baina salmenta eta muntaketa ez ezik, konponketa zerbitzua ere eskaintzen dute; «horrela, etxetresnen bizitza luzatzen saiatzen gara, eta ingurumena kontuan hartzen dugu». Eguberriretan «mugimendu gehiago» nabari badute ere, «urte guztian mugimendu dezentte izaten dugu eta ezin gara kexatu». Gainera, «azken urteetan jendeak denbora gehiagorekin egiten ditu erosketak, azken momenturako utzi beharrean». Azpimarratu nahi izan dutenez, «gure enpresatik eta Doneztebeko merkatarien elkartetik tokiko merkataritza sustatu nahi dugu, herriak bizirik segi dezan eta aldi berean, guk herriko eragileei lagun diezaiegun».



«Produktuen aniztasunaren aldeko apustua egin dugu»

MARI JOSE ARA IGLESIAS
ARTURO - BERA

1945ean sortu zen Berako Altzate karrikan Arturo arropa denda, eta Mari Jose Ara Iglesiasek azaldu duenez, «2015ean karrika bereko 30. zenbakira lekualdatu genuen denda». Eskaintza zabala dute bertan, «lau ataletan banatzen baita; emakumezkoen arropa, gizonezkoen arropa, zurimanta eta haur, gizon eta emakumeentzako lentzeria. Euskal jantziak ere saltzen ditugu dendan». Izan ere, «produktuen aniztasunaren aldeko apustua egin dugu, gure hornitzaileak kontu haundiz hautatuz eta eskualdeko eta estatu mailako produktuen alde eginez. 78 urtez Berako bizitzaren parte izan gara, eta Altzateko karrika argitzen eta gure bezeroei tratu hurbila eta pertsonalizatua eskaintzen segitzea espero dugu».



«Orain eskaintza oparietara bideratzen dugu»

IRUNE ALKORTA RODRIGUEZ
GARBI - LEITZA

1970ean ireki zuten Irune Alkortaren amak eta izebak Garbi drogeria eta lurrindegia, «eta orain duela 12 urte hartu nuen nik denda. Geroztik, obrak egin ditugu denda handitzeko». Hala ere, «lehenagoko drogerien formatu bera du; pinturak eta bernizak, brotxak, garbiketarako produktuak etxerako zein industrialak, etxeko gauzak, parfumeak eta osagarriak saltzen ditugu». Eguberrietara begira, «oparietarako gauzak saltzen dira gehien; zorroak, zapiak, eskularruak, txanoak... gainera, parfumerian promozio eta artikulu bereziak ekartzen ditugu». Azkenik, «Internet bidezko erosketak ugariagoak badira ere, hemen behintzat jendeak komertzio ttikietan egiten ditu erosketak. Bezero fidelak ditugu eta eskerrak eman nahi dizkiet».



«Lehenago egiten ez ziren konponketak egiten ditugu orain»

IÑAKI URRUTIA JUANIKOTENA
GUREAUTO - IRURITA

2017an lekualdatu zuten Gureauto tailerra Elizondotik Iruritarra, eta bertan hasi ziren lanean autonomo gisa Iñaki Urrutia eta Mikel Iparragirre. «Iruritarra etorri ginenean beldurra genuen, baina aldaketa hoberako izan da. Leku gehiago dugu lan egiteko eta bezeroek kotxeak uzteko». Mekanika azkarra lantzen dute bertan; «olio eta balazta pastillen aldaketak, konponketa elektronikoak, 3.500 kilo arteko auto eta furgoneten mantentze lan orokorrak...». Azkeneko urteetan «lan aunitz» izaten dute; «kotxe elektrikoek inguruko dudak ditu oraindik jendeak, ez dakite erosi edo ez, eta oraindik kotxe zaharrarekin ibiltzen dira. Hortaz, lehenago egiten ez ziren konponketak egiten ditugu orain».



Bertsolari txapelketako finala Iruñean larunbatean

Eskualdeko hiru bertsolari ariko dira finalean kantari. Txapeldunari txapela Alaitz Rekondo lesakarrak paratuko dio

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsolari Txapelketa ailegatu da azken geltokira. Abenduaren 2an, larunbatean, jokatuko dute final handia Iruñeko Anaitasunan eta dena prest dute finalerako.

Beren saioak irabazita zuzenean sailkatu dira finalera Saioa Alkaiza Guallar (Iruñea), Julio Soto Ezkurdia (Gorriti) eta Joanes Illarregi Marzol (Leitza). Puntuazioaren arabera, aldiz, Xabat Illarregi Marzol (Leitza), Eneko Lazkoz Martinez (Etxarri Aranatz), Josu Sanjurjo Altzuri (Lesaka), Saats Kara-

satorre Martinez (Etxarri Aranatz) eta Sarai Robles Vitas (Barañain). Gaiak jartzen Ainhoa Larretxea Agirre bertarri eta Ander Aranburu Arriola ariko dira.

Bi aurpegi berri izanen dira finalean: Karasatorre eta Robles. Gainera, 2006. urtetik lehendabizikoz bi emakume izanen dira finalean kantari. Orduko hartan Estitxu Arozena eta Erika Lagoma aritu ziren bertsotan.

Saioa 17:00etan hasiko da, baina, aretoko ateak 15:00etan irekiko dituzte. Sarrerak lehe-



Josu Sanjurjo Altzuri Lesakako saioan kantari. JOSU SANTESTEBAN/NBE

nagotik salgai daude *bertsolarerak.eus* helbidean eta finalean egunean 12:00etan moztuko dute Internet bidezko salmenta. Sarrerak agortzen ez badira, 15:00etan irekiko dute txarteldegia.

Txapela Alaitz Rekondok

Alaitz Rekondo Ferrerok paratuko dio txapela aurten txapeldunari. Ezinbertzeko figura da Rekondorena Nafarroako bertsolaritzan. Ikastola

garaiaren bertsozale zuen, eta Bortziritako Bertso Eskolan hasi zuen ibilbidea. Hala ere, gai jartzaile bezala nabarmendu da batez ere.

2004tik da Nafarroako txapelketako gai jartzaile taldeko kide, txapelketa nagusian ere aritu izan da eta 2011tik aurtengo otsailera arte Nafarroako Bertsozale elkartearen lehendakaria izan da. Gisa horretan, bertsolaritzaren alde egindako lana eskertu nahi dio elkarrekin.



Nafarroako

Bertsolari Txapelketa

2023

FINALA

IRUÑEA

Abenduak 2, larunbata

17:00etan, Anaitasuna Kiroldegian



Eneko Lazkoz Martinez, Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Altzuri, Julio Soto Ezkurdia, Saats Karasatorre Martinez, Saioa Alkaiza Guallar, Sarai Robles Vitas eta Xabat Illarregi Marzol

Gai-jartzaileak: Ainhoa Larretxea Agirre eta Ander Aranburu Arriola

Antolatzailea



Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus atarian

www.bertsozale.eus

Laguntzailea



'Euskara ibiltaria' erakusketara bisita gidatua

'Euskara ibiltaria' erakusketa paratu dute Beran, eta elkarteko bazkideentzat bisita gidatua izanen da abenduaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan bezala, aurrean ere *Uscaldunac garen ezquero* zikloa eginen dute Beran abendu hasieran. Euskaltzaindiaren *Euskara ibiltaria* izeneko erakusketa da aurtengo zikloaren funtsa eta Kultur Etxeko erakusketak gelan paratuko dute.

Erakusketa abenduaren 3an igandean, 6an, asteazkenean, eta 8an, ortziralean, egonen da irekia. Egun horietaz aparte, Arkupeak elkarteko bazkideek ere aukera izanen dute erakusketa ikusteko, izan ere abenduaren 1ean, ortziralean bisita gidatua izanen dute 13:00etan. Hala ere, bisitan parte hartzeko aitzinetik izena eman beharko da. Horretarako aski izanen da elkarrearen bulegora deitzea, 948 45 08 78 edo 618 56 78 37



Berako Kultur Etxea. UTZITAKOIA

zenbakira. Bisita gidatuan elkarteko kideez gain, nahi duenak parte hartzen ahalko du.

Bisitan erakusketa ikusteaz gain, euskararen hainbat bitxikeriaren inguruan gehiago jakiteko aukera izanen dute bazkideek. Euskara zer aberatsa den ikusteko hitzordua izanen da, eta zergatik erabiltzen diren hitz diferenteak herriz herri gauza bera izendatzeko.

182 bazkide elkartu dira Lodosara eta Lizarrara egindako irteeran

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 19an elkarteko 182 bazkide joan ziren Peron kontserbategia bisitatzera eta bidenabar, Lizarrako azoka ikustera. Lau autobusetan banatu ziren irteera egiteko. Bi autobus Lizarra joan ziren bertako azoka ikustera eta ondotik, kontserbategira, eta bertze bi autobusek, aldiz, kontrako bidea egin zuten: lehendabiziko kontserbategira joan eta ondotik Lizarrako azokara.

Ondotik, bazkaria Venta Larrionen izan zuten, eta



Lodosako Peron etxea. UTZITAKOIA

urtero bezala, hagitz ongi bazkaldu zuten bertan. Eguna borobiltzeko, ohikoa duten bezala dantzaldia izan zuten Jose Angel musikariak girotuta.



Azaroko irteeran parte hartu duten mendizaleak. UTZITAKOIA

Hurrengo urteko irteerak antolatzen ari dira elkarteko mendizaleak

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 22an, hilabeteko hirugarren asteazkenean ohiko irteera egin zuten elkarteko mendizaleak. Kostaldera joan ziren, Hendaia hain zuzen. Eguraldi eskasa izan bazuten ere, gogotsu ibili ziren elkartu ziren 65 mendizaleak itsaso bazterreko bide gorrian

barna. Ondotik, Berako Zalain jatetxean bazkaldu zuten.

Dagoeneko heldu den urteko irteerak ere antolatzen hasiak dira. Hilabetez hilabete ondorengo lekuetara joanen dira: Bera, Berroeta, Etxalar, Leitza, Baztan, Hondarribia, Berastegi, Belate, Pirinioak, Aralar, Sunbilla eta Urdazubi.

Urtariletik aitzinera hiru delegatu izanen dira Beran

TTIPI-TTAPA

Aitzineko aldizkari batean aipatu bezala, Angelita Izurategik Berako delegatu izateari utziko dio urte bukaeran. Urtarrilaren 1etik aitzinera hiru delegatu izanen dira Beran. Orain arte delegatua zen Paula Etxeberria,

eta heldu den urtean eginkizun horretan hasiko diren Pili Albistur eta Alfonso Agirre.

Horrekin batera, azken aldizkarian aipatu bezala, delegatua behar da Donezteben. Abenduaren 20a baino lehen aurkeztu behar da posturako.

Erriberriko Piedemonte upategira bisita eginen dute 80 bazkidek

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 14an 80 bazkide joanen dira Erriberriko Piedemonte upategira. Egun osorako plana izanen dute bertan. Goizean, upategian dastaketa izanen dute, eta ondotik, Erriberri denbora libre izanen dute herria bisitatzeko.

Denbora librearen ondotik, autobusa hartu eta Castejonera joanen dira bertan bazkaltzeko. 14:00etan izanen dute bazkaria bertan eta buffet libre izanen dute. Iluntzean itzuliko dira autobusez nor bere herrira. Urteko azken irteera izanen da.



Festak eta aldarrikapenak bat eginda, kalejira egingo dute eguerdian. ARTXIBOA

Euskararen Eguna ospatuko dute abenduaren 3an

Pizza jatea egingo dute gauean eta aldeztatik izena eman beharko da Sastinean edo herritarren whatsapp taldean

ENERITZ IRAOLA

Goizean hasi eta iluntzera arte, hainbat ekitaldi prestatu dituzte Euskararen Eguna ospatzeko. Goizean, haur eta gurasoak sukaldari lanetan ibiliko dira; pizza tailerra antolatuko dute Pake Toki elkarteak. Irina, legamia, ura... nahasi eta saltsan ibiliko dira pizza

oreak egiten. Sukaldeko lanak bukatuta, 12:00etan aldarrikapenerako tartea izango da eta musikariek lagunduta eta pankarta atzean, kalejira egingo dute. 16:30ean Ameli eta xirrikituak jostunek *Basoko sekretuak* emanaldia eskainiko du udaletxeko batzar aretoan. Haurrei zuzendutako

emanaldia izango da. 18:00etan helduen txanda izango da eta *Munduko emakumeak* obra eskainiko dute. Helduentzako emanaldiak irauten duen bitartean, haurrentzako jolasak antolatu ditu guraso elkarteak eta txokolatea ere banatuko dute. Goizean prestatutako pizza oreari atsedean hartzeko behar duten denbora eman ondotik, beharrezko osagaiak botako dizkiete eta gero, elkarrekin afaria egingen dute.

Pizza jaterako izen-ematea

Pizzak afaltzeko asmoa dutenek aldeztatik izena eman beharko dute: Sastinean jarritako zerrendan edo herritarren whatsapp taldean zabalduko duten formularioan. Argi utzi dute izena ematen ez duenak ez duela pizza afaltzerik izango. Afarian bertan zazpi euro ordaindu beharko dira pizza eta edariaren (sagardoa edo ardoa) truke.

Baserritarrez jantzita

Janzkeran ere festa eguna dela nabaritu dadin, herritarrei baserritarrez janzteko deia egin nahi izan diete: «Gona, ator, galtza eta abarkak armai-rutik atera eta ohitura mantendu dezagun».

Panpanoziri aldizkaria laster izango da etxeetan

Herriko kontuak biltzen dituen Panpanoziri aldizkaria laster jasoko dute herritarrek etxean. 2013an argitaratu zuten aurreneko Panpanoziri aldizkaria eta, bi urtetik behin egiten dutenez, seigarren alea izango da aurtengoa. *Kanpoan ongi, herrian hobeki* izenburua eman diote ale honi eta herritar talde batek egindako hila-betetako lanaren emaitza dira bertan ageri diren elkarrizketak, erreportajeak, argazkiak, denborapasak... Etxez etxe banatuko dute aldizkaria Euskararen Egunaren bezperatan.



Panpanoziri aldizkariaren ale berria.



ENERITZ IRAOLA

Adi entzun dituzte liburu sendalariak kontatukoak

Azaroaren 17an Ainara Unanua aktoreak *Liburu sendalaria* antzezlanaren taularatu zuen udaletxeko batzar aretoan. Integrazioa, inklusioa eta errespetua lantzen dituzten kontakizunak entzun ahal izan zituzten ikusleek.

Guraso Elkarteak saskia zozketatuko du Eguberrietan

Sastinean jarri dute ikusgai guraso elkarteak Eguberrietan zozketatuko duen saskia. Azkeneko urteetan bezalaxe, saski ederra osatu dute. Tartean, Errigorako ekoizleen produktuak eta herriko ekoizleenak bildu dituzte. Boletoak Sastinean edo guraso elkarteak kideen bidez eros daitezke. Euro baten truke hamar zenbaki dituen txartela eskura daiteke. Abenduaren 22an Loteria Nazionaleko sari nagusiaren azkeneko lau zenbakiekin bat datorren boletoaren jabea izango da irabazlea.

'Gaizkileen galtzada. Leitzako dorreak' nobela kaleratu dute

Gaztelaren eta Nafarroako Erresumaren arteko XIV. mendeko gaizkileen mugan gertatzen zena gazteei helarazteko

TTIPI TTAPA

Fikzioa eta historia nahasiz, XIV. mendeko Leitza irudikatzen du Garazi Albizuaren eleberr historikoak. Mugaren inguruetan garai hartako bizimodua nolakoa zen erakusten du: ezinegonak, traizioak, lapurretak, botere harremanak... Leitzako Udalak proposatutako proiektua izan da. Herriko Erdi Aroko dorreak eta historia lantzeko asmoz, urteak daramatzate Iñaki Sagredo historialariarekin lanean. Hainbat informazio bildu dute eta hori gazteei helarazteko eleberr historiko bat egitea pentsatu zuten. Sagredok landutako informazioa fikzioarekin nahasi eta gazteentzat erakargarriagoa izatea zen asmoa. Albizuari egin zioten, orduan, liburu idazteko proposamena eta baiezkua eman zuten.

Fikzioa eta historia uztartuz

Pamiela argitaletxearekin kaleratu dute eta liburuaren aurkezpenean «helburua lortu» dutela adierazi zuen Mikel Zabaleta zinegotziak. «Askotan



Garazi Albizua. PAMIELA

aipatzen da 1512an hasi zela konkista, baina honekin guztiarekin azaltzen da nola bi mende lehenagotik ere presio eta tentsio handia zegoen. Gaztelako erreinuak, Gipuzkoatik barrena kasu honetan, erasoak eta presioa egiten zion Nafarroako Erresumari. Leitza mugan egonda, erasoak, suteak, lapurretak, hilketak eta miseriak pairatu behar izan zituen, eta hori guztia ere azaltzea nahi genuen».

Gaitu proiektuarekin bat egiteko deia egin du euskara taldeak abenduaren 3an

TTIPI-TTAPA

Gaitu proiektuaren helburua milaka ahots biltzea da adimen artifizialak euskaraz egin dezan. Makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu eta horretarako, milaka grabazio ordu behar dituzte

euskaraz. Abenduaren 3an ekimena azaldu eta grabazioak egiten laguntzeko postua jarriko dute euskara taldeko kideek. Plazan egonen dira, 12:00etatik 13:00etara eta grabazioa egin aurretik sabela goxatzeko pintxoak ere banatuko dituzte.



ENERITZ IRAOLA

Jendetza bildu da azokaren bueltan

Itxura ederra hartu zuen azaroaren 12an herriko plazak. Txukun apaindutako postuetan sasoiko elikagaiak jarri zituzten salgai eta bertako hazien postuak ikusmin handia sortu zuten. Ehun abelburu baino gehiago bildu zituzten eta lehenbizikoz azien-dek Peritza aldameneko estratatik egin zuten plazarako bidea.

Euskal Herria Mendi Erronka probarako izen-ematea zabalik


Ekainaren 1ean hamargarren edizioa beteko du Euskal Herria Mendi Erronka lasterketak. 67 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute parte hartzaileek bakarka edo erreleboka (bi emakume edo talde mistoak). Euskal koparako puntuagarria izanen da.

Balikebale lehiaketa abenduaren 5ean egingen dute

Balikebale lehiaketaren bosgarren edizioa Leitzako Herri Aretoan egingen dute abenduaren 15ean, 19:00etan. Gazteei zuzendutako lehiaketa izanen da aurtengoa eta lau talde ariko dira oholtzan Leitziari buruzko galderak erantzuten.

Illarregi anaiek finalerako txartela eskuratu dute

Abenduaren 2an Iruñeko Anaitasuna kiroldegiko oholtzan kantuan ariko dira Joanes eta Xabal Illarregi Marzol. Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerako sailkatzea lortu dute biek. Zorte on!



UTZITAKOIA



Ate-irekietan parte hartu zuten herritar eta ordezkariak. ENERITZ IRAOLA

Mimukai garapen zentroak ireki dituzte

Coworking gunea da eta herriko eragile sozio-ekonomikoentzat bilera gelak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte

TTIPI TTAPA

Leitzako Landa industria gunean dagoen Mimukai Garapen Zentroaren aurkezpen ofiziala egin zuten azaroaren 10ean. Duela lau urte abiatu zuten proiektua eta elkarlanean ondu dute Leitzako eta eskualdeko hainbat udalek, Cederna Garalur elkarteak eta Nafarroako Gobernuak. Mimukaik Tokiko Ikuspegia, iraunkortasuna eta gizarte-ekonomia eraldatzailea izanen ditu ardatz.

Dabid Anaut Leitzako alkateak eta Ibon Mimentza Cederna Garalurreko gerenteak

hartu zuten hitza eta biek hala biek elkarlana azpimarratu zuten. «Orain espazioari bizia ematen asmatu» beharko dutela nabarmendu zuen Dabid Anaut Leitzako alkateak. Gaur gaurkoz, herriko eragile sozio-ekonomikoentzat bilera gelak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte bertan. Arratsaldean, herritarrek zentroa ezagutzeko aukera izan zuten eta jende ugari hurbildu zen. Ateak ireki orduko agerian gelditu zen zentroaren izaera eta hainbat hitzaldi eta formazio saio antolatu dituzte: lehenbiziko momentutik eragiten hasteko.


Familiei zuzendutako hainbat proposamen gizarte zerbitzuen eskutik

TTIPI TTAPA

Gizarte zerbitzuek hainbat proposamen egin dituzte datozen asteetarako. Abenduaren 14an musika, dantza eta ipuinen tailerra egingo dute Haizea Loirarekin. Talde mugatuak izanen dira eta adinaren arabera banatuko dituzte. 9 eta 18 hilabete artekoak talde batean ariko dira eta 19 eta 36 hilabete artekoak bestean. Ordubeteko saio dinamikoak izanen dira eta haurrekin batera, gurasoek parte hartuko dute. Izen-ematea abenduan irekiko dute.

Familien txokoa

Horren segidan, abenduaren 20an familien txokoa ere egingo dute Leitzako udaletxeko aurreneko solairuan. 0-1 urte artekoak 10:00etatik 11:00etara elkartuko dira eta 1-3 urte



Haizea Loira. ARTXIBOA

artekoak 11:00etatik 12:00etara. Beste familia eta profesionalekin, zalantzak argitzeko eta esperientzia pertsonalak partekatzeko gune seguru bat eskaintzea da familia txokoaren helburua.

Urtarrilean lehen sorospenei buruzko tailer bat antolatzeko asmoa ere badutela aurreratu dute eta galdetegi bat ere zabaltzeko asmoa dute, familien iritzia eskatu eta eskaintza haien beharretara egokitzeko.

'Tempus fugit' antzezlanaren abenduaren 10ean

Abenduaren 10ean Herri Aretoan *Tempus fugit* antzezlanaren eskainiko du Jon Ander Alonsok 20:00etatik aurrera. Sarrerak aldeztu aurretik zazpi eurotan eta leihatilan zortzi eurotan eskura daitezke.





MUSUNZAR
OSTATU JAIEZTEA

Elbarren 14, Leitza
747 406 968

Eguberri eguneko bazkaria
51,50€

QR code: 

menua hemen ikusgai

Urteberrirako eguneko bazkaria
62,50€

QR code: 

menua hemen ikusgai

Urteberrirako eguneko afaria eta kotiloia
71,50€

QR code: 

menua hemen ikusgai

Egunero 07:30etik aurrera irekita

EGIN ERRESERBA!

Bi bakarrizketa saio antolatu dituzte abenduaren 3rako

Patxo Telleria eta Mikel Martinez ariko dira udaletxeko ganbaran 18:00etatik aurrera

TTIPI-TTAPA

Euskararen Eguna ospatzeko, abenduaren 3an, helduentzako bakarrizketa saioak antolatu dituzte. Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktore ezagunek bi bakarrizketa eskainiko dituzte 18:00etatik aurrera udaletxeko ganbaran. Bien artean ordubete pasatxoko saioa eskainiko dute.

Txizatoki bat eszenatokian eta *Hamalau* bakarrizketak eskainiko dituzte. *Txizatoki bat Eszenatokian* obrak Patxo Telleriaren testua du eta artearen inguruko gogoeta berezia egiten du, Patxok berak antzetzua. Hala dio sinopsiak: duela ehun urte, Marcel Duchamp-ek pixatoki bat jarri zuen erakusgai museo batean, eta ekintza horrek artearen kontzeptua kolokan jarri zuen. Zer da artea? Zer da



Patxo Telleria. TARTEAN TEATROA

objetu artistikoa? Zer da sortzailea?

Mikel Martinezek, berriz, *Hamalau* bakarrizketa eskainiko du. Lutxo Egiaren testua da eta Cafe Bar Bilbao Antzerki Saria eskuratu zuen 2022an. Hamalau garren solairuan, terraza batean, bezero baten esperoan dagoen notarioa izanen da aktorea. Bezero horren suizidioa egiaztatzerakoan da. Suizida, baina, berandutzen ari da...



FELIX LOIARTE

Futbolari sena ere badute gaztetxoek

Goizueta eta Aranoko Guraso Elkarteak antolatuta, futbito txapelketa azkarra egin zuten azaroaren 11n. LH1etik DBH2ra arteko hogeita hamalau gaztetxok parte hartu zuten eta kirola egin bidenabar, arratsalde ederra pasa zuten lagunartean.

Giro bikaina izan dute bertso pintxo potean

Bertsoak, pintxoak eta poteak nahasita iluntze ederra izan zuten azaroaren 10ean Goizuetako Tifanitxon. Emakume taldeak antolatu zuen hitzordua eta Maddi Aiestaran, Eli Pagola eta Aissa Intxausti aritu ziren kantuan eta Ane Apeztexea gai-jartzaile lanetan.



Bertso pintxo potea. MARI



FELIX LOIARTE

Terexa Zabala omendu dute Etorकिन Egunean

Azaroaren 11n, Goizuetara bizitzera etorritako herritarrek Etorकिन Eguna ospatu zuten eta kaleak alaitu zituzten beste urte batez. Giro ederrean ibili ziren eta bazkalarrean, omenaldia egin zioten Leitzatik etorritako Terexa Zabalari.

Mus txapelketa azkarra antolatu du Umore Onak

Umore Ona elkarteak antolatuta, mus txapelketa azkarra izanen dute abenduaren 31n. Hitzordua 16:00etan egin dute elkartearen. Aldez aurretik eman beharko da izena eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu izena emateko momentuan. Txapelketa irekia dela argitu nahi izan dute antolatzaileek eta jendea parte hartzerako animatu: «nahi duen oro ongietorria izanen da». Lehenbiziko lau postuetan gelditzen diren bikoteek, urtero bezalaxe, sari ederrak eskuratuko dituzte.

Sukaldaritza tailerra prest dute abenduaren 16rako

Moka tarta nola egiten den ikasteko aukera izanen dute Mari Luz eta Argiñerekin

TTIPI TTAPA

Urte sasoi honetan, herrian sukaldaritza tailer bat antolatzeko ohitura izaten da. Aurtengo hitzordua ere prestatu dute eta abenduaren 16an, igandean, moka tarta nola egiten den ikasteko aukera eskainiko dute. Goizean, 10:00etan, egin dute hitzordua jangelan eta Mari Luz eta Argiñe izanen dira irakasleak.

Izen-ematea aurretik

Tailerrean parte hartzeko aldeztu aurretik izena ematea ezinbestekoa izanen da. Datozen

egunetan emanen dute horretarako aukera. Arrakasta handia izan ohi dute tailer hauek eta plaza mugatuak izanen direla jakinarazi dute antolatzaileek. Beraz, parte hartu nahi dutenek erne ibili beharko dute. Tailerra ordaintzeko diru kopuru bat ere ordaindu beharko dute eta izena emateko epea irekitzen denean zehaztuko dute zenbatekoa. Tailer praktikoa izanen da eta Mari Luz eta Argiñe emandako jarraibideei segika tarta gozo bat egiteko sekretu guztiak ikasiko dituzte.



Goizuetako Umore Onako abeslariak kantuan. FELIX LOIARTE

Goizueta eta Gasteizko abeslarien kantuen belarrien goxagarri

TTIPI-TTAPA

Belarriek goxatua hartu zuten azaroaren 11n. Ilunabarrean, kontzertua eskaini zuten Goizuetako Umore Ona abesbatzako eta Gasteizko Vicente Garcia abesbatzako kideek. Umore Ona abesbatzako Eneko Amundarain eta Vicente Garcia abesbatzako Maite

Vicuña zuzendarien aginduei jarraiki emanaldi ederra eskaini zuten. Kantu klasikoak, modernoagoak, bertakoak zein atzerrikoak entzun ahal izan zituzten ikusleek. Elizako aldarean batzuk, aulkietan eserita besteak; ikusle zein abeslariak, gozatu ederra hartu zuten.



IBAN ESKUDERO ETA ARAINBURU MENDI TALDEA

Kaxkoz kaxko lagunarte ederrean

Hogeita bost lagunek parte hartu zuten azaroaren 18an egindako mendi irteeran. Arriurdiñetatik abiatu eta Elama, Beltzuntza eta Loitzateko gainetara igo ziren. Arainburu Mendi Taldekoen hurrengo irteera abenduaren 31n egitekoa dute. Mandoegira igoko dira urteari bukaera emateko.



Kalejira egin zuten eguerdian. FELIX LOIARTE

Giro ederra izan dute Umore Onako Atalen Egunean

TTIPI-TTAPA

Umore Ona Elkarteko kideek hitzordua berezia izan zuten azaroaren 18an. Urtero bezalaxe, elkarteko kide diren atal guztiek egiten duten lana erakusteko baliatu zuten hitzordua. Mendian bueltaxka emanez hasi zuten askok eguna. Pilota partiduak jokatu zituz-

ten gaztetxoek eta dantza eta musikarik ere ez zen falta izan. Umore Ona abesbatzako kideek eta dantzariak, elkarri txanda emanez, abestiak eta dantzak eskaini zituzten kalejira egin bidenabar. Kirolari, musikari, dantzari edo ikusle, denek elkarrekin egun polita pasa zuten.

Eskolara pijaman haurren eskubideen alde

Baztango zazpi ikastetxek bat egin dute Nafarroako Magale harrera familien elkartearen ekimenarekin

R. OSKARIZ

Azaroaren 20a Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna da, eta Baztango ikastetxeetan familiarik ez duten haurrak oroitu zuten eguna. Estatuko Aseaf eta Nafarroako Magale harrera familien elkarteak zazpigarren aldiz antolatu zuten Pijamaren Eguna, eta ekimenarekin bat egin zuten Amaiurko, Azpilkueta, Arizkungo, Elizondoko, Oronozko eta Zigako eskolek, baita Baztan Ikastolak ere.

Gaur egun, Nafarroan 181 haur eta gazte tutoretzapeko zentroetan bizi dira, familiarik gabe. Haur horiek gogoan, eskolara pijaman joan ziren Nafarroako 28 ikastetxetako ikasleak, haur guztiek etxebizitza eta familia bat edukitzea duten eskubidea irudikatuz. Gainera, klasean gaia landu zuten hainbat jardueraren bitartez.

Baztango ikastetxeen artean, egun berezia izan zen Amaiurko Eskolarendako, Magale elkarteak aukeratua izan baitzen, azken urteetan egindako lanagatik. Bertan izan zen Fernando Anbustegi alkatea, Jaione Urtasun ipuin kontalariak *Mateo iritsi da* ipuina kontatu zien, harrera familietako testigantzak aditzeko aukera izan zuten eta haurren eskubideak landu zituzten ariketa eta filmen bidez.

«Haur guziek merezi dute familia bat»

Amaiurko Eskolan bere esperientzia kontatzen aritu zen Ana Ferrandez elizondarra, harrera guraso izandakoa. Duela 12 urte erabaki zuten

lehendabizikoz etxean haur bat hartzea; «Nafarroan familia baten beharra duten haur aunitz daudela jakin genuenean, etxekoan artean solastatu ginen. Gure alabei proposatu genien etxean haur bat hartzea, eta ttikiak baziren ere, egoera ongi ulertu zuten eta normala iruditu zitzairen familiarik ez duen haur bati aukera hori ematea. Bortzendako lekua baden etxean, seigarren batendako ere badago».

Azaldu duenez, «haur hauek harrera etxe bat behar dute gurasoak ez direlako ardura hartzeko gai, ez dakitelako zaindu. Horrek ez du erran nahi haurrek tratu txarrak jasaten dituztenik, edo guraso drogazaleak dituztenik. Ezin dituztelako zaindu daude egoera horretan, bertzerik ez, eta bakoitzaren kasua desberdina da».

Harrera familia izateko prozesua Nafarroako Gobernuaren bitartez egiten da; «elkarriketa bat egiten dute, familia 'egokia' den jakiteko, eta oniritzia emanda haur bat egokitzen diote». Hiru harrera mota daude, iraupenaren arabera: urgentea, simplea eta iraunkorra.

Urgentea «batez ere sortu berriendako eta sei urtetik beheitik haurrendako da». Harrera berehalakoa izaten da eta gehienez ere sei hilabetekoa, «haur horiek gero adopzioan eman direlako edo bertze familia batengana joan direlako denbora gehiagorako».

Simplea eta iraunkorra, berriz, «ohikoena» dira. Haurra fa-



Amaiurko Eskolan hainbat ekitaldi izan zituzten goiz osoan. UTZITAKOIA



laz bezala, pijaman joan ziren azpilkuetarrak eskolara aurten. UTZITAKOIA



Zigako Eskolako ikasleek ere bat egin zuten ekimenarekin. UTZITAKOIA



Pijamak zintziikatu eta marrazkiekin apaindu zuten eskola Oronozen. UTZITAKOIA

milian bi urte baino gutiago egonen dela aurreikusten badu gobernuak, harrera simplea da. Bi urte baino gehiago egon behar badu, iraunkorra. «Baina aurreikusitako epeak ez dira beti betetzen».

Honez gain, «inportantea da argi izatea haurrak ez dituela familiaren abizenak hartzen, eta ez duela harremana galtzen bere gurasoekin. Gurasoek haurra ikusteko eskubidea dute, eta haurrak bere jatorria ez galtzeko eskubidea dauka. Hemen ez dago onik eta gaiztorik, elkarri laguntzen dioten familiak baizik».

Ferrandezek argi du «haurra hobeki egonen dela familia batean, pisu batean bertze 8-10 haurrekin baino, hiru zaintzailerekin goiz, arratsalde eta gauerako. Haur guztiek behar dute egonkortasuna, gertatzen dena gertatzen dela gurasoak hor izanen dituela jakitea, onerako eta txarrerako».

Harrerei buruz solastatzean, «jendeari beldur gehien ematen diona behin-behinekotasuna da, haurra zurekin noiz arte egonen den ez jakitea. Baina zuk berarekin egon behar duzu beharrezkoa duen bitartean, eta ez duzu deus gehiago planteatu beharrik. Etxekoak ere noizbait joanen dira».

Hasmentan, «egokitze prozesua» izaten da, «seme-alaba bat edukitzean gertatzen den bezala, bere lekua aurkitu behar du. Baina pazientziarekin eta

maitasunarekin dena konponetzen da». Prozesu horretan, «familiak ere ikasten du. Bizitza aldaketaz beterik dago, eta aldaketa guzietan bezala, bere alde onak eta txarrak ditu. Azken finean, zure familia partekatzea da inportanteena».

Haurrak «ez du egoera hori aukeratu, baina pisutik ateratzea eta familia batengana joatea loteria tokatzea bezalakoa da. Bertze haurrak bezala sentitu daiteke». Gainera, «inportantea da haurrei dena naturaltasunez azaltzea, errealitatea den bezala, apaindu gabe. Guk haurra etxean izan genuenean, berak argi zuen denbora baterako izanen zela. Eskolan gai izan zen azaltzeko bere gurasoek bera zaintzen ikasi arte zegoela gurekin, eta ongi zaintzen ikastea haiekin bueltatuko zela. Hori da haien errealitatea, eta normaltasunez azaldu behar zaie».

Ferrandezek etxean haurrak hartzea animatu ditu eskualdeko familiak; «gure alabak tikiak zirenean, gu ez bagina haiek zaintzeko gai, bertze familia batek hartzea gustatuko litzaidake. Gainera, harrerak irauten duen bitartean Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen zaitu, ez zara bakarrik egonen».

Azkenik, argitu du «gainerako haurrak bezalakoak direla, gure seme-alabak bezalakoak, bere gauza on eta txarrekin. Baina zorte txarra izan dute bizitzan eta horregatik daude egoera horretan».



Elizondoko Eskolan ere kanpoan zintzilikatu zituzten pijamak. UTZITAKOIA



Arizkungo Eskolan hainbat urtez egin dute Pijamaren eguna. UTZITAKOIA



Baztan Ikastolan ere, pijamak soinean, gaia lantzeko aukera izan zuten. UTZITAKOIA



FANTXIKE
www.fantxike.com

⇒ Eguberri berexiak...
GU ERE BAI!

⇒ Ez utzi erosketak azken momenturako.

⇒ Oparitu hurbilekoa.

⇒ Oparitu Fantxiken.


















JAIME URRUTIA, 15 BEHEA
T. 948 58 03 12 - ELIZONDO



Elizondoko Ekoepel enpresa simulatuak irabazi zuen stand politenaren saria. UTZITAKOIA

Enpresa simulatuen azoka arrakastatsua Elizondon

Nafarroako 11 lanbide eskoletako 410 ikaslek parte hartu zuten Baztan pilotalekuan egindako azokan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Enpresa Simulatuen XII. Azoka egin zuten azaroaren 10ean, eta Elizondoko Lanbide Eskolari egokitu zitzaionez antolaketa, Baztan pilotalekuan izan zen ekimena. Hamaika ikastetxetako 410 ikaslek parte hartu zuten guztira, eta 50 mahai edo stand paratu zituzten, simulatutako 81 enpresen eragiketen defentsan lan egiteko.

Hezkuntza Departamentuko eta Baztango Udaleko ordezkariak izan ziren bertan, eta azken ekitaldian sari ba-

naketa izan zuten. Alde batek, *elevator pitch* onenaren saria Maria Ana Sanz ikastetxeko Drincake enpresak lortu zuen, irabiatuak eta *cupcake* naturalak egiten eta saltzen dituen. Stand politenaren saria, berriz, Elizondoko Lanbide Eskolako Ekoepel enpresak irabazi zuen, egurretik jatorritako produktuen salmentan aritzen dena; pelleta, paletak, folioak...

Akitzeko, parte hartu zuten ikasle guzietan bana oparitu zieten oroigarri gisa, Elizondoko ikastetxeko Mekanizazio arloko ikasleek eginak.



ERRIOXAKO UNIBERTSITATEA

Leire Barriola gartzaindarra saritua

Errioxako Unibertsitateak Enpresa Zientzien Fakultateko ikasle onenak aitortu zituen azaroaren 6an. Leire Barriola Goñi gartzaindarrak Turismo gradua egin du bertan, eta bere promozioeko espediente akademiko hobereana lortzeagatik saritua izan zen. Zorionak!



BAZTANGO BERDINTASUN BATZORDEA

Lizarrako hilketa matxistaren kontra

Jendetza bildu zen azaroaren 10ean Elizondon, Lizarrako zazpi urteko haurraren hilketa salatzeke. Hilketa matxisten harira «aurten antolatutako laugarren elkarretaratzea dela» azpimarratu zuten, eta «garbi ikusi dela, emakumeak ez ezik, gure inguruko haurrak ez daudela mehatxu honetatik salbu».

ELBETE KO
POSADA

Eguberri hauetan
OPARITU
Elbete Posada

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519
info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com

BRIKO
BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan
dutaontzia jartzea
Pinturak
Fatxadak
Pladurra
Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 • NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

'Lurraz beste' liburuaren aurkezpena Erratzun

Irakurleen Asanbladak ikasturteko bigarren hitzordua eginen du abenduaren 1ean, ortziralean, Erratzuko Lixutegian 18:00etan. Garazi Arrula Ruiz idazlea izanen da bertan, eta *Lurraz beste* bere azken liburuari buruz solastatuko da.

ALMACO Eraikuntzako materialak



Informazio eta aukera gehiago:
www.almacobaztan.com



📍 Errepide nagusia, Elizondo

☎ Tel. 948 580 104

 **GAMMA**



40 bat lagun bildu ziren zopak afaltzeko akordeoi soinuaz lagunduak. MAIALEN IANTZI

Iraganeko bestak oroitzuz, San Martin eguna ospatu dute Berroetan

MAIALEN IANTZI

Berez, Berroetako bestak data honetan ospatzen ziren, baina tenore aldrebes samarra denez (euria, hotza, elurra...), orain dela urte andana, bestak maiatzera aitzindu zituzten.

Hala ere, seinale eginez, herritarrek elkartzen segitzen dute urtero. Azaroaren 11n

herriko helduenek bazkaria egin zuten elkartearen. Urte luzez hori andre bazkaria izan zen, baina gaur egun andre zein gizon elkartzen dira mahai inguruan. Ondotik, 40 bat lagun elkartu ziren Baztan Zopak afaltzeko Joxe Anjelen akordeoiaren laguntzarekin. San Martin egun polita!

Berdintasunaren aldeko ihes gelaren II. edizioa abenduaren 3an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Traman-kulu *Escape roomak Berdintasunean jolasean* ihes gela antolatu dute abenduaren 3an Arizkunenean. Jokoan II. Errepublikara garaiko figura feminista izan zen Maria Maeztu eza-gutzera eman nahi dute, eta

partaideek gelatik ateratzeko erronka gairiditu beharko dute.

6-8 lagunendako sei saio eginen dituzte: 10:30ean, 12:00etan, 13:30ean, 16:30ean, 18:00etan eta 19:30ean. Izena ematea 613 00 36 34 zenbakian edo berdintasuna@baztan.eus helbidean.

V. Futbol Torneo Solidarioa AEA gaixoen alde

Inguruko lau talde arituko dira torneoan abenduaren 6an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Futbol Federazioak eta Baztango eta Doneztebe-ko Udalek V. Futbol Torneo Solidarioa antolatu dute abenduaren 6an. Anela elkarteari laguntzea du helburu torneoak, Nafarroako Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren (ELA edo AEA)

Elkarteari. Elizondoko Giltxaurdi zelaian izanen da ekitaldia, 10:00etan hasita.

Infantiletako lau taldek parte hartuko dute torneoan: Baztanek, Doneztebek, Osasunak eta Real Sociedadek. Gainera, hainbat sariren zozketak eginen dituzte.



AKELARRE KULTURGUNEA

'Belarriko kilkerak' liburu solasgai

Jendetza bildu zen Elizondoko Akelarre kulturgunean, Uxue Alberdik idatzitako eta Begoña Durrutik ilustratutako *Belarriko kilkerak* liburuaren aurkezpenean. Egileez gain, bertan izan ziren Arizkungo Elurre Iriarte, ipuinetako batean agertzen baita, eta Zugarramurdiko Helena Xurio.

BAZTANGO XURIE

660 890 007 (Ara)
616 218 719 (Iñaki)
info@baztangoxurie.eus
www.baztangoxurie.eus

3 bestako ostelua
KIRIBIL - BETARTE - OKORO

Egileeridake oparia!

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

BEOLA

JATETXEA

Ezkontzak eta ospakizunak

Ospakizunaren arabera menu desberdinak eskaintzen ditugu

Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 300 | www.beola.com | 686 152 917

Abenduko agenda kulturala ekitaldiz gainezka

Kontzertuak, ikuskizunak eta azokak izanen dira nagusi Baztanen hilabete honetan

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak abenduko eskaintza bildu du:

Azokak

Baztango artisau eta ekoizleek merkatuak egingen dituzte Elizondoko plazan hilaren 2an, 8an, 9an, 23an eta 30ean. Erratzuko artisauek, aldiz, urteko azken merkatua egingen dute 3an, herriko plazan goizez.

'Kanpora sartzen' antzerkia

Txalo Produksioak taldeko Intza Alkainek eta Xabier Fernandezek *Kanpora sartzen*

umorezko antzezlanaren aurkeztuko dute abenduaren 10ean Irurritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

Musika eskolaren emanaldiak

Baztango Musika Eskolak kontzertua egingen du Elizondoko Zahar Etxean, abenduaren 12an, asteartea, 17:30ean. Eguberrietako kontzertua, berriz, abenduaren 19an izanen da, 17:30ean Elizondoko elizan.

Baztan kantuz Gartzainen

Musika eta kantua maite dutenek Gartzainen izanen dute

hitzordua hilabete honetan, abenduaren 17an Baztan Kantuz ekimena bertan izanen baita. 12:00etan herriko plazan bilduko dira.

Bailableak Lekarozen

Dantzatzeko aukera ere izanen da abenduan, hilaren 17an, zehazki, Lekarozen. Elizondoko Gaiteroek mutxikoak, jotak eta larrain dantzak joko dituzte 12:30etik aitzinera.

'Jauzi' ikuskizuna

Dantza eta kantu ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da Irurritan abenduaren 22an, ortziralea, Irurritako Dantzari, Majoxko eta Elizondoko Koro Tikiren eskutik. Herriko pilotalekuan 18:00etan izanen da emanaldia.

Magiklown magia eta pailazoak

Irurritako Guraso Elkarteak antolatua, magia eta pailazoan Magiklown ikuskizuna egingen

dute abenduaren 29an, 17:00etan Gizarte Bilgunean. Haur boluntarioen laguntzarekin, magia truko harrigarriak egingen ditu Sebastian Dunckerke eta Panaiotis Fassoula-sek osatutako bikoteak.

Baztan-Bidasoko bandak

Baztan-Bidasoko musika bandek kontzertu berezia prestatu dute abenduaren 30ean, larunbata. Aitzinerago emanen dute honi buruzko informazio gehiago, sare sozialen bidez.

Liburutegian ere ekitaldi ugari

Ikasturtearen hasmentarekin, Baztango Liburutegi Publikoak hainbat jarduera antolatu ditu udazken eta negurako. Haurrendako ipuinaren ordua, helduendako komiki eta poesia irakurle taldeak, adin guzietarako asteazken sortzailak... Gainera, solasaldiak, kontzertuak eta erakusketak ere egingen dituzte.

622 90 30 55 • kaixo@mugarki.com • @mugarki
Ordoki poligonoa, ARIZKUN

BERTAKO PRODUKTUAK · ARRAINDEGIA · FRUTA-DENDA

948 580 496
681 284 090

Eskaerak egin ditzazkezu telefonoz edo whatsapppe
Elterako zerbitzua

Eguberri on!

Jaime Urrutia, 1 behea ELIZONDO

Anizko asteburu kulturala hilaren 8an eta 9an

Larunbatean bertso afaria egingen dute Onintza Enbeita eta Julio Sotorekin, eta txartelak salgai paratu dituzte 30 eurotan

MAITANE MARITORENA

Abenduaren 8an, ortziraletan, 17:30ean herri kirolak izanen ditugu, eta ondotik elkartean pizza eta krepeak egingen dituzte haur eta gaztetxoek. Hondarreko urteetan bezala, haur eta gaztetxoak izanen dira irakasle eta otorduaren prestatzaile. Otordura joan nahi duenak izena aitzinetik eman beharko du.

Abenduaren 9an, larunbatean, 10:30ean izanen da hitzordua mendi itzulixka egin bidenabar, parajeen izenak paratzen segitzeko: aurten Salaburdineta eta Iñertze aldea egingen da. Ondotik, elkartean kafettoa. 16:00etan Juan Angel Perotxena etorriko da, herrian egin dituen bertze bi muralen kontuko azalpenak ematera. Mural horietako bat lehengo lizutegia izan zenean eginga



laz parajeen izenak paratzen. ARTXIBOTIK

dagoenez, azalpenen ondotik 17:00etan elkartean Anizko andreen testigantzak bilduko ditugu, garai batean lixua nola egiten zuten kontatuz: Emilia, Txari, Dorita eta Sagrario arituko dira solasean. 21:00etan bertso afaria izanen da: Onintza Enbeita eta Julio Soto izanen dira kantuan arituko direnak. Txartelak dagoeneko salgai daude 30 eurotan eta edozein aniztarri erranda eskuratzen ahalko dira.



Asfaltos y construcciones del Baztan eta Viaria aglomeradok egin dituzte lanak. UDALA

Baztango Udalak 287.000€ inbertitu ditu zolaberritze lanetan

TTIPI-TTAPA

Udalak erran duenez, «jakina da Baztanek bide aunitzen mantentze lanak bere gain hartzen dituela. Guztira 1.200 kilometro bide inguru ditu, eta denak egoera onean mantentzeakostu haundiasuposatzen du». Hala ere, udalak «egunero bizitzarako funtsezkoak diren bideen mantentzean inbertsioak egingen ditu urtero». Berriki hainbat bide zolaberritu ditu, guztira 287.021 euro inbertituz. Lanak Asfaltos y construcciones del Baztan S.A. eta Viaria aglomerado S.L. enpresek egin dituzte.

Ondoko bideetan egin dituzte lanak: **Azpilkuetako** Larroingo, Apaioko eta Arribiltoko bideetan, **Arraiozko** Dolareko bidean eta Indekoan, **Beartzungo** Isastia, Garbalda, Berekoetxea, Askota eta Pardiolenan, **Erratzun**, **Gartzainen**, **Almandozko** Mendiolan, **Elizondoko** Mendinueta, Menditurri, Braulio Iriarte, Erlategi, eta Santiago karriketaren eta Franseneko bidean, **Berroetan**, **Anizko** Bordaxuriko bidean, **Iruritako** Iturregin eta Tellerin, **Arizkungo** Aintzielden eta **Elbeteko** parkingean.

ferretería

Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK









Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA



Alkateak eta zinegotziek lanei buruzko azalpenak eman zituzten. MARIFA ETA KORO

Herriko etxe berritua besta giroan inauguratu dute

Bi jangela izanen ditu, udal bulegoak hirugarren solairuan eta 60 metro kuadroko bizitegia ere egin dute

MARIFA ETA KORO

Azaroaren 10ean inauguratu zen Herriko Etxea (ostatua 2020tik etsirik zegoen, eta udal bulegoak abantzu bi urte). Herritar aunitz bildu ziren eraikinean egin diren berrikuntzak ezagutzeko, eta besta giroa bizitu zen, aperitifa eta suziriak barne.

Berrikuntza handiak egin dituzte, barneko aldea moldatu eta espazioa ere handitu baitute. Orain jatetxeak bi jangela izanen ditu (bata behegian eta bertzea goitian). Udal bulegoak bigarren pisuan daude eta pleno aretoa hiru-



Haurrek ere parte hartu zuten.

garrenean. Berrikuntza nagusia 60 m²ko bizitegi bat egin dela da, ostatua eta jatetxea hartzen dutenendako. Komun publikoak berritzeko ere profitatu du udalak obra hau.



MARIFA ETA KORO

Narkonea egoera kezkarrian dago

Narkoneak 20 bat urte darama etsirik eta abandonaturik. Gaur egun egoera kezkarrian dago: leiho irekiak, paretak hondaturik, teilatutik ura sartzen, sasia eta huntza gailentzen... Etxearen alde batean eskola dago eta museoa bertzean, eta horrek arriskua oraindik gehiago handitzen du.

Mugikorrek eta tabletak erabiltzen ikasteko ikastaroa

Helduendako ikastaro polit bat eskaintzen du Nafarroako Gobernuak: telefono mugikorrek tabletak eta gisako gailu elektronikoak erabiltzen ikasteko ikastaroa, hain zuzen. Abenduaren erdi aldean emanen dute, (hilaren 11n edo 18an hasiko da), bortz egunez, eta egun bakoitzean bi oroneko iraupenarekin. Interesatuta daudenek Herriko Etxean eman behar dute izena lehenbailehen, eta ikastaroa bera ere, Herriko Etxean emanen dute, orain dotore-dotore da goela baliatuz.

Behetik karrika herritik kanpoko autoei debekatua

Aspaldixkotik argi ikusten da Behetik karrikan zirkulazioa debekatu behar zaiela herrikoak ez diren ibilgailuei. Hori adierazten duten seinaleak izan badaude, baina ez dira sobera eraginkorrik suertatzen eta, besta edo opor egunetan batez ere, aunitz dira karrika horretan harat-honatean ibiltzen diren ibilgailuak. Beraz, zezenari adarretatik heldu eta Herriko Etxeak gaia seriooki hartu nahi du, eta behar den bezalako seinaleak emanen dituela jakinarazi dute. Ea eragina izaten duen.

ARRETXEAK ESTANKOIA

ZIGARRO PURUEN CAVA

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrecea@yahoo.es



Iribarren eta Zubieta irabazleak eta epaimahaiko kideak. UTZITAKOA



Txomin Iribarren eta Elena Iribarren.

Pantxo Benta garaile Dantxarinako X. Pintxo Lehiaketan

Elena Iribarrenek prestatutako pintxoak irabazi du sari nagusia eta Landibarko Julen Zubietarenak publikoarena

ARANTXA ETA IRAIA

Dantxarinako hamargarren pintxo lehiaketako irabazlea Pantxo Benta izan da aurten. Epaimahaiaren saria irabazi du Pantxo Bentako Elena Iribarren sukaldariak bere pintxoarekin: Bakailao brandada kanutilloa garbantzu kremarekin. Facebook bidez boto gehien jaso duen pintxoak, berriz, Landibarreko Julen Zubietarena izan da: bakailao eta patata brandada, piperradaz, onddoz eta pikillo pil-pilaz betea. Facebook bidez hau bozkatu dutenen artean Mutrikuko Haitzalde agroturismo

etxean egonaldi bat zozketatuko dute.

Epaimahai ofiziala osatu dutenak Marianne Sage Sarako Arka jatetxeko sukaldaria, Thomas Rouch Ainhoako Ithurria jatetxeko sukaldaria, Aitor Etxeberria Berako Churrut jatetxeko sukaldaria, Catherine Marchand La Semaine du Pays Basque aldizkari kazetari gastronomikoa, Iñaki Ariztia Urdazubiko alkatea, Santiago Villares Urdazubiko alkate ohia eta Txomin Iribarren Dantxarinako Merkataria eta ostalaritza elkarte lehendakaria izan dira.



Txomin Iribarren eta Julen Zubieta

Azaroaren 4tik 18ra Axularreko Drunken Duck, Bioken Lapitxuriko jatetxeak eta Snack ostatuak, Landibarrek, Paco Bentak, Pantxo Bentak eta Peio Bentak parte hartu dute lehiaketan eta bakailaoa eta patata nahitaez izan behar zuten pintxo bereziak aurkeztu dituzte. Bezeroen artean arrakasta izaten duen ekimena izaten da aurten hamargarren edizioa bete duen lehiaketa eta sukaldariak mimoz prestatzen dituzte pintxoak.

Zerri-hiltzeak hasi dira negua hurbiltzean

San Martinak pasatu, hotzak hasi eta negua hurbildu ahal zerria hiltzeko egunak ere hasten dira herriko baserri anitzetan. Ohitura den bezala, goizean zerria hil eta arratsalde edo biharamunean odolki eta xixtorrak prestatzeko tenorea izaten da. Familia guztia lagunzarekin egiten den lana izaki, denak elkartuz egun politak izaten dira gure auzoetako baserrietan. Aldi berean, negurako jakiak presatatu eta hozgailuak ongi betetzeko baliagarria den ohitura.

Urteko langabetu kopururik ttikiena udazkenean

Urdazubi langabeturik gabeko herria dela erran ohi da. Ez da guztiz egia, baina, zorionez langabetu gutti izaten da. Irail eta urri hondarreko Doneztebeko Enplegu Bulegoko datuei erreparatuz, hiru langabetu daude herrian, urteko kopururik ttikiena. Ilbeltzean 5 langabetu zeuden, otsailean eta martxoan 8, apirilean 9 (urteko gehiena), maiatzean eta ekainean 7, uztailen 6 eta agorriean 4. Orain azaroko eta abenduko datuak ikustea faltako da eta ea urtea ongi bukatzen dugun.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
SERVICIOS DE RESTAURACION

Montxo
SATEKHEA • ERREBETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Akular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com



Hainbertze haur bildu zen Lur Berrin Pontx pailazoak ikustera. GANEX

Pontx pailazoak herrian aurkeztu du azken ikuskizuna

'Gelara!' ikuskizuna lehen aldiz eman zuen herritarrek haurrez gainezka zegoen Lur Berri gelan azaroaren 18an

GANEX

Pontx Pailazoak hazilaren 18an, larunbat arratsaldean Lur Berri gelan egin du Gelara! bere ikusgarri berriaren aurkezpena. Gelan gandi bazen hainbertze jende etorria eta behar zen ikusi nola zabaldu duen bere jakintasuna. Ttikitik bazuen Joanes Etxeberri saratarak Pirritx eta Porrotxen ardua eta handitu delarik, segitu du bere ideia, Pontx pailazoan bihurtuz.

«Bai zinez horrela segituz gora joanen zara Joanes, segi maita duzun ofizio horretan eta suerte on zuri Joanes».



'Gelara!' ikuskizuna.

Sarakoaren ondotik, Baionako Polo Beyris-eko ikusgarri gelan eskaintzekoa zuen bigarrena Pontx pailazoak azaroaren 25ean eta segur berte hainbat izanen dituela.

Elizako karrikan sare bakarra sare berezi bilakatzeko lanei buruzko bilera

GANEX

Elizako karrikan egingen dituzte lanak, euriaren urak kenduko dituzte ur zikinetatik, sare bakarra sare berezi bilakatzuz. Horretarako bertze kanalizazio bat egingen dute eta lan horiek egingen dituzte 2024ko urtarriletik goiti. Hilabete eta erdi iraun behar lukete. Karia hortarat bilkura antolatu du Euskal Hirigune Elkargoak hazilaren 29an, asteazkenean 18:00etan herriko etxean. Karrika horretako jendeak etorri, zeren izanen dira gauza bereziak jakiteko eta



Elizako karrika. ARTXIBOKOA

buruzagiekin mintzatzeko aukera, lanak nola eginak izanen diren ikasteko. Bilkuran parte hartu ezin dutenek herriko etxearekin harremanean jartzea eskatu dute.

Euskarazko liburuak etxean Mirentxu Ibargarainen eskutik

Mirentxu Ibargaraiak Haria proiektua martxan jarri du. Interneteko www.haria.eus webgunearen bidez, euskarazko liburu harpidetzak proposatzen dizkie gurasoei. Honela, haurrak hilabetero edo bi hilabetero hartuko luke etxean, posta bidez, «arta handiz hautatu liburu bat eskuratzen du, bere adinarentzat egokia, pakete polit batean bildurik». Hiru harpidetzamota proposatzen ditu, kontuan hartuz euskaraz idatzitako liburuen eskaintza handirik ez dela liburu dendetan.

Sutarako egurra abenduaren 1a arte eska daiteke

Sutarako egur loteak salgai ditu herriko etxeak urte guziz bezala, baita akaziak ere. interesatua denak eman dezake izena Herriko etxean abenduaren lehena aitzin, deituz 05 59 5420 28 telefonora bulego ordutegian (astelehen, asteazken eta ortziraletan, 09:00-12:30 eta 14:00-18:00 eta astearte eta ortzegunetan 09:00etatik 12:30era) edo mairie@sare.fr helbide elektronikoan, norbere datuak eta egurra bide bazterrean edo moztutako lekuan bertan nahi duen zehaztuz.

Hazparke nagusitu da Aiherran taldekako Xilaba txapelketaren finalean

TTIPI-TTAPA AIHERRA

Aiherrako Denen etxea gela lepo zela jokatu zen azaroaren 18an taldekako Xilabaren finala. Muttikoak taldean Irati Alcantarilla, Miren Artetxe, Ibai Lekuona eta Haize Lekuona aritu ziren Hazparke taldean Irantzu Idoate, Nahia Sasco

eta Ortzi Idoate. Gai emaile lanetan Amaia Castorene eta Xalbat Alzugaray aritu ziren. Epaila izan ziren Ainhua Sarasua, Iban Thikoipe eta Maialen Berrak emandako puntuetaren ondorioz, Hazparke taldeak jantzi zituen hiru txapelak.



Taldekako Xilaba txapelketako txapeldun eta txapeldunordeak.



Azkaingo Kurrunka taldea Segi Aitzina elkartearen kantaldian.



Erdi Aroko arotza.

Kultur ekitaldiz ongi hornitua joan da aurten ere azaroa

San Martin egunean azoka egin zuten Inharria baserrian eta Segi Aintzina elkartearen kontzertu hunkigarria Larrekon

JL BESSONART

Ohi bezala, azaroa kultur ekitaldiz oparoa izan da aurten ere. **Azaroaren 9an** aurkeztu zuten *Indianoak* dokumental-lak interes handia sortu zuen eta publikoak ongi erantzun zuen. Abentura honetako Ibaialde elkarteko kide zombait hor ziren, berek bizi duten esperientzia kontatzeko. Filmaren ondotik eztabaida aberatsa izan zen. Ur korronteari kontra eginez, San Lorenzo ibaiaren ahotik Montrealeraino joan ziren arraunlari amateurak. Zeharkatu dituzten herrietan, portuz portu, seku-

lako harrera ona ukan zuten aldiro.

Azaroaren 11ko San Martineko azokan, berriz, beren obrak aurkeztu zituzten 20 arte-artisauez betea zen Inharria baserria. Biziki ongi animatua izan zen, bereziki zumba elkarteak dantza indartsuak azaldu zituelarik, haur eta helduak nahasiz. Erdi Aroko arotzak ere arrakasta ukan zuen, erakutsiz nola markatzen edo jotzen ziren garai hartako txanponak. Arratsean, berriz, Segi Aintzina elkarteak finkatua zuen hitzordua Larreko antzokian, kantaldi bikaina-



Haurrak zumba egiten.

rekin. Tartean kantari aritu ziren argazkian ageri diren Azkaingo Kurrunka taldekoak, Patxi Garat, Bost Axola edo Yannick Tellechea, bertze hainbat sorpresarekin batera. Sala leporaino beterik, gozaldi ederra sortu zen eta momento hunkigarriak, kantuen aldetik baita erien lekukotasunengatik. Izan ere, bildu zen dirutza erreumatismoari buruz diren eritasunen ikerketarako izan da.

Eguberrietako merkatua abenduaren 2an

Abenduaren 2an iraganen da Eguberrietako merkatua, larunbatean, 09:00etatik 19:00etara, Larreko kulturgunearen atarian. Salerosketen bidez Eguberrietako opariak eskura daitezke. Animazioak ez dira eskas izanen, eta jateko eta edateko ugari ere izanen dute.

Kontari abesbatza kantari izanen da igandean elizan

Abenduaren 3an, Euskararen eguna ospatuz, 50 haurrek osatzen duten Landarbasoko Kontari koro bereziak, *Lumen* errepertorioa interpretatuko du abenduaren 3an, igandean 17:30ean elizan. Sarrera libre. Izigarriko energia partekatuko dute.

'Transmisioa' dokumentala abenduaren 7an

Transmisioa dokumentala emanen dute abenduaren 7an, ortzegunean, 19:00etan Larrekon. Argentinako Olentzeroren Lagunak elkarteari laguntza ematea du helburu. Iparraldeko Euskal Ikaskuntzak eta Olentzeroren Lagunek antolatutako ekitaldia urrik da.

Kabaret burlesko ikuskizuna abenduaren 9an ikusgai izanen da Larrekon

Hitzordu zinez dibertigarria aurkeztuko dute Larreko antzokian, Herriko etxearen ekimenez, abenduaren 9an, larunbatean 21:00etan. Lumak, girgileriak, jantzi distiratsuak ageri dira *Cabaret Burlesque* ikusgarri honetan. Artista gazteak izanik, koreografia indar-

tsu eta sexybatean garraiatuko dituzte ikusleak, gaur egungo musikaz beterik, ahantzi gabe French Cancan xelebrea. Gure eskualdean ohikoa ez den ikusgarriko erreserbak Euskal Herriko Turismo bulegoetan. Prezioa 20 euro, prezio murriztua 14 euro.



Lumak, girgileriak eta jantzi distiratsuak izanen dira ikuskizunean.



Nafarroako aizkolari txapelketako finalistak eta harri-jasotzaileak. UTZITAKOIA

Iker Vicentek bederatzigarrena Donezteben lortu du

Jon Rekondo leitzarria hirugarren postuan igo zen podiumera eta Zigako Joxean Etxeberria laugarren izan zen

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala jokatu zuten azaroaren 17an, Doneztebeko feria egunean, Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Pronostikoa bete eta Otsagabiko Iker Vicentek bere bederatzigarren txapela jantzi zuen. Arribeko Ibai Soroa eta

Leitzako Jon Rekondo izan zituen lagun podiumean.

Espero bezala, Iker Vicente izan zen bizkorrena lau kanardikoak, lau 60 ontzakoak eta bi oinbikoak mozten. Ordu erdi baino guttiago behar izan zuen lan hori burutzeko (28.35). Ia sei minutuko aldea atera zion bigarren izan zen Ibai

Soroari (34.30) eta zazpi minutu baino gehiagokoa hirugarren izan zen Jon Rekondo leitzarriari (35.53). Laugarren Zigako Joxean Etxeberria izan zen (39.45) eta bosgarren Arribeko Txomin Amundarain (42.03).

Bederatzigarren txapelarekin, Floren Nazabal berdindu du Vicentek eta txapel bakarrera du Mikel Mindegiaren errekorra (hamar lortu zituen).

Aizkolariaren txapelketa ofizialaz gain, Olaia Esnaola azpeitiarrak eta Udane Ostolaza oriotarrak erakustaldia egin zuten harri altxatzen.

Oihan Larretxea hirugarren Euskal Herriko 2. mailan

Oihan Larretxea aizkolari beratarra podiumera igo zen Euskal Herriko bigarren mailako aizkolari txapelketaren finalean. Azaroaren 11n jokatu zuten finala Arrietan (Bizkaia) eta Elgoibarren jokatu-tako kanporaketa irabaziz finalerako txartela lortu zuen Larretxea hirugarren izan zen, Andoni Iruetagoiena txapel-dunaren eta Aritz Irazabalen gibeletik. Laugarren Jon Rodriguez izan zen, bosgarren Beñat Lekue eta seigarren Julen Aranberri.

Euskal Herriko lokotx biltze txapelketak abenduaren 6an

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko lokotx biltze txapelketa jokatuko dute abenduaren 6an, asteazkenean 12:00etan hasita Mungiako pilotalekuan (Bizkaia). Emakumezkoetan, Ainhoa Etxegarai Elgorriaga beratarra, Nafarroako eta Euskal Herriko azken txapelduna izanen da eskualdeko ordezkaria, berriz ere txapela jantzteko gogotsu. Berarekin batera Nerea Huarte, Estibaliz Messu-guer, Irantzu Onaindia, Ane San Pedro eta Amaia Jimenez lehiatuko dira. Gizonezkoetan, berriz, Unai Iantzi Maritorea aniztarra izanen da eskualdeko ordezkari, hau ere Nafarroako eta Euskal Herriko azken txapelduna. Berarekin batera, Aitor Blanco, Aritz Martin, Patrik Saitua, Jon Vegas, Guillermo Lopez, Jon Larrañaga eta Mikel Osoro ariko dira. Ohi bezala, emakumezkoek nahiz gizonezkoek 50 lokotxak ahal bezain agudo bildu beharko dituzte saskira.



ARGAZKIJABEAXXX

David Albiasu Nafarroako txapeldun

David Albiasu narbartearra suertatu da txapeldun Nafarroako borts eta erdiaren barreneko lehen mailako paleta goma txapelketan. Iruñeko Lopez pilotalekuan azaroaren 4an jokatu-tako finalean, 1-7 galtzen hasi arren 25-22 irabazi zion San Juan taldeko Xabier Legarrari.

Urki Txoperena hirugarren mailako futbolari onena

Urki Txoperena Elozegi futbolari lesakarra izendatu du AFEk (Espainiako Futbolari Elkarteak) 2022-23 denboraldiko hirugarren mailako laugarren multzoko jokalaririk onena. Beti Gaztetik fitxatu eta Barakaldo futbol taldearekin ari da Urki. Jon Tena taldekiderekin ageri da argazkian.



UTZITAKOIA



Beti Gazteko laukote mistoa Euskal Herriko txapeldun. UTZITAKOAK



Berriozarko 4x4 jaialdiko emakumeen podiumean Ibarra, Berriozar eta Beti Gazte.

Euskal Herriko 4x4 txapelketa mistoan Beti Gazte garaile

Gizonezkoen txapelketan bigarren izan zen, emakumeetan hirugarren eta zortzinakakoan hasiak dira orain

TTIPI-TTAPA

Behin Nafarroako txapelketa bukatuta, Euskal Herriko 4x4 txapelketa jokatu zuten azaroaren 11n eta 12an: emakumezkoen (250 kilo) eta gizonezkoen (310) kategorietako txapelketa Ibarra (Gipuzkoa) jokatu zuten larunbatean eta kategoria mistokoa (280 kilo) igandean Antsoainen.

Antsoainen jokaturako txapelketa mistoa irabazi zuen Beti Gazte. Ibarra A eta Ibarra B izan zituen lagun podiumean. Beti Gazteko laukote txapeldunean Irantzu Goienetxe, Iker Pikabea, Irati Andueza (Doneztebe) eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela.

Bezperan, Ibarra, Beti Gazteko tiralariak podiumera igo ziren, emakumezkoen nahiz gizonezkoen txapelketetan. Gizonezkoak 310 kiloko kategorian aritu ziren eta bigarren izan ziren, txapeldunorde, Zuraide A taldearen gibeletik. Zuraide B hirugarren izan zen. Emakumezkoen txapelketan, berriz, 250 kiloko kategorian, hirugarren sailkatu zen Beti

Gazte, Ibarra eta Araxesen gibeletik.

Berriozarren ere podiumera

Txapelketa ofizial honen ondotik, Euskal sokatira 4x4 jaialdia ere izan zuten azaroaren 19an Berriozarren. Beti Gazteko gizonezkoak bigarren izan ziren, Berriozarren gibeletik eta Zuraideren aitzinetik. Emakumezkoak, berriz, hirugarren izan ziren podiumean, Ibarra eta Berriozarren gibeletik. Txapelketa mistoan, azkenik, goma gainean paratu zituen bi taldeak podiumera igo zituen Beti Gazte, bigarren eta hirugarren, Berriozarren gibeletik.

Launakako lanak bukatu ondotik, Euskal Herriko zortzinakako sokatira txapelketan hasiak dira Beti Gazteko eta Amaiurko tiralariak. Igandean jokatzen zen Ezpeletan gizonezkoen 680 kiloko finala. Abenduaren 3an Elizondon jokaturako dute gizonezkoen 640 kiloko eta emakumeen 540 kiloko lehen kanporaketa eta kategoria hauetako finalak Donezteben jokaturako dituzte abenduaren 23an.



AUDITEK
Centro Auditivo - Entzumen Zentroa

Zure hurbileko kuttunak entzutearen gozamen

Entzun bai, baina ulertzen ez baduzu, Inguruan zarata dagoenean elkarriketak jarraitzea kostatzen du. Ahopean hitz egiten dutela iruditzen bazaizu, Telebistaren bolumena goratzen baduzu.

Lagundu zaitzakegu

BAI, DOAKO KONTSULTA NAHI DUT



IRUN

943 633 305

Paseo Colón, 27



HERNANI

943 386 962

Elkano Kalea, 35

Gomendatu diren osasun-neurri guztiak hartzeko konpromisoa ziurtatzen dizugu Auditek-en.

auditekcentroauditivo.com

AUDITEK
Centro Auditivo - Entzumen Zentroa

Asociación Nacional de Audioprotesistas de España

Asociación Española de Audioprotesistas

AZAROAK 30 - ABENDUAK 21

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eu



HAGO SILIK

ZUBIETA Piz&Lohi Pest musika jaialdiaren IV. edizioa

Kontzertuak, talo jatea, poteoa eta bazkaria. Egitarau osoa 31. orrian.
Abenduaren 1ean eta 2an.

IKUSKIZUNAK

BERA

'Liburu sendalaria'

Kultur Etxean, abenduaren 2an,
17:00etan.

'Hamelin y Aladdin' antzerkia

Kultur Etxean, abenduaren
15ean, 19:00etan.

'Bidasoa 2018-2023' dokumentala

Kultur Etxean, abenduaren 17an,
18:00etan.

SUNBILLA

Ekaitz Bertizen film laburrak

Abenduaren 3an, 18:00etan.

LESAKA

'Keinu leihoak 19' antzerki jardunaldiak

Harriondoan eta Arranon,
abenduaren 3an, 9an eta 15ean.

'Gernikako marika' bakarrizketa

Harriondoan, abenduaren 10ean,
18:00etan.

GOIZUETA

'Txizatoki bat eszenatokian' eta 'Hamalau' bakarrizketak

Udaletxeko ganbaran,
abenduaren 3an, 18:00etan.

LEITZA

Balikebale lehiaketa

Herri Aretoan, abenduaren 5ean,
19:00etan.

'Tempus fugit' antzerkia

Herri Aretoan, abenduaren
10ean, 20:00etan.

IRURITA

'Kanpora sartzen' antzerkia

Gizarte Bilgunean, abenduaren
10ean, 19:00etan.

DONEZTEBE

Porrotx eta Marimotots

Kiroldegian, abenduaren 13an,
17:00etan.

SENPERE

'Transmisioa' dokumentala

Larrekoan, abenduaren 7an,
19:00etan.

'Cabaret Burlesque'

Larrekon, abenduaren 9an,
21:00etan.

MUSIKA

SENPERE

Kontari abesbatza

Elizan, abenduaren 3an,
17:30ean.

LESAKA

Eguberrietako kalejira

Abenduaren 16an.

GARTZAIN

Baztan Kantuz

Plazan, abenduaren 17an,
12:00etan.

LEKAROZ

Bailableak

Plazan, abenduaren 17an,
12:30ean.

ELIZONDO

Musika eskolaren Eguberrietako kontzertua

Elizan, abenduaren 19an,
17:30ean.

BERA

Musika eskolaren Eguberrietako kontzertua

Elizan, abenduaren 20an,
18:00etan.

SOLASALDIAK

ERRATZU

'Lurraz beste' liburuaren aurkezpena

Lixutegian, abenduaren 1ean,
18:00etan.

LESAKA

'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikiaren aurkezpena

Liburutegian, abenduaren 1ean,
19:00etan.

'No me montes fiestas' liburuaren aurkezpena

Liburutegian, abenduaren 2an,
18:00etan.

'El ABC que salva vidas'

Liburutegian, abenduaren 12an,
17:30ean.

GOIZUETA

Sukaldaritza tailerra

Jangelan, abenduaren 16an,
10:00etan.

JARDUNALDIAK

ITUREN

Kultur Egunak

Abenduaren 3an, 8an eta 9an.

ARESO

Euskararen Eguna

Abenduaren 3an.

IGANTZI

Aste Kulturala

Abenduaren 6tik 10era.

ANIZ

Asteburu Kulturala

Abenduaren 8an eta 9an.

«Arkupeak Elkarteko ekintzak etxetik ateratzeko aitzakia dira»

LOURDES ERBITI CABALLERO LEITZAKO JUBILATUA



ENERITZ IRAOLA

Leitzako plazaren atzekaldean dagoen Katalinxonea etxean sortu zen Lourdes Erbiti Caballero. Leitzan sortu eta bertan eman du bizia: «oso gustura bizi izan naiz beti hemen, niretzako Leitza espeziala da». Txuri beltzeko argazkiek apaintzen dute bere etxeko egongela eta dantzariak ageri dira han eta hemen: «gure familian odolean dugu dantzarako afizioa. Aita dantzako irakaslea zen eta ume garaiko oso oroitzapen politak ditut». Urteak pasa diren arren, mantentzen duen afizioa da: «orain dantzariak ikustera joaten naiz». Leitzan izaten diren dantza saio gehienetara joaten dela aipatu du eta bada bat gorritz markatua duena: «Ezpata dantza sakratua da niretzat. Urtero joaten naiz ikustera eta, gainera, negar egiten dut». Dantza emanaldiak

asko aldatu direla ere esan du: «garai batean Ezpata dantza eta Ingurutxoak bakarrik dantzaten ziren. Orain, Euskal Herri osoko dantza pila bat, beraiek sortzen dituzten dantzak... eskaintzen dituzte eta oso polita izaten da ikusteko».

Badu galtzen ez duen beste hitzordu bat: «asteburuero lagunak elkartzen gara, kafetxea hartu eta gero afaltzera joaten gara». Astearen errepasoa egiten dute lagunarte goxoan eta irribarrez dio: «herria moldatzen dugu segituan».

«JENDE ASKO EZAGUTU DUT ETA OSO GUSTURA NAGO HORREKIN»

Arkupeak Elkartean buru-belarri

Arkupeak Elkarteko martxa ere aski ongi ezagutzen du: «senarra jubilatu zenean egin ginen elkarteko kide eta orain dela hamaika urte delegatu bezala sartu eta azken zortzi urteetan juntako kidea ere banaiz». Lodoso eta Lizarrako irteera egin bezperatan bildu ginen Lourdesekin eta txukun prestatua zuen autobuserako zerrenda: «hogeita hemezortzi goaz Leitzatik. Lodosara joan eta piperrak nola erretzen ditugun ikusiko dugu. Han aperitiboa egin eta kontserbak erosten ditugu. Handik Lizarrara joanen gara eta azokan buelta eman eta gero bazkalzera Larriongo bentara». Bazkalondoan, dantzarako aukera ere izanen dute: «bazkalondoan ezin da musikarik falta. Baztandarrak oso animatuak dira dantzan, ez dira gelditzen». Eta haien arrimoan beraiek ere animatzen omen dira.

Bazkideen zerrendarekin batera zakutxo berezi bat ere prestatu du: «autobusean sartzera beti errestan ibiltzen zen jendea. Ni etorri naiz lehenbizi, ez ni... ume jaio eta ume bihurtu esan ohi da eta ez alferrik! Bakoitzari paper bat ateratzeko eskatzen diogu, zenbaki bat izaten du paper bakoitzak eta hor tokatzen zaion zenbakiko eserlekuan eseri behar dute. Horrela ez da inor haserraten».

Betebeharrak

Irteerak egiten dituztenean Leitzaldeko izen-emateaz arduratzen da Lourdes, baita urtean bitan aldizkariak bana-

tu eta Eguberrietako loteria saltzeaz ere: «lan dezente eskatzen du, batez ere, loteriak. Leitzaldean hirurehun bat izanen dira Arkupeakeko kideak. Fermin eta bion artean egiten dugu banaketa eta etxetxe joan, tinbrea jo eta eskaintzen dugu. Badakigu toki batean saltzen jarri ezker, erdiak ere ez zirela etorriko».

Lanaz gain ardura ere bada, «irteeretara joaten zarenean kezka pixka bat ere izaten dugu. Dena ongi atera, inork minik hartuko ez duela zaindu... edozer pasa liteke». Kezkak kezka, nabari zaio gustura egiten duen lana dela: «eta jendeak eskertzen du egiten duguna».

Jendea ezagutu

Elkartek «jende asko ezagutzeko aukera» eman diola ere nabarmendu du, «eta oso gustura nago horrekin». Lana bakarrik ez, gozatu ere egiten du antolatzen dituzten ekintzetan. Hilabetero izaten dute zerbait eta bata bestearen segidan izendatu ditu: «Oia-nume sagardotegian bazkaria, mus txapelketa, Doneztebeko Kirolen Eguna, Euskal Kanten Eguna... eta egunpasak eta irteerak». Txoko batzuetara urtero egiten dute bisita: «Lourdesera, Aralarrera, Lezora, Benidormera, Lodosara...» eta beste batzuk aldatzen doaz, «aurten, Fiordoetan izan gara eta azaroan Palmara joatekoak dira». Egun bateko irteerak omen dira arrakasta gehien dutenak eta Lourdesek ere horietatik ditu gustukoak: «toki bat ezagutu eta jendearekin elkartzeko aukera ematen dizulako».

Adineko askorentzat, «etxetik ateratzeko aitzakia dira» ekintza hauek guztiak eta horregatik, elkarteko kide ez direnei gonbidapena luzatu nahi izan die Lourdesek: «etxeko besaulkitik altxa eta etor daitezela gurekin».

«JENDEAK ESKERTZEN DU EGITEN DUGUN LANA»

MERKATU TTIKIA

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Ibardingo Beola Etxean kurbazaina behar dute astebururo, egun bakarrean lanean aritzeko. Frantse-
sa jakitea beharrezkoa. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Ibardingo Beola Etxean lanaldi osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. Astean bi egun libre. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Ibardingo Beola Etxean lanaldi erdian aritzeko zerbitzaria behar dute. Astean bi egun libre. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

SUNBILLA. Espelosin Eraikuntzak igeltsero aritzeko langile bila. ☎619 41 69 59.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Pirinioetako mastin arrazako zakur emea oparitzeko. Urte batekoa. ☎674 49 28 21.



Katakumeak opari. Katakume bixi eta jostalariak etxe bila. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

BERA. Katuak oparitzeko. ☎662 20 25 35.

SALGAI



LEITZA. Txerriak salgai, kanpoan ibiliz hazi eta bizi direnak, garaian garaikoa janez: gaztainak, sagarrak, ezkurak.... ☎636 02 23 11.

2 urteko txerria salgai. ☎639 85 89 05.

DENETARIK

SALGAI

Umeentzako Bugaboo silleta salgai, egoera onean (maxi cosí, kapazoa eta silleta), grisa eta gordin kolorekoa, bi zakurekin. Sehaska txuri bat ere bai. Negoziatu beharreko prezioa. ☎659 86 74 14.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kurbako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

ZERBITZUAK

DENETARIK



daniinstalaciones@gmail.com 666 545 069

MOTORRAK

SALGAI

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT MEGANE IV 2019 URTEKOA 59.700 km

www.talleressantesteban.com

DOMIZTIBE - T. 948 450 282
info@talleressantesteban.com

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,02 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 250,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 90,00 €
- Idixkoak 50,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 11,60/11,70€
- 8-10 kilokoak: 9,50/10,20€

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 78 €

Zerri gizona 1,541 €

Zerramak 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua azaroaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)



KULTURKARI

Dizaino grafikoak | Publicitatea

www.kulturkari.com

Tiketak eta boletoak

Zozketak, tonbolak, sarrerak, loteria...

Paperean, grapatuak, takoetan...

KULTURKARI

Dizaino grafikoak | Publicitatea

www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

URTEBETETZEAK



Aran Lekuonak 13 urte bete ditu azaroaren 14an. Zorionak **Aran!!!** Muxu haundi bat zure gurasoen partez!!



Goizuetako **Maddi Apezetxea Alzugaraik** bi urte beteko du abenduaren 26an. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partez! Muxu haundi bat!



Enaitz Ispasoiu Apezetxea goizuetarrak azaroaren 22an 4 urte bete ditu. Oso ongi pasa *kolloxka!!!* Muxuk Curtea de Argeseko eta Goizuetako familiaren partetik.



Aunitz urtez **Intza!** Abenduaren 5ean 11 urte beteko dituzu eta musu haundi-haundi bat familia guziaren partez. Ongi pasatu zure eguna!



Enaitz Ispasoiu Apezetxeak 4 urte bete ditu azaroaren 22an. Zorionak gure etxeko *mottikori*, asko maite zaitugu! Aitabxo, amabxo eta bereziki Naiaren partez!



Igantziako **Oinatz eta Aiala Seinek** abenduaren 3an eta 10ean, 10 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak etxeko errege eta erreginari! Muxu pottolo-pottoloak eta besarkada bero-bero bat.

Lesakako EGUBERRIETAKO AZOKA

ABENDUAK 3
BEHEKO PLAZAN
10:00 - 18:30

Postuak:	Pintxoak:
Kattagorria	Arrano
Txinelka	Jubilatuak
Ansura	Koxkila
Pittin	Zartzonea
Intzuri	
Oreka	
Ortzadar	
Ordoki	

Lesakako Artisauak

KONTATU KONTUAK



AMEZTI ELKARTEA

Palestinako egoerari buruzko hitzaldia Elizondon.

Elizondoko Amezti elkarteak antolatuta, *Gazako sarraskia: Nakba berri baten aurrean gaude?* solasaldia egin zuten azaroaren 16an. 20 bat lagun bildu ziren Nafarroako BDZko kide den Helena Bengoetxea Gelbentzuren azalpenak aditzera.



BRT

Asier Arretxeari omenaldia. Hemeretzi urteko ibilbidearen ondotik, Asier Arretxea errugbilari narbartearrak errugbia utzi behar izan du belauneko lesio bat tarteko. Eta BRT-Menditarrak taldeak bera izan zuen gogoan azaroaren 18ko partida. Durangoko taldearen kontrako partida irabazi ondotik, omenaldia egin zioten Arretxeari. *Esker mile Ankaxuri* zioen pankartarekin «taldearengatik eta errugbiarengatik egin duen guztia eskertu» nahi izan zioten.



GILTZARRI ABESBATZA

Giltzarri Abesbatza Valentziara begira. Giltzarri Abesbatzak 2021ean 25 urte bete zituen, baina pandemia tarteko, ezin izan zuten urteurrena ospatu. Bi urte beranduago bada ere, orain egitea erabaki dute, Valentziara bidaiatuz. Erriberrin ezagututako Tavernes de la Valldignako (Valentzia) abesbatzako kideek hara joateko gonbita egin diete eta baiezkoa eman dute. Abenduaren 7tik 10era Valentzia aldean 40 lagun ibiliko dira.

HILBERRIAK

- **Beltran Elizalde**, Sarakoa, urriaren 29an, 94 urte zituela.
- **Alfonso Iriarte**, Sarakoa, azaroaren 3an 76 urte zituela.
- **Felisa Salaberria Zubiri**, Goizuetakoa, azaroaren 8an, 92 urte zituela.
- **Milagros Ansalas Irisarri**, Etxalarkoa, azaroaren 8an.
- **Joxe Ramon Arozena Apezetxea**, Goizuetakoa, azaroaren 8an, 89 urte zituela.
- **Leoncio Goñi Arregi**, Oronoz-Mugairikoa, azaroaren 9an, 81 urte zituela.
- **Visitacion Gallego Santana**, Berakoa, azaroaren 9an, 94 urte zituela.
- **Bernardo Merino Mendi**, Leitzakoa, azaroaren 9an, 77 urte zituela.
- **Ramon Garmendia Merketegi**, Elizondokoa, azaroaren 10ean, 60 urte zituela.
- **Teresa Etxebeste Zozaia**, Berakoa, azaroaren 14an, 101 urte zituela.
- **Josefina Erregerena Anzoain**, Erratzukoa, azaroaren 18an, 99 urte zituela.
- **Maritxu Alberdi Mendiberri**, Elizondokoa, azaroaren 18an, 69 urte zituela.
- **Victoriano Mendiburu Bergara**, Zigakoa, azaroaren 21ean.

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Inufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

BB
BAZTAN BIDASOA
Etxeetako Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERA n San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBE n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IZARRA
HEMEL, ZURE ONDOAN
ARIE, A TU LARON

Gure barra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu surrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

842 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Marian Zestau Barabar | LEITZA

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Amala Urroz Juanko | LEKAROZ

Ez kexa - Kamiseta bat
Tere Mitxelena Aioroa | ITUREN

BKZ Abentura - Sarrera bat
Goretti Ibarra Elizagoien | ETXALAR

Baga Biga - CD sorta
Iraide Sagardia Amiano | ANOTZ

Arkupe - Lote bat
Gabriel Garmendia Migeltorena | AMAIUR

Okille Tailerra - Eguzkilo bat
Iker Lasaga Gortari | DONAMARIA

Izar Park - Sarrera bat
Jone Fernandez Rodrigo | IGANTZI

Ibaizabal - Bi liburu
Alazne Diharasari Organbide | UROAZUBI

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumos.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buaxabal.com



Kamiseta bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irisariland.com



Sarrera bat

BARRUTIA 12
www.barrutia12.eus



Lote bat

TABERNA EDARIAK
www.tabernaedariak.eus



Lote bat

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

EDR GUNEA
Elbarren 47, behe - Leitza



Bale bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttapi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

MAUKA
MUSIKAGINTZA


www.maukamusik.com/eu/

ZORIONAK!
 UXUE BERMEJO ALMANDOZ
 842. aleko irabazlea zara!



MEZU GORDER

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia. Esaera zahar bat agertuko zaizu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

Marrazkiak: Garbifne Ubeoda (Alumni)

Loguntzailea:
ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!
 Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin abenduaren 10a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera: (0034) 744 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ITZALAK

Zein da txerri malebaristaren itzal zuzena?
Bide batez, margotu dezakezu.



EZETZ ASMA!

Azpiko praktikatan harrapatu dugun txerri dotore hau arra da. Txerri arrak izendatzeko hitz zehatzak ditu euskarak, ba al zenekien? Monoko zazpi hauen artetik hiruk, esaterako, horixe bera esan nahi dute. Ea asmatzen duzun zeintzuk diren.



ARLOTEA

ORDOTSA

AKETZA

KUIA

APOTEA

KOSKABILOA

MIZPIRA



Oparitu Arantzza Hotela

Pertsona berezi horri opari originala eta apartekoa egin nahi diozu? Esperientzia ahaztezina izatea nahi duzu?

Arantzza Hotelean badakigu pertsona bakoitza berezia dela, eta horregatik, opari txartelak pertsonalizatzen ditugu. Oparia hartuko duenari gehien gustatzen zaion esperientzia aukera dezakezu: gau bat afari erromantikoko batekin, masaje saio batekin, spa saio bat, gosari bat sparekin...

Eskatu zure **opari txartela** eta oparitu pertsona berezi horren neurrira egindako momentu ahaztezina

365 egun opari txartelari probetxua ateratzeko (edo opari txartela erabiltzeko)

ARANTZA
HOTELA

